



2014-07-04
EGUBAKOITZA
603. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Une honetan
PSOEK ez dauka
sinesgarritasunik
gizartean"

Oscar Rodriguez |
PSE-EEko kidea | 7



Aretxabaletan
uztailaren 14tik
aurrera, atez ate

Bosgarrenaren
aldekoek galdeketa
gura dute herrian | 21

Gaur, egubakoitza, hasiko dira
Aramaioko jai nagusiak | 25



Ehunka lagun elkartuko dira
San Martzialen, Bergaran | 16



Elgetako jaiek segida eta amaiera
izango dute asteburuan | 27

Irizar, munduko onenen artean lehian

Bihar, zapatua, hasiko du hirugarren Tourra
Oñatiko ziklistak, Ingalaterran | 28



Markel Irizar,
Aramaiora bidean,
herrira iritsi baino apur
bat lehenago.

ARITZ GORDO

Fagorrenгатik jasotako eskaintza guztiak lerro beroarengatik izan dira

Malagon epaileari aurkeztutako
eskaintza batek berak ere ez du
erakutsi interesik hozkailuen
negoziorengatik. Bestalde, guz-
tiek jarri dute baldintza moduan
Fagor marka erabili ahal izatea.
Orain markaren royaltien prezioa
negoziatu beharko da. | 4

SINADURAK



AGURNE JULDAIN | 8

LARRAITZEBERIO | 8



MIKEL IRIZAR | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 |
ELKARRIZKETA 7 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

konbinatu

GRADUATUAK
+
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* koñtsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Opor eta eguzki gose, hondartza da uda pasatzeko aukera nagusia

- ▶ Eskaintza onenak lortzeko denboraz ibili behar da
- ▶ Zirkulazio operazio berezia abian da hilaren 27tik
- ▶ Bertan geldituz gero, zabala da eskaintza turistikoa

IRATI GOITIA | ARRASATE

Kroazia, Kanariar Uharteak, Lekeitio... Nora joan oporretan? Batzuek erabakita izango dute dagoeneko. Beste batzuek, berriz, azken unera arte itxarongo dute euren hautua egiteko. Bada, oporraldia antolatzeko aukerak hainbat dira; adibidez: bidaiaria agentzietara edo gazte bulegoetara joatea edo Internetez egitea.

Hondartza gosez

Debagoieneko asko eta asko kostaldera joango dira. "Familiak, batez ere, Kanariar edo Balear uharteetara edo kostaldera joaten dira", adierazi du Marijo Alutizek, Arrasateko Eroski Bidaietako bulegoko arduradunak. Hala ere, denetarik dagoela zehaztu du: Kroazia, Errumania, Grezia, Maia Erribera... "Bidaia luzeak gelditu egin dira. Egun, gehiago egiten dira distantzia ertainekoak: irletara edo itsasaldera. Edo bestela, Europara", esan du Alaine Arruabarrenak, Bergarako Barcelo agentziako langileak.

Egungo aukera zabalagoa dela ere badiote biek ala biek. "Hel-muga berri gehiago sortzen dabilta; adibidez, Uzbekistan ere

badugu. Errumania lehen ez zen horrenbeste saltzen eta orain modan dago. Lehen zegoen *sota, caballo, rey*, eta orain, oso aukera zabala dugu", dio Alutizek. Hala ere, gehienek hondartza ingurura joan nahi izaten dute udan. "Hondartza tokiek indar handia dute oraindik eta askok eskatzen duten zerbait da, baina askok bilatzen dute baita konbinazioa ere. Hau da, egun batzuetan turismo pixka bat egitea eta beste egun batzuetan hondartzara joatea. Aukera bikoitz hori eskaintzen dute, adibidez, Turkiak, Kroaziak, Siziliak eta Sardinia. Azken hori, gainera, aurten asko ugartu den eskaera da", gehitu du Arruabarrenak.

Eskaintzak hartzeko, aurretiaz

Eta noiz komeni da erreserbak egiten hastea? "Kanariar Uharteetara joaterako orduan oso garrantzitsua izan ohi da familientzat umeen plazak dohainik lortzea, eta horretarako denborarekin ibili behar da. Lehen erreserbak egiten dituztenak sarritzen dituzte prezio onenekin, deskontu handienekin edo umeak doaneko eskaintzekin, adibidez.

Etxean arazoak saihesteko

- ▶ Etxea garbi utzi, intsektu, parasito eta karraskaririk ez sartzeko.
- ▶ Ihesak saihesteko, itxi ur, gas eta bestelako energia irteerak.
- ▶ Elektrizitatea moztu (hozkailea eta frigorifikoa hustu). Bestela, deskonektatu aparailu elektronikoak.
- ▶ Etxeko leiho eta terraza guztiak itxi.
- ▶ Ez utzi dirurik metalikoan, txartelik, bitxirik edo artikuluko baliozuri etxean.
- ▶ Balio handiko objektuen erreferentzia zenbakia apuntatu (ordenagailua, audio eta bideo aparailuak...). Baliagarria izango da lapurreten kasuan, berreskuratzeko.
- ▶ Konfiantzako norbaiti erregulartasunez etxea bisita dezan eskatu.

ITURRIA: CONSUMER.ES



Kanariar Uharteetako hondartza batean eguzkia hartzen. | WWW.ELECONOMISTA.ES



Sardiniako Santa Teresa de Gallura herria. | WWW.LASARDEGNA.ES

Azken unera arte itxaroten baduzu, ez duzu horrelakorik lortuko", zehaztu du Alutizek. Hala, udan zer egin nahi duten argi dutenak garaiz ibiltzen direla gaineratu du. Otsailean joan omen zitzaizkien lehen bezeroak udako oporrez galdezka. Hala izan da Bergarako Barcelon ere. Eta Arruabarrena ildo beretik mintzatu da: "Gauzak oso garbi dituztenak otsailean etortzen dira. Izan ere, hegazkina hartu behar badute, adibidez, zenbat eta lehenago erosi, orduan eta merkeagoak izaten dira txartelak, normalean. Gainera, urteak dira aurretiazko erosketak sarritzen hasi zirela". Beraz, azken uneko eskaintza gero eta gutxiago daudela argi utzi dute. "Orain ez da lehen bezala. Lehen, akaso, azken unera arte itxaroten zenuen, baina orain eskaintzak aldeztu aurretik egiten dituzte. Gerta daiteke kasualitatez bi plaza geratu izana eta horiek eskaintzea azken unean, baina horiek lortzea oso zaila izaten da", dio Alutizek. Bestalde, azken orduan dabilzanak ezin direla exijentziakin ibili ere badiu Arruabarrenak: "Ezin dute eskatu, adibidez, abuz-

tuaren 8an Lanzarotera joan nahi dutela. Jarrera zabalarekin etorri behar dute: irteera izan daiteke egun batean edo bestean, astebeteko egonaldia edo lau eguneko, edo dagoen hotelaz konformatu behar dute". Beraz, gomendioa da denboraz ibiltzea.

Bestelako iturri eta oporrak

Bidaia agentzietan gain, badira oporrak planifikatzeko beste bide batzuk ere. Internet edo bidaiar liburuak izan ohi dira informazio iturri handia. Horretaz gain, Gazte Bulegoetan ere ematen dute laguntza. Arrasateko Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek honako webgune hauek aholkatzen ditu bidaia planifikatzeko: www.mochileros.org, www.viajeros.com eta www.cuentatuviaje.net. Bulegoan bertan ere badute informazio ugari. [Ikus goiko elkarrizketa].

Bestalde, egonaldian aurretik nahi dutenendako aukerak izan daitezke besteren etxeetan lo egitea (www.couchsurfing.org) edo etxea trukatzeko (www.intercambiocasas.com). Eta esperientzia berri baten bila dabilzantzat, gobernuz kanpoko erakun-

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA
Uztailaren 9etik 16ra.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Orduetgia
08:00etatik 14:30etara
15:30etatik 18:30etara

www.imaltuna.com
imaltuna@saremail.com

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
Erdi eta Goi Mailako zikloak, lanerako formazioa, ikasturteko egutegia, mapa, lan pottsua, proiektuak... eskura.

Eskuragarri ere:
Google Play | App Store

http://m.imaltuna.com

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA
Uztailaren 9etik 16ra.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Orduetgia
08:00etatik 14:30etara
15:30etatik 18:30etara

www.imaltuna.com
imaltuna@saremail.com

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
Erdi eta Goi Mailako zikloak, lanerako formazioa, ikasturteko egutegia, mapa, lan pottsua, proiektuak... eskura.

Eskuragarri ere:
Google Play | App Store

http://m.imaltuna.com



Turkian, Kapadozian, globoak hegan. | WWW.ABIMVIAJES.COM



Lekeitioko erdigunea.

DORLETA KORTAZAR | ARRASATEKO GAZTE BULEGOA

"Ematen dugun gomendio nagusia da segururen bat ateratzea; adibidez, Europako Osasun Txartela"

Gazte bulegoetan udako oporraldia antolatzeko laguntza eta aholkuak eskaintzen dituzte.

Zer motatako informazioa eskaintzen duzue?

Hemen bidaiatzea bat dugu. Urtero eskatzen dugu toki ezberdinetako informazio turistiko, eta bidaltzen dizkigute foiletoak, mapak, ostatuengidak... Egia da egun Interneten informazio asko dagoela, baina oraindik orain jendearentzat lagungarri izaten da paperformatuan izatea mapak edo ibilbide ezberdinak, adibidez. Interneteko helbide interesgarrien erreferentzia ere ematen dugu.

Zeintzuk izan ohi dira ematen dituzuen gomendio nagusiak?

Nagusia izaten da segururen bat ateratzea. Adibidez, Europako Osasun Txartela Europan bidaiatu behar baldin badugu. Oso praktikoa eta komenigarria delako zerbait ger-

tatzen denean. Osakidetzako txartela daukan edonork atera dezake eta beharrezkoa da Europan osasun zerbitzu bat erabili gura baldin badugu. Gizarte Segurantzako bulegoetan oso erraz egiten da. Aurretik eginda baldin badaukagu, *on line* eskatu behar dugu. Momentuan egiten den tramitea da, eta doakoa. Beste aukera bat Gazte Txartela da; izan ere, bidaiaria aseguru du txertatuta. Horretaz gain, aholkatzen dugu oso toki turistikoetara baldin badoaz, lehen egunetarako ostatua hartuta izatea. Bestalde, interesgarria izaten da bidaiarien blog ezberdinetara sartzeari euren esperientziak ikusteko. Hein batean, informazio hori praktikotasunean oinarrituta dago, gida ofizialeetatik kanpo.

Badaude beste txartel batzuk ere: aterpetxe, irakasle edo irakasle txartela, adibidez.



I.G.

Bai; txartel horiek hemen bulegoan bertan egiten ditugu. Aterpetxe txartelak mundu mailako *Youth Hostel International* sareko aterpetxeetan lo egiteko aukera ematen digu eta hemen egin daiteke. Horretaz gain, ikasle edo irakasle txartelak ere bertan egiten ditugu. Momentuan egiten dira eta udara begira norbaitek atera nahi badu hauetako txartel bat, gure zerbitzuetatik pasatu eta momentuan egingo dugu. Aterpetxe txartelak bost euro balio du 30 urte artekoentzat eta 11 euro helduagoentzat. Ikasle txartelak sei euro balio du eta irakaslearenak, zortzi euro. Aukera dago bulegoan bertan bankuko txartelarekin ordaintzeko. Beraz, etorritakoan eskaera egin, ordaindu eta txartela momentuan jasoko lukete interesatuek.

Istripuak Stop elkarteak gidariei ematen dizkien gomendioak

Istripuak Stop elkarteak martxan jarritako *Joan, itzuli eta bizi* kanpainaren baitan, hamar aholku eman dizkie gidariei.

1. Ibilgailua, pneumatikoak, argiak, eta abar berrikusi.
2. Bidaiari guztiek eraman behar dute gerrikoa, buru-eskuarria ondo jarrita, eta motorrean badoaz, burua ondo babestuta kaskoarekin.
3. Deskantsatuta gidatu, prisa barik, garrantzitsuena heltzea da-eta.
4. Seinaleak errespetatu eta beti mantendu segurtasun tartea.
5. Abiadura kontrolatu eta jaitsi zorua bustita badago.
6. Arreta handiagoarekin gidatu bigarren mailako errepideetan.
7. Hartu atseden bi orduan behin edo 100 kilometroan behin. Kontuz medikamentuekin, nekearekin eta distrakzioekin.
8. Ez kontsumitu alkoholik eta ez egin jatordu ugari.
9. Arriskuarekiko kontzientzia izan. Zuhurtziarekin, zirkulazioan elkarrekin bizi gaitzeko.
10. Errespetatu itzazu arauak, errespetatu zaitzaten.

deek opor solidarioak eskaintzen dituzte. Adibidez, Arrasateko Harreman-ek Afrikable-ren bitartez. Hein batean, asko eta asko dira oporraldia era batera edo bestera igarotzeko aukerak.

Irteera operazioa

Ugari dira baita bidaiatzeko moduak ere: hegazkinez, trenaz, autoz... Hain zuzen, errepideetan izaten den dentsitatea kontrolatzeko zirkulazio operazio berezia jartzen da martxan. Zehazki, ekainaren 27an hasi zen eta irailaren hasieran amaituko da. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren estimazioen arabera, udako operazioan 3.300.000 ibilgailuk zeharkatuko dute EAE-tokiko joan-etorriak barne. Aurreikuspenen arabera, nazioarteko zirkulazioa 1.675.000 ibilgailukoa izatera hel daiteke. "Aste Santuak balio izan zuen espero daitekeen zirkulazio-intentsitatea neurtzeko. Horrenbestez, iaz baino zirkulazio handiagoa jasango dugulakoan gaude. Albiste ona da, baina egoera hori izanik, erne egon behar dugu: arduraz jokatu eta zuhurtziaz gidatu", adierazi zuen Trafikoko zuzendari Garbiñe Saezek

udako operazio bereziaren aurkezpenean. Eta gaineratu: "Goatzeko, funtsezkoa dugu autoa hartzean zuhurtziaz eta pazientziaz gidatzea". Uztailako azken asteburuan eta abuztuko lehenengoan pilotuko omen dira ibilgailu mugimendu gehienak. Zehazki, auto gehien irtengo den asteburua abuztuko lehena izango dela aurreikusten da, 1etik 3ra artekoa.

Bestalde, Istripuak Stop elkarteak *Joan, itzuli eta bizi* izeneko kanpaina jarri du martxan, gidariak kontzientziaz helburuarekin. Joan den asteburuan gauzatu zuten kanpaina EAEko hainbat gasolindegitan eta gidariei

DATUA

3.300.000

IBILGAILU

Horixe da euskal errepideak zeharkatuko dituzten ibilgailuen kopurua. Tokiko joan-etorriez gain, 1.675.000 autokoa izango da nazioarteko zirkulazioa.

hamar aholku eskaini zizkieten. [Ikus ezkerreko taula]

Bertako altxorra

Eskaintza turistikoaz goatzeko, baina, ez dago urruti joan beharrik. Izan ere, Debagoienean geldituta ere, badira disfrutatzen auzerak. Bergaran bisita gidatuak egongo dira herriko monumentuak eta San Pedro parrokia ikusteko. Elgetan, Intxortako ibilbide tematikoa egiteko aukera egongo da. Eskoriatzan, Ibarraundi museoa irekita egongo da. Leintz Gatzagan, gatz museoa, Erdi Aroko gunea eta Dorletako santutegia ezagutzeko eta mendi ibilbide gidatuak egiteko aukera eskainiko da. Oñatin, Sancti Spiritus unibertsitatearen eta San Migel parrokiaren gaineko azalpenak emango dituzte bisita gidatuetan, Arrikruz kobetan barnerratzeko aukera egongo da, Arantzazuko santutegian bisitak eta Arantzazuko parketxeko eskaintza disfrutatu ahal izango da.

Beraz, hemen edo han, badira goatzeko hainbat aukera. Norberak gustuko den duena aukeratu beharko du.

**JOSE ANTONIO
ESPINOSA**
ARRASATE



"Salamanca goaz. Nire emaztearen gurasoak hangok dira, eta hara goaz. Lehen, Andaluziara joaten ginen, baina orain, Salamanca. Hamabost egun egingo ditugu abuztuan. Tokatzen dena eta ahal dena".

**MANOLI
CRUZ**
ARRASATE



"Seguruenez, joango gara, baina oraindik ez dugu dena erabakita. Hala ere, badugu nora joango garen ideia: Madrilera, alabaren etxera. 15 egunerako edo gehiagorako joango gara. Udan beti joan ohi gara norabait".

**JOSE RAMON
BELASTEGI**
ARRASATE



"Lekeitiara joango gara. 40 urte baino gehiago dira hara joaten garela. Gero, abuztuan, Oviedora goaz. Kasu horretan, koinatuak antolatzen du guztia; beraz, guk ordaindu eta disfrutatu besterik ez dugu egin behar".

**MARIA
REYES**
ARRASATE



"Asturiasera goaz. Zilarrezko ezteiak ditugu 9an, eta, urrun joanez gero, gaizki ibiliko ginateke itzultzeko. Bestalde, ezin dut eguzkirik hartu eta gauzak ikusteko aukera ematen du. Joan den astean hartu genuen".

**PATROCINIO
ANGUAS**
ARRASATE



"Aurten Extremadurara goaz; ni han jaio nintzen. Aitaitaren etxea dugu han eta bertan emango ditugu abuztuko egun batzuk. Baliabide askorik ez dugunez, merkeen irteten den tokira joan behar...".



Fagorrek Garagartzan duen produkzioak erakarri ditu eskaintza gehien; argazkian, fabrika, atzetik. | JAGOBA DOMINGO

Fagorrengatik jasotako eskaintza guztiak lerro beroarekin lotutakoak dira

- Fagor marka erabiltzea eskatu dute baldintza ezinbesteko moduan
- Epaileak zazpi-hamar eguneko epea emango du, proposamenak hobetzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Fagor Etxetresnen negozioak erosteko proposamenak jasota, orain, onenak aukeratu eta horiei beste zazpi-hamar eguneko epea emango die konkurtso epaileak, eskaintzak hobetzeko.

Bigarren epe hori bukatu ostean, azken eskaintza onenen

artean aukeratuko du Pedro Malagonek zeinek edo zeintzuek eskuratuko duten Fagor Etxetresnen negozioa osorik, edo negozio-lerro jakinen bat.

Eskaintzak lerro beroarengatik

Izan ere, horixe da Fagorrengatik abiarazitako konkurtso proze-

suaren gakoetako bat: jasotako eskaintzetatik batek berak ez duela hozkailuen negozioarekiko interesik erakutsi (Fagor San Andres). Interes guztiak dira lerro beroarekin lotutako negozioak eskuratzeko (Debagoiengan Fagor Garagartzako egosketa negozioa eta Eskoriatzako lapi-

koen negozioa eta Basaurin dagoen Edesaren fabrika).

Bigarren gako da eskatzaile guztiek baldintza moduan jarri dutela Fagor marka erabili ahal izatea. Hori egin ahal izateko royaltiak ordaindu beharko dira, eta horien prezioa Fagor Taldearekin negoziatu beharko da.

Besteren konturako langileak

Hori bai, markaren erabileraren negoziazio horretan, beste baldintza bat ere negoziatu eta onartu dute. Kasu horretan, sindikatuen bitartez egin da hori. Eta baldintza da Fagor Etxetresnen negozioa eskuratu duen enpresa berriak kontratatu behar dituen langileen %50ek besteren konturako langileak izan behar dutela, gutxienez 150; eta gainerako %50ak izango direla bazkideak.

Sei eskaintza

Oraingo, baina, epaileak ez du jakinarazi modu ofizialean zenbat eskaintza jaso dituen. Albiste hau idaztean (atzo, eguna) oraindik ere jakinarazpena egin gabe zuten. Edozelan ere, laster batean egitekotan direla jakinarazi diote Goienari Fagorreko iturriek.

Kontuak kontu, Goienak jakin izan duenez, estatuko zein nazioarteko enpresek jarri dituzte Pedro Malagon konkurtso epailearen mahai gainean eskaintza ekonomikoak; honako hauek: Cevital (Aljeria), Cata-CNA (Katalunia), Amica Wronky (Polonia), Taurus (Katalunia), Ecomac (Txile) eta Ariston Thermo (Italia).

Formula matematiko batekin

Bada, horietako onenei eskaintzak hobetzeko epea eman eta hori bukatuta, Malagon epaileak onetsitako likidazio planean zehaztuta dauden formula matematiko eta lehentasun batzuen arabera hartuko da azken erabakia.

Honako hauek dira lehentasunok: eskaintza orokorra egiten duena (globala); negozio unitateen arabeko eskaintzak (konfort, linea zuria eta etxetresna txikiak); diru gehien eskaintzen duen proposamena hartuko dute aintzat ondoren, Espainiako konkurtso legeak esaten duena delako lehengo zordunak ase behar direla. Gero, lanpostu gehien bermatzen dituen baloratuko dute.

Bada, lehentasun horiek guztiak kontuan hartuta eta likidazio planean zehaztutako formula matematiko (polinomiko) bat erabilita (prozesuaren objektotasuna bermatzeko) hartuko du epaileak azken erabakia.

Hilabete gehiago, zabaltzeko

Ezusteak ezean, uztaila amaiera irits daiteke Fagor Etxetresnak zeinek eskuratu duen jakiterako. Eta behin hori eginda, beste prozesu bat zabalduko da, kasu horretan negozioa berrabiarazteko prozesua.

Hori gauzatzeko ere hilabete batzuk pasa beharko dira. Izan ere, langileak kontratatuzko prozesua abiarazi beharko dute. Abuztua inaktibo samarra izaten da. Beraz, pentsatzekoa da irailean hasiko direla aukeraketa prozesuarekin eta horrek ere denbora beharko du.

Horren ostean edo horrekin batera, geldirik egon diren fabrikak eta makinak martxan jarri beharko dituzte ugazaba berriek.

Eta azkenik, oso garrantzitsua da hornitzaile kontua. Hau da, fabrikatu behar den produktua fabrikatzeko osagaiak beharko ditu ugazaba berak; batzuk egongo dira, baina beste batzuk ez. Horiek enkargatu, eta hornitzaileak fabrikatzeko denbora behar dela kontuan hartuta urte bukarrera erraz iritsiko da lanean berriro ere hasterako.

Hobera egin du eraso jasan zuen aretxabaletarrak

Ustezko erasotzailea, eraso jasan duenaren 25 urteko iloba, kartzelara bidali du epaileak

U.M. | ARETXABALETA

Hobera egin arren, Gasteizko Santiago ospitaleko zainketa intentsiboetan segitzen du J.L.A. 69 urteko gizon aretxabaletarrak. Han ingresatu zuten domeka goizaldean, ustez bere ilobak larriki zauritu ondoren.

Ilobari dagokionez, berriz, Martuteneko kartzelan dago oraingo asteko eguaztenaz geroztik. Homizidio saiakera leporatuta sartu dute kartzelan, Segurtasun Sailak aditzera emandakoaren arabera.

Etxe berean

Domeka goizaldean, 05:00 inguruan, gertatu zen eraso, Ertzaintzak esan duenez. Gizonezko bati eraso egin zion ustez haren ilobak, etxean bertan, eta zauri larriak eragin. Ustezko eraso-

tzailea atarte berean bizi da, azpiko solairuan, eta Ertzaintzak jakinarazi du balkoitik igo zela osabaren etxera eta leihoko kristala hautsita sartu barrura. Metalezko objektu batekin jo zuen orduan buruan. Hark alde egin zuenean zaurituak berak dei egin zuen Larrialdietara, eta polizia iritsitakoan Santiago Ospitalera bideratu zuten.

Bi etxebizitzak miatu zituzten ondoren, eta ustez eraso egin duenaren etxean topatu zuten odol arrastoak zituen metalezko haga. Bitartean susmagarriaren bila hasi, eta domekan, 11:00 aldera Urkulu urtegi inguruan haren jabetzako 4x4 ibilgailua topatu zuten iraulita. Egun osoan ustezko erasotzailearen bila jardun ondoren, gauerdian atxilotu zuten.



Beira birziklatzeko edukiontzi berdea, Aretxabaletan. | GOIENA

Beiraren birziklatze maila, Euskadiko handiena

Debagoieneko Mankomunitateak eta Ecovidriok 40 edukiontzi gehiago jarriko dituzte eskualdean

JON BEREZIBAR | DEBAGOIENA

Bizkaiko eta Arabako batez bestekoaren gainetik dago Debagoiena, eta, hala, beiraren birziklatze maila areagotzeko, artean ere, erraztasun handiagoa eman gura die Debagoieneko Mankomuni-

tateak herritarrei edukiontzi gehiago jarrita.

Hain justu ere, beira birziklatzeko beste 40 edukiontzi ipiniko dituzte, hondakinak biltzeko sistema berriek ekarritako beharrak bultzatuta.

1a 34 kilo ontzi

Datutan begiratuta, 2013an biztanleko 33,6 kilo ontzi birziklatu zen Debagoiengan – guztira, tona bitik gora –, eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa 25 kilo da.

Datu gehiago: gaur egun Debagoiengan 238 biztanleko edukiontzi bat dago. Guztiak batuta, 263 edukiontzi daude, eta, esandako moduan, halako beste 40 ipiniko dituzte.

Beira bakarrik

Gehikuntza hori Estatu osoan beirazko ontzien birziklatzea kudeatzen duen Ecovidrio irabazirik gabeko elkartearekin batera bideratuko du Debagoieneko Mankomunitateak. Gogorarazi dutenez, jasotzen den beiraren %100 birziklatzen da, baina, era berean, azpimarratu dute edukiontzi berdeetara soilik beira botatzea dela garrantzitsua, eta ez bestelako materiala: zeramika, platerak eta kristala, adibidez. Hala, 3.000 botila birziklatuta, tona bat gutxiago joaten da zaborregietara eta airearen kutsadura %20 murrizten da, emandako datuen arabera.



(B) Diru (B)eltza,
etorkizun (B)eltza

“A” gizartea
lortzeko

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



 **Gipuzkoa**
BERRIA

%20-%30ekin hasi dira beherapenak Debagoienez

- ▶ Udako Merkemerka eta Ixadebalde irailean dira
- ▶ Oraindik kanpoan eta Interneten erosten da asko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Oraingo martitzenean hasi eta irailaren 30ean bukatuko dira udako beherapenak ofizialki. Eta Debagoienez ere bat egin dute udaberri-udako eskaintzak egite-rakoan, datak errespetatzen.

Dena den, badira aurreratzen direnak ere; batzuk agerian, deskontuak iragarrita, Aretxabaletan moduan: "Ekaineko azken hamabost egunak trankiltxoagoak izanik, sarri ipintzen da eskaintzaren bat. Herrian ikusi dira %20rainoko edo %30erainoko kartelak. Baina gutxienak dira", kontatu du Aretxarte dendarien elkarteko Idoia Elexpuru presidentea.

Beste batzuek, berriz, gordeago egiten dute hori, eskaintzak bezero jakinei zuzenduta, Oñatin moduan. "Egia da saltoki batzuek euren bezeroekin detaile edo deskontu bereziak izan dituztela aurretik. Eta jantzi zehatz batzuekin lotutako deskontuak ere izan dira", dio Txanda elkarteko Juan Carlos Aranburu presidentea.

Poliki hasi, indartsu segi

Kasuak kasu, saltoki gehienek asteen iragarri dituzte beherapenenak, eta deskontu maila antzerakoa aukeratu hasteko: "Gehienak %30ekin hasi dira, eta aurrerago %40era eta %50era artekoak izaten dira", zehaztu du Aretxarteko ordezkariak.

"Hondarrak geratu ahala handitzen doaz beherapenak. Norberak ikusi behar ditu saltokitik atera gura dituen produktuaren ezaugarriak, eta, horien arabera, batzuetan beherapenak agresiboagoak dira. Hala ere, %20ekin edo hasi dira gehienak", dio Arrasateko Ibai Arte merkatarien elkarteko Angel Alonsok.

Bergaran, asteburuan aukera

Bergaran, berriz, gaur (barikua) eta bihar gura diete eman bultzada beherapenei. *Ibili, aurkitu eta gozatu* leloarekin, Bedelkar dendari elkarteko saltokiek kalera



Herritar bat erakusleihoko eskaintzak ikusten, Arrasaten. | UBANE MADERA

Bergaran eskaintza bereziak egingo dituzte asteburuan

Debagoienez prezio eta produktu onak daudela ekarri dute gogora

aterako dituzte eskaintzak, eta, gainera, alfonbra gorriekin egingo diete ongiatorria bezeroei. "Denda ordutegian izango da, baina libre; hau da, eguerdian luzaroago jarraitu nahi duenak, ahal du. Saltzailea ahaleginduko da ohikoetatik apartekoak ere ateratzen. Norberak erabakiko du ze atera, zenbaterainoko deskontua...", kontatu du Bibi Anduezak, Bedelkarko presidentea.

Gainontzean, irailean egingo dituzte estilo horretako beste bi azoka. Handienak, Arrasateko

Merkemerkauek, ez du data zehaztua, baina irailean izango da. Aretxabaletako Ixadebaldek, berriz, bai: irailaren 13a. Oñatin, berriz, dendari elkartekoek nahiago dute urtean bakarra egin, otsailean; eta Eskoriatzako Axtroki elkartekoek ekaineko azoka aprobetxatuta atera zituzten bonuak.

Itxaropentsu, baina krisia...

Bien bitartean, itxaropentsu daude dendariak beherapenekin. "Ilusionatuta. Uste dugu onak izango direla", dio Ibai Arteko kideak.

Bergaran ere positibo samar dabilta: "Iazkoarekin alderatuta eguraldi hobea izan lagundu du; okerrago, behintzat, ez dabil izaten. Edozelan ere, uda bukatu arte ezin da seguru jakin. Baina jeneralean ez da ikusten jaitsiera handirik", dio Anduezak.

Hori bai, erosteko modua aldatu egin dela aitortu du, adibidez, Aranburu oñatiarrak. Eta hori krisiaren ondoren ikusi dutela dio: "Lehen, gutxiago begiratzen zen, eta kapritxoak errazago erosi. Orain ikusten da ez dagoela poz hori, eta, akaso, osagarri bat erosten da lehenagotik erabiltzen den jantzi hori erabiltzen segitzeko. Ezin delako, lanpostuak ez direlako horren seguruak, gastu asko daudelako. Adibidez, gazteek ez dute opor barik geratu nahi, edo hipoteka dago ordaintzeko, Fagorrek kontuak eragin handia izan du... Igartzen da, bai".

Bertan ikusi eta erosi

Bestalde, Debagoienez dendari elkarte guztiek bat egiten dute mezu batekin: bertan erosi.

"Asteburuan Gasteiz eta hiriburuak hor daudela badakigu; baina astean egin dezatela begiratu bat herriko komertzioetan. Aukerak nonahi daude, herrian ere bai. Askotan, sartu egin behar dugu, ikusi, konprobatu", eskatu du Elexpuru aretxabaletarrak.

"Larregi mugitzeke herrian aurkitzen dira produktuak eta prezio onak. Baina ohitura handia dago kanpora joateko, Interneten begiratzeko... zaila da hori aldatzea. Hala ere, jendeak konparatzeko ahalegina eginez gero, sarri aurkituko du nahi duen prezioa eta produktua bertan", adierazi du Bedelkarko ordezkariak.

"Gazteak 15-16 urterekin hasten dira Gasteizera joaten. Zaila da hori aldatzea. Batez ere, egun-pasa joaten direlako, eta gero beti erosten da zerbait", dio Axtrokiko kide Nati Larrañagak.

"Arrasateko eskaintza oso handia da; gure ustez, dudu barik, Debagoienezko zabalena. Guk esaten dugu 'hemen aurkitzen ez dena ere da existitzen'. Hori bai, zerbait oso eksklusiboa gura izanez gero, gerta liteke hemen ez egotea. Baina saltoki gehienak kontsolidatuta gaude", borobildu du Alonso arrasatearrak.

EKAren erosketa aholkuak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



Atzera ere jaitsi egin da langabe kopurua Debagoienez

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA
Hirugarren hilabetez jarraian langabezia tasa txikitu egin da Debagoienez. Eta gainera, Euskadiko batez bestekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du: ekainaren bukaeran, %12,07, denetara 3.597 langabe. Aurreko hilabetearekin alderatuta, maiatzean baino 127 gutxiago. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak aste honetan emandako datuak dira horiek.

Elgeta da salbuespena

Herririk herri, Elgetan izan ezik, beste herri guztietan murriztu da langabezia. Jaitsierarik nabarmenena, berriz, Eskoriatzan gertatu da.

Honako hauek dira herriz herriko datuak:

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	95	%8,71
Aretxabaleta	330	%9,76
Arrasate	1.583	%15,28
Bergara	854	%12,18
Elgeta	48	%8,86
Eskoriatza	236	%11,59
Leintz Gatzaga	7	%5,19
Oñati	444	%8,46
GUZTIRA	3.597	%12,07

ITURRIA: ESPAINIako ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK

Esklerosi anizkoitzari aurre egiteko, 'Busti zaitetz', Arrasaten

Etzi, domeka, Arrasateko Musakola auzoko igerilekuan hitzordua egin dute esklerosi anizkoitzari aurre egiten lagundu gura dutenendako. Ohi denez, bertako igerilekuan busti edo igeri eginez laguntzen da, egun osoan. Oñatin, berriz, material salmenta eta informazio stand-a jarriko dute Foruen plazan.

Elizalde igerilekuak ireki ditugu

Ordutegia: 11:00 - 20:30



Elorriko udala

BPXport
kirol zerbitzuak
www.bpxport.es



Argazkia: Iñigo Agirre

PREZIOAK

1. Orokorrak	
Familia *	100 €
Familia ugaria *	90 €
Titular jubilatuaren familia *	90 €
Guraso bakarreko familia *	90 €
Banakakoa	65 €
Banakakoa 65 urtetik gora	60 €

2. Udal kiroldegiko abonua integrala	
Familia *	80 €
Familia ugaria *	70 €
Titular jubilatuaren familia *	70 €
Guraso bakarreko familia *	70 €
Banakakoa	50 €
Banakakoa 65 urtetik gora	45 €
* Seme-alabak 18 urte bitartekoak	

Leihatila

18 urtetik gora	6 €
3-18 urte eta 65 urtetik gora	4 €
3 urte bitartekoak	2 €
6 hilabete bitartekoak	Doan

Inskripzioak: Kiroldegian.
946 821 027. elorrio@bpxport.es

Oscar Rodriguez Vaz | Politologoa, PSE-EEko kidea

"Hautagai guztiek aukera berberak izan beharko lituzkete, eta hori ez da hala izan"

- ▶ Eduardo Madina da PSO Eko idazkari nagusi izateko Oscar Rodriguez Vazen hautagaia
- ▶ "Militanteen boto zuzena eskatu zuenean, aurrerapauso handia egin zuen Madinak"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Eusko Legebiltzarreko talde sozialistaren idazkaria izan zen aurreko legealdian, baina, besteak beste, Arabako PSE-EEren korrante kritikoa alienatu izanak politikatik kanpo utzi zuen Oscar Rodriguez (Arrasate, 38 urte). Gaur egun, iritzi emaile eta enpresa munduan dihardu. PSO Eren egoera eta erronkei buruz dihardu. **Legebiltzarkide izan zinen, talde sozialistaren idazkari ere bai, aurreko legealdian. Gaur egun, erabat kanpo zaude politikatik eta alderdi sozialistatik?**

Alderdi sozialistaren txartela daukat, militantea naiz, baina, hortik aparte, hiritar arrunta naiz, ez daukat bestelako lotura organikorik alderdiarekin.

Arabako sozialisten sektore kritikoko kide zara eta Rubalcabaren eta Lopezen dimisioa eskatu zenuen Europako hauteskunde emaitza kaskarren ostean. Horiek badoazela esan dute. Txarli Prieto Arabako sozialisten idazkari nagusiak ere utzi beharko luke?

Inor ez da joan oraindik. Dimisioak iragarri dituzte, baina Rubalcabak dimititu izan balu, esaterako, haren ordezkoa aukeratzeko prozesua eta kongresua antolatzen gestora bat egongo litzateke une honetan. Baina ez da horrela. Kongresua antolatzen Rubalcabaren taldea ari da eta, jakina, hautagai baten alde lanean ari dira. Euskadin eta Araban berdin. Dimisioak diferentia izan dira. Hala ere, argitu behar dut ni ez naizela sektore kritikokoa eta PSE-EEen ez dagoela sektore edo korrante kritikorik. Duela hiru urte ideia batzuk defenditu genituen eta gaur egun ere ideia horiei eusten diegu alderdikide batzuek. Nire ustez, antolakunde baten militante guztiek izan beharko lukete kritikoa.

Zeinen alde egin du alderdiko aparatua?

Pedro Sanchezen alde. Madrilgo, Andaluziako, Gaztela eta Leongo, Kantabriako, Euskadiko... idazkari nagusiek Sanchezen aldeko hautu publikoa egin dute. Hautagai guztiek aukera berberak izan beharko lituzkete, eta hori ez da hala izan. Rubalcabak dimititu behar zuela esan zuen duela hilabete pasa, baina duela gutxi monarkia defendatzen ikusi dugu Diputatuen Kongresuan, Madrilen. **PSO Eko idazkari nagusi izateko zure hautagaia zein da?**

Eduardo Madina. Haren eta Jose Antonio Perez Tapiasen arteko akordioa nahiko nuke, eta, nire ustez, askok nahiko lukete hori.



Oscar Rodriguez, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Madinak irabazteko aukera handiak ditu, hautagai ofiziala ez izan arren. Militanteen bozka zuzena eskatu zuenean, aurrerapauso handia egin zuen Madinak. Inoiz ez da gertatu PSO Eko militante guztiek aukeratzeko idazkari nagusia. Madinak lortu du hori. Eta oso pozgarria da.

"Antolakunde baten militante guztiek izan beharko lukete kritikoa"

"Egiturazko erreformak behar ditugu egungo legedia aldatzeko"

Zergatik Madinaren alde?

Lotura sentimentalak ere badaude tartean. Gazte-gaztetatik ezagutzen dugu elkar, belaunaldi berekoak gara-eta. Baina gehien gustatzen zaidana da haren konpromisoa.

PSO E eta, bereziki, PSE-EEk Euskadin, inoizko emaitzarik txarrenak lortu zituzten azkeneko Europako hauteskundeetan. Zein da horren arrazoi nagusia?

Aspalditik dator. Azken hauteskundeetako emaitzak ez dira isolatuak izan. 2009an 300.000 bozka lortu genituen eta 2012an 100.000 bozka galdu genituen. Azkeneko joera hori izan da, lurralde guztietan, baita Euskadin ere. Horregatik eskatu genuen aspaldi hainbat militante sozialistak aldatu beharra zegoela. Guk ez bagenuen aldatzen, gizarteak aldaraziko gintuela.

Porrotaren ostean, zer?

Porrotaren arrazoiak asko dira eta erronka asko ditugu. Batetik,

krisi sakonean murgilduta gaude. Sozialdemokraziaren funtzioa izan da kapitalismoak sortzen zituen desberdintasunak leuntzea. Baina, une honetan, kapitalismoak porrot egin du eta, ondorioz, sozialdemokraziak ere porrot egin du, bere funtzio historikoak ez dauka zentzurik. Sistema ekonomiko eta

"Hauteskunde ostean badakigula Podemos badea benetako aukera"

"Sinesgarritasunik ez dauka PSO Ek une honetan gizartearen aurrean"

politiko justua lortzea da sozialismoaren erronka nagusia orain. Eta horren arabera, beste hainbat kolektiborekin batera sistema berri bat sortu, hazkunde justua bermatuz. Bestetik, gizartea aldatu da asko, baina azken mende erdian ez ditugu erakunde publikoak, alderdi politikoak... berri. Neurriak jarri behar ditugu egoera berrira egokitzeko. Gardentasun neurri erradikalak bultzatu, baita eztabaida kritikoa ere... Azkenik, neurriak jarri behar ditugu herritarrek beren ordezkari politikoak hobeto kontrolatzeko. Egiturazko erreformak behar ditugu egungo legedia aldatzeko. Ausardia behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko edo Nafarroako sozialisten Ferrazekiko mendekotasunak ez dizue kalterik egin?

Ez dut uste arrazoi erabakigarria izan denik. Kontuan izan duela sei urte eskas oso emaitza onak lortu genituela eta orduan ere mendekotasun bera geneukan PSO Ekiko. Jakina, hori ere aldatu edo berriro daiteke, baina, batez ere, gizartean izan diren aldaketei heltzeko, betiere, gardentasuna eta espirtu kritikoa bultzatuz.

Ze ekarpen egingo lioke Madina euskal sozialistak PSO Eri?

Beste ikuskera bat emango lioke alderdiari. Esaterako, ikusten da azkenaldian asko erradikalizatu dela politika Katalunian edo Euskadin eta Madinak beste ikuskera bat emango lieke errealitate horiei eta espainiar politikari, oro har. Espainiaren askatasuna eta estatu ezberdintasuna ulertzen ditu. Herri berri bat sortuko luke.

Podemos fenomeno zela ulertu behar dugu?

Alderdi sozialistak berandu dihardu. Hori da alderdi sozialistaren arazo, benetako aukera bat eratu dela ezkerrean. Duela hiru hilabete ez genekien Podemos benetako aukera zenik. Orain badakigu. Hortaz, PSO Ek aldaketa nabarmenak egin arren, denbora beharko dugu sinesgarritasuna irabazteko. Une honetan daukagun arazoa da gizarteak ez dituela gure proposamenak aintzat hartzen, ez dituelako entzun nahi. Ez daukagu sinesgarritasunik gizartearen aurrean.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

AGURNE JULDAIN
goiena.net/komunitatea/



Merkealdia

Urtean bitan izaten ditugu merkealdi ofizialak; orain gaude sasoi batean. Uztailetik irailera udako merkealdia izaten dugu. Orain dela urte batzuk horrela zen, baina gaur egun, merkealdia ia urte osoan disfruta dezakegu. Lehen, garai ofiziala zegoen eta horrela errespetatzen ziren datak, baina urte batzuk badira probintzia bakoitzak nahi duenean has eta buka dezakeena merkealdia. Data edo hilabete batzuk errespetatzen dira, baina legea aldatuta erkidego bakoitzak erabaki dezake data ofiziala zein den. Gaur egun kamuflatutako merkealdia dugu, baina merkealdia, azken baten.

Merkealdi hitzari beste gertuko izen batzuk ere jarri dizkiogu: prezio bereziak, eskaintza puntualak... baina helburuak bakarrik izaten jarraitzen du, hasierako balio bat jaitsi jendearen interesa pizteko.

Non gelditzen dira merkealdiko emozioak? Erosketa osasuntsuagoak egiten ditugu? Ala urte osoan erosten gabilta mundu materialean topean sartuta?

Gogoan dut Arrasaten dagoen denda ezagun batean merkealdiko lehen eguneko goizean ilara luzeak izaten zirela egoera notizia bihurtuz! Klean zurrumurrua nabarmentzen zen egun batzuk lehenago egun horren inguruan. Zelako garaia!

Hori guztia galtzen goaz. Zenbait kasutan, merkealdiko grina eta emozioak mantentzen dira, baina dauden eskaintzako webguneak edota edozein komertzioan aurki ditzakegun eguneroko eskaintza bereziak ere baditugu eta honek merkealdiak sortzen zizkigun ilusio eta buruhauste pozgarriak itzali dizkigu.

Erosteke modua ere aldatu da. Lehen, komertziora fisikoki joan beharra genuen, baina gaur egun, dena edota ia dena Internet bidez eros dezakegu, eta merkeago! Giza baliabide gutxiago behar ditugu, eta honetan ere aurrezten gabilta. Nik uste dut oso onak ez diren aldaketetan gabiltzala, aurrezte horietan ez gara konturatzen langabeziaren zenbakia zenbat sendotzen ari garen. Hori bai gizakiarentzat sekulako merkealdia hori!

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Etxean estres handiagoa

Pennsylvaniako unibertsitateko ikertzaileek egindako ikerketa batek ondorioztatzen du estres maila handiagoa dela etxean lantokian baino. Zer iruditzen? Orokorrean, kontrako ideia da nagusi, baina estres egoerei aurre egiteko funtzioa duen kortisol izeneko hormona neurtu diete 122 laguni etxean zein lantokian, eta gorputzak dio lanean estresa txikiagoa dela. Azpimarragarria iruditzen zaidan beste ondorio bat: "Umeek lagundu egiten dute etxean dagoen estres maila txikitzen". Ordainsaria duen zereginak balorazio hobea du, eta ikerlariek diote zorientzuzkoak direla etxetik kanpo ere lan egiten duten pertsonak. Kontuak ematen du zer pentsatua.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Sindikatuaren rola kooperatibetan

Naroa Elortza
ilunkaran.com/

Ez dut orain dela gutxi arte sindikalgintzarekin inongo kontakturik izan, grebetako manifestazioetan soilik. Urrunekoak iruditu zaizkit beti, neure errealitatean lekuz kanpo, nolabait.

Kooperatibak dira neure ingurunea, eredu kooperatiboarengan sinesten dut nik.

Enpresa eredu horretan sindikatuek ez dute kabidariak. Izan ere, langileek (barkideak) badituzte bideak beraien hitza ordezkatu eta aintzakotzat hartzeko. Organoak deritzaie, Kontseilu Errektoretik Batzar Nagusira, Kontseilu Sozialetik pasata. Organo horien bidez bideratzen da lan-barkideen hitza eta botoa. Hainbatetan hitz egin bezala, organo eta mekanismo horiek ez dute beti bermatzen parte-hartzea, bereziki tamaina handiko kooperatibetan. Sarri, ordezkaritza botoa eta iritzia delegatzera mugatzen da, hainbat arrazoi medio erabakietan parte hartzea alde batera utzita. [...]

Hala ere, kooperatibak lan-barkideak baino gehiago dira. Kooperatibetan besteren konturako langileak ere badaude, soldatapekoak. Soldatapekoek (Mondragon-en %20a gehienez) ez dute ordezkaritza organorik. Kontseilu sozialerako hautagaiak izenda ditzakete (barkideen artean), eta zenbait kasutan Batzar Nagusietara ere joan daitezke. Hala ere, botorik ez daukate ebentualek. Ez dute ordezkaritza, langile moduan tresnarik ez dute. Beraz, sindikatuaren rola hortxe kokatzen dut nik kooperatibetan: ebentualen ordezkaritza lanetan, barkideekin lankidetzan. Egungo egoerara eramanda, interesgarria izan liteke birkokapenen aurrean behin-behineko langileentzako tresna izatea sindikatuak.

Aurrezki kutxak jada ez daude gure esku

Pello Zubiria
argia.com/blogak/pello-zubiria/

Edo lehen zeuden pittina baino are gutxiago dauzkagu

eskueran. Boteretsuen agendak nahi izan du Euskal Autonomia Erkidegoak azken urteotan eduki duen lanabes ekonomiko sendoenaren kontrola galtzea, noiz eta hamabost egun lehenago 150.000 herritarrek erabakitze eskubidea aldarrikatatu ostean. Gogor ahalegindu beharko dute jendeek Espainian indartzen ari den berzentralizazio uhinari aurre egiteko. [...] Gazteek hemerroteketan bilatu beharko dute LOAParen esanahia. Prest ote gauden Espainiarekiko autonomia osoz funtzionatzeko? Ez esperio laguntza handirik gaur aurrekontu autonomikoetatik kobratuz "Euskadi da gure Aberria" aldarrikatuta bihar Espainiako oligarkiaren pakebeteetan pilotu izatean batere kontraesanik sentitzen ez duten balizko liderrengandik, banago Jaurilaritzen eta banoo BBVra ondoren aterrizatzeko Kutxabanken, atzo Sabin Etxeako jauna nintzen eta gaur Espainiako energia multinazional gotorrean ari naiz nagusi, goizean Iberian eguerdian Euskaltelen arratsalderako BBKn... Onak gaude gu Espainiatik deskonektatzeko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berria@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Isurketa gehiago Deba ibaian

Josu Garitaonandia

(Equo Bergara) Bergara

Erne! Ibaia kolore arraroarekin edo animaliak hilik ikusiz gero, 112ra deitu, gai horrekin lotuta egin beharrekoak martxan jartzeko. Irailean hiru urte beteko dira Bergaran hondamendi ekologikoa egon zenetik. Lehenengo ahateak eta gero arrainak hilik agertu ziren; arduradunik ez da azaldu, berriz ez gertatzeko neurririk ez da hartu, eta hor gaude, hurrengo isurketa noiz izango den zain. Udari begira lantegietan mantentze-lan gehiago egiten dira, hondakin gehiago sortzen dira eta ibaira isurtzeko tentazioa handia da diru pixka bat aurreratzeagatik.

Azken hilabeteetan ondorengo isurketak egon dira:

-Aurreko Gabonetan, aktibitate industrialik ez zegoenean, Osintxu-Elgoibar tartean arrainak hilik azaldu ziren; ur asko zeraman sasoian zen, eta arduradunik ez da azaldu.

-Oñatin, maiatzaren 15ean, lantegi bateko arduradunak dioenez, formazio falta zuen langile baten hanka-sartzeagatik 30 minutu inguruan ibaira isuri zen depositura bidali beharrean.

-Bergaran, Oxirondo plazan egindako apar festan, festa bukatu zenean, plaza garbitzeko ibaira bota zen aparra, ibaia kolore zuriz zikinduz; nahiz eta kimikoki eraginik ez daukan, ez da etsenplua, denok ibaia zaintzeko kontzientzia hartzen dugun momentu hauetan. Ibaira doazen arketak tapatu behar dira eta kolektorera doan arketara bidali dauden aparrek eta ur zikinak.

Esan bezala, aurtengo egoera okerrera udako hilabeteetan etorriko da; beraz, denok begiak zabalik ibaia zaintzen.

Baztertzen eta diskriminatzen duten ordenantzak

Juan Karlos Garitano

(EAJren Udal Taldea) Arrasate

Arrasaten, auzokonposta eta autokonposta erregulatzen duten ordenantzetan, bonifikazioari dagokion artikulua baztertzailea dela deritzogu:

"Zaborren tasan bonifikazioa izateko eskubidea izango dute etxebizitzetan sortutako materia organiko

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

guztia konpostatzen dutenak. Horrela, ezingo dute hondakinik utzi hondakin organikoen biltze zerbitzuan".

Denok dakigu kalitate oneko konposta lortzeko ez direla animalien jatorriko hondakinak eta sukaldatutakoak erabili behar. Arrasaten, arrazoi honegatik asko dira hondakin begetalak bakarrik erabiltzen dituzten konpost-egileak.

Hori hala izanik, ordenantza hauek konpost hau egiten duten familiak diskriminatzen dituzte, ez baitira bonifikatuak izango.

Udalak, konposta egiterakoan, "denak balio du" bakarrik baloratzen du, horrek dakartzan arazoak penalizatu gabe. Adibidez, hezurrak, grasak, haziak, gazitasuna, arratoiak, eta abar.

Bestetik, analisiaren beharra dute, bai fisikoki, kimikoki eta bakteriologikoki, konpost hori onartzeko.

Aldi berean, ordenantza fiskaletan, EAJren Udal Taldeak bonifikazio honen aurka bozkatu zuen, Arrasateko familia guztiek ez daukatelako bonifikazio hau jasotzeko aukera izateko eskubiderik, eta, beraz, diskriminatzailea delako bere aplikazioa.

Konpostaren praktika bultzatu eta laguntzea beharrezkoa da, baina diskriminatu gabe.

PNV betiko garaietan errotuta

Xabi Elorza Colinas

Oñati

Mikel Iturrospek GOIENAko aurreko asteko iritzi artikuluaren inguruko argiketa batzuk egitteko asmoz idazten dot. Bertan, Josu Erkorekak Oñatiko batzokira egindako bisitaren harira egon zan tartakada zaratatsuaren inguruko komentaixo interesauak egitten dittu Iturrospek.

ETAk armak utzi eta bake eta normalizazio politikua lortzeko prozesua, Ezker Abertzalia iraganera bueltau dala, Josu Erkorekak MUndako eta Arrasateko Eskolarako lortutako milloiak... eta ez dakit zenbat

zarramarra gehixaukin jentia nahastu eta gero, garrantzitsuena komentaittia *ahaztu* xako Iturrosperi: tartakada zaratatsuaren arrazoia.

Egun hartan egin zan protesta AHTren aurkakua zan. Eta PNVia dakunez eraikuntza horren arduradun nagusitzat, eta Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaillia dan heñian, ba, bere bisita aprobetxau gura izan geben *AHTrik Ez!* aldarrikaketako. Nahikua arrazoi dauz zentzugabeko makroproiektu horri ezezkoa emuteko. Erabiliko ez dian biaduktuen eraikuntza, diru publikuaren xahuketa, lan baldintzetako irregulartasunak, argittu gabeko lan istripuak, hormigoi planta irregularrak, ez dau mugikortasun arazoa konponduko. Nortzuk erabili ahal izango daue? Zertarako? Eta abar. Gure desadostasuna aldarrikaketako nahikua arrazoi!

Beste gauza bat. Gure iritzixa emuteko asmoz bertan batu giñanok Frankoren diktaduriakin konparaittia... "¡manda huevos!". Hik dakok paparra! Baiña bueno, ia temia etara dokela, ba, gauza bat esango dostat! Diktadore eta agintari askok historiarako obra faraoniko batekin oroituak izatia gura izaten daue, eta kasu hontan AHT da zuen obra faraonikua. Zuen *Valle de los caídos*.

Komentau gura dotsut tartakada zaratatsua Oñatiko Mugitu AHT Gelditzeko plataformako kidiek antolatua izan zala, eta ez Ezker Abertzaliak.

Jakinarazten dotsut hemen badauela jente bat, alderdixetatik eta alderdikerixetatik kanpo, bere aldarrikapenak plazaraketako kapaza dana, bere iritzixa emunaz eta aktiboki parte hartuaz. Bale!

Olandixoko tunelaren itxierak direla eta

Unai Bergaretxe

Arrasate

Aurreko astean, astelehena, 23, mantentze-lanak zirela eta Olandixoko tunela itxita egon zen hainbat orduz (abisua

emanda zegoen). Baina egun hartan bakarrik ez, hurrengo egunetan ere tarteka norabide bat itxita egon zen sarritan. Nire galdera da, lan hauek ezin daitezke egin gauez? Eta tunela itxi barik ez dago egiterik? Edo norabide batean ixteko premia dagoenean, ezin da tunela bera bi norabideetarako erabili, kanpoan semaforoekin araututa alde bakoitzerako pasatzeko baimena arautuz? (Tunelaren bi aldeetara horrela egiteko nahikoa leku dagoelakoan nago).

Ikusten dudana da tunela bera ixten bada, kamioien garraioa, garraio astuna, herri barrutik bideratzen dugula. Hori, batetik; eta bestetik, txoferrak oso galduta aurkitzen direla tunela ixten denean. Ez dute jakiten nondik joan behar duten, edo ze aukera duten.

Azkenik, Udala plaza eta Bolintxo arteko errepidea peatonalizatzeko dauden asmoak direla eta... komenigarria litzateke tunelaren lanak egin behar direnerako beste era bat pentsatzea, eta dagokion erakundeak gaia lantzea.

Mila esker.

Semi Cup

Ibon Leibar Belastegi

(Bergarako Futbito Elkartea) Bergara

Barruso, Debe, Ugarteburu, Peru, Karlos Lasa (futboliña), Rorro eta Jon komentaristak, Aitzol eta beste pertsona asko eta, bereziki, Josu Diaz: eskerrik asko, futbitokuak izan barik egin dozuen lan guztixagaittik edo lagundu dozuenagaittik.

Eskerrik asko be bai Bergarako gaztetxiai, lagatako baso eta izotzengaittik; Bergarako udaletxiai (brigadia, munizipalak, kirol zerbitzua...), lagatako material danagaittik eta emandako erreztasunengaittik; Aranzadi ikastolai be bai, aldagelak, patixua eta gimnasiau guretzat lagatziarren torneua aurrera eruateko; Bergarako Libre plataformaia, gurekin batera lan egittiarren hau dana aurrera ataratzeko, Aitziber libre ikusi bihar dou Bergaran. Miner Ardoei be bai, oso ondo portau die gurekin eta kristoren lana egin dabe.

Bukatzeko, futbitoko jokalaria eta antolatzaille danoi be esatia kristoren lana egin giñula danon artian, gozada bat izan zala. Txistu bakarra Andoni Aizpuruntzat, eguraldi ona egin biher zabala esan zabalako eta atsaldian sekulako txaparradak auki giñulako.

Rekuerdotxua be bai Sito eta Igartua futbitozale sutsuei, tuberkulosisaren ondorixoz ezin izan zebelako jolastu, eta Frankoi, jolasten lesionau zalako (rekuperau azkar).

Eta herriko jentiai esan ba hurrengo urtian be etorriko gazela aurtengo ilusiño danakin, eta eguraldi ona egin ezkero kristorena izango dala. Ondo pasau dozuen danak etorri berriro eta beste danak be bai, eta jolastia gustatzen jatzuen gaztiak, irailletik aurrera urte osoko torneua egongo da polideportibuan.

Animau eta apuntau, merezi dau eta.

Mirariak gure aurrean

Jon Otero Uribarren

Arrasate

Zer dira ordenagailuak, mugikorrak, ordulari digitalak, telebista, irratia, diskoak-eta? Elektronikoak?

Egunero ikusten ditugu eta goi teknologiaz ditugu.

Gezurra, ez dira goi teknologia, mirariak dira.

Ezagutzen ditut ordenagailuak konpontzera dedikatzen den gizon bat eta elektroniko-elektrizista bat.

Bigarrenak ez daki zer erantzun nire galderei.

Galdetuz nola den posible kable batez garraiatzea irrati emisioa, bazekien suertatzen dela, baina nola eta zergatik, berriz, ez.

Zer dagoen kable barnean ahotsa eta telebista irudia garraiatzea posible eginez... ez zekien zer erantzun.

Eta mendi antena batetik edo are satelitetik uhinek ekartzea berau ere ez zekien, uhin ohien "teknologia zergatia", bazebilela bazekien zergatia jakin gabe, eta kito.

Ordenagailuak badakigu dabiltzala *txip*-en bitartez.

Entziklopedian begiraturaz, dio *txip*-ak barnean milaka funtzio egiten dituzten gailutxoak direla.

Nola milaka funtzio hain txikia izanik?

Nola fabrikatzen dituzte, mikroskopioz?

Ze garesti!

Ordenagailuak konpontzen zituenari zera galdetu nion: zer dagoen *txip* baten barruan.

Ez zekien zer erantzun, milaka funtzioena ez zuen ulertzen.

Berak *txip* bat gaizki dabilenean berri bat jartzen omen du, eta konpontzen du, eta kito.

Ai, Jainkoaren misterioak!

DUELA 10 URTE

2004-06-24

Espaloia kafe antzokia, zabalik

Lau urteko obren ondoren, jendeari zabalik geratu zen Elgetako Espaloia kafe antzokia. Patxi Basauri alkateak, Iban Retolatza Udaleko Kultura batzordeburuak, Samuel Gorrotxategi kudeatzaileak eta Goibekoko Iban Arantzabalek inauguratu zuten. Helburua zen, Debagoien osorako ez ezik, Debabarreneko kultura bizitzako erreferente izan zedin antzoki berria. Hasieratik, zinema eta jatetxe zerbitzuarekin ekin zion.



Hiltegia Bizirik plataforma. | GOIENA

2004-06-30

Udalen esku hiltegiaren etorkizuna

Bizi-bizi zegoen Zubillagako hiltegiaren gaineko eztabaida. Debagoieneko Mankomunitateak, batzarrean, erabakia udal bakoitzaren esku utzi zuen, aldeko zazpi boto, kontrako bi eta bost abstentziorekin. Pare pare izan zuen Hiltegia Bizirik plataforma, batzar egunean bertan ere, Leintz Gatzagan: haren iritziz, ez zen "zuzena" izan erabakia udalei pasatzea, eta hiltegiaren izaera publikoa defenditu zuten.

DUELA 5 URTE

2009-06-24

GOITB, Euskadi osoan

Goiena telebistaren orduan, GOITB- seinalea Euskal Autonomia Erkidego osora zabaldu zen lehenengo aldiz, Goienaren eta Euskaltelen arteko hitzarmenari esker. Euskaltelek zuntz optikoz zabalduko zuten Goienaren seinalea bere bezero ziren etxebizitza guztietan. EAEn, 933. dialean ipini zuten GOITB.

OÑATI

HERRITARRAK

Esteban Irusta Zeinek ez du ikusi Irusta bere bizikletan hara eta hona? Eta zenbat oñatiar izango ziren bere ikasle? Hain bistara ez, baina elizako organoaren aurrean ere sarri eseri da | LEIRE KORTABARRIA

"Azken 35 Corpus egunetan ez dut organo-jole gisa hutsik egin"

Munitibarkoa da Esteban Irusta, "Bizkaiko kapitalekoa", berak jendeari esaten dion moduan, baina Oñatin ia bizi osoa eman du. Irakasle erretiratu da eta agustindarra ere izan zen 18 urtean, baina musikatik eta kiroletik, bere bi zaletasun handietatik, ez du inoiz erretiroa hartzeko asmorik.

Musikaren inguruan ezagutu izan zaitugu; zure bizitzaren zati handi bat da...

Bai. Nik uste dut berezkoa dudala, familiatik datorridala. Osaba bat nuen Argentinan, Luis Mallea, eta Buenos Airesen, 1939an, hemendik joandako euskaldunekin orfeoia sortu zuen: Lagun Onak.


Gero, Oñatira etorri nintzen eta sasoi hartan, domeka askotan meza solemneak ahotsetara egiten ziren eta ni zorabuta egoten nintzen organistari entzuten... Anekdotak gisa hauxe esango dizut: egun baten herrira joan nintzen oporretan, eta han elizan nengoela, jendea jaunartzean zegoela emakume bat kantuan entzuten nuen, ze ederki kantatzen zuen!... eta gure ama zela ikusi nuen. Oso kantorea zen.

Zaletasuna baino gehiago da musika zuretako, hortaz...

Bai, bai. 10 urte nituela, niretako Bach-en musika gauzarik handiena zen. Askotan esaten dut ni musikari esker izan naizela agustindar, eta erdi brometan esaten dut, aita santua izango banintz, Bach-eta kanonizatu egingo nituzkeela.

Nola ikasi zenuen organoa?

Aniak pianoa ikasi zuen eta organista da. Ni ere ikasteko desiratzen nengoen. Kurtsoa batera hasi genuen, baina piano bat zegoen hiruzpalau lagunendako. Gero harmoniuma ere ikasi nuen, eta gero, pixka bat organoa ikasten hasi nintzen. Oñatiko parrokiako organistak etxeko jairen



Esteban Irusta, musika partitura batzuk eskuetan dituela. | LEIRE KORTABARRIA

"10 urte nituenean, Bach-en musika gauzarik handiena zen niretako"

"Lesakako futbol taldean jokatu nuen, 36 urterekin eta abade nintzela"

bat zuenean deitzen zidaten, bezperak-eta jotzera. Baina ez dut ia irakaslerik izan; gehiena nire kontura ikasi izan dut.

Oñatitik kanpo ere bizi izandakoa zara, ezta?

1959ko udan Lesakara bidali ninduten. Herri txikia zen baina musika aldetik garrantzia zuen: Luis Taberna eta Miguel Etxebeste organistak hangoak ziren, eta baita Pepito Iantzi soinu-jole famatua ere. Horiek denak ezagutu nituen.

Gero, urte bat Ekuadorren eman nuen. Lesakatik 1978an joan nintzen hara, ikastera. Ikastolak sortu zireneko sasoiak zen eta euskaldun tituludun oso gutxi zeuden, eta nik jakin nuen nola Ekuadorren apaiz karrera geneukanok samurrago geneukan Filosofia eta Letretako titulua ateratzeko. Handik bueltan, 79an, Oñatira bidali ninduten eta ikastolan sartu nintzen.

Oñatin noizbehinka bakarrik ez, sarritan jo izan duzu organoa, eta oraindik ere jarraitzen duzu...

Lesakan nengoela, Oñatiko koruak orduan Oñati Abesbatza bakarrik zegoen- organistarik ez zeukan eta urtean behin behintzat joaten ziren Donostiara, meza nagusia kantatzera; organistak gutxienez ordu erdian aurretik jo behar zuen bere kontzertutxoak, eta niri esaten zidaten han jotzeko. Gero, esan zidaten ea organista gisa eurekin jarraitu nahi nuen, baina ezetz esan nuen; orduan ikastolako maisu nintzen eta nahikoa lotura nituen; bakarrik behar nindutenean joango nintzela, eta horrela jarraitzen dut. Corpus egunean, 35 urte hauetan, ez dut behin ere huts egin; Errosario bezperan ere jotzen dut... Nik badakit organista ona izateko egunero hainbeste ordu jo behar dela, baina ni ez naiz horren aldekoa. Beste afizio batzuk ere

baditut. Gero, edozein herritan, normalean organista isil-isilik egoten da meza hasi arte; ni ez naiz horren aldekoa. Aurretik jo pieza batzuk, gero ere bai... Nire gustura ibiltzen da hona.

Bizikletan hara eta hona ikusten zaituzte oñatiar askok...

Deportista handia izan naiz. Lesakan nengoela, futboleko hango ekipan jokatu nuen; 20-22 urteko jokalaria izan ziren eta nik 36 neuzkan eta abade nintzen. Hango pala txapelketan ere parte hartzen nuen.

Dena dela, egiteko, futbola eta pala gustatzen zaizkit, baina ikusteko, bizikletazalea izan naiz ni; futbolariak ez ditut miresten, baina txirriindulariak, bai. Tourra ikustera joan izan naiz 60. urtetik oraintxe arte, Anquetil-en denboratik hasita gaur arte. Mendia ere gustatzen zait eta Piriñoietara joan izan naiz gehiengotan.

NIRE HERRIAN

PAISIAK, HERRI-GIROA...

la bizi osoa daramat Oñatin eta gauza asko gustatzen zaizkit, ezin bakarria esan. Oñatiren tamainako herriak ditut gustukoak bizi izateko; ez da ezer falta eta ezer ez dago ere soberan. Gustuko ditut Oñatiren paisaia zoragarriak, herria bera ikusgarria da, hemengo herri-giroa ere asko gustatzen zait...

GARRAIO PUBLIKOA

Oñatin oso pozik bizi naiz eta ez dut ezer bereziki faltan igartzen. Oso zaila egiten zait gustuko ez dudana zerbaitekin pentsatzea; neuk Donostiarengatik ere ez nuke Oñati aldatuko. Batzuek esaten dute komunikazio eta garraio aldetik hutsunea dagoela, baina trenea balego, ez litzateke den herria izango.

HERRIAK

ARETXABALETAKO

Herriari itxura berrituko diote, hainbat lan eginda

Txarapea ibilbideko egokitze lanak irailean hasi gura dituzte eta bost hilabetean bukatuta izango dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Txarapea ibilbideko lanak bukatu eta inguru guztia txukundu gura du Udalak. Hori horrela, lehiaketa deitu du lan horiek egiteko eta uztailearen 14ra arte dute interesatuek eskaintzak aurkezteko. Txarapeako lanak egiteko 369.094 euroko aurrekontua zehaztu dute, eta hori hartuko dute Bruesa enpresak bere garaian abal gisa jarritako dirutik. "Kosta zaigu abala exekutatzea. Hiru urtean atzera eta aurrera ibili gara, baina azkenean lortu dugu", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak.

Etxe atzeko lurrei utsi

Lanik garrantzitsuenak, batez ere, hiru izango dira: batetik, zenbaki pareak dituzten etxeen atzeko parteko hormari eustea; "Etxe ostean dauden lur-jausiei eustea oso garrantzitsua da; izan ere, lur horiek mugitzen hasita daudela konturatu ginen iaz. Ez



Txukundu gura duten Txarapea ibilbideko tartea. | M.A.

da larritzeko kontua, baina hobea da aurreikuspenarekin jokatu, eta neurri batzuk hartu gura ditugu. Gainera, atzealdeko bidea eginda daukagu lanak hasi ahal

izateko", dio alkateak. Bestetik, goi tentsioko argindar linea lur azpira eramango dute: "Argindarrak dagokion lekutik joan behar du; azken baten, horrek

ere bere arriskua dauka eta segurtasun neurriak hartzea komeni da", gaineratu du. Eta azkenik, bukatu barik dauden bi etxe blokeen inguru guztia txukundu dute. Hori guztia egindakoan kiroldegi gainaldean bukaera duen errepidea zabaldu egingo dute: "Gune guztiak irabaziko du, eta herriko erdiguneak ere bai, autoen zirkulazioa banatu egingo delako".

Deba ibai ertzeko pasealekua egokitzeko asmoa ere badutela jakinarazi du alkateak: "Ahal dugun neurrian txukundu dugu, ez dugulako dirurik, baina txukun geratuko da, bide polita".

Lanak irailean

Uztailearen 14an bukatuko da lehiaketara aurkezteko epea, eta ondoren, eskaintzak aztertuko dituzte. Asmoa da irailean lanok hasia eta bost hilabeteko epean inguru guztia txukun eta guztiz berrituta izatea.

Egingo dituzten lanak

- ▶ Etxeen atzeko parteko ezpondak finkatu, eta bistan dauden harkaitzei tratamendua eman: kokozko sare organikoarekin estali eta hidromanta aplikatu.
- ▶ Hainbat hormatan landareak landatu.
- ▶ 1 eta 2 etxe blokeen aurreko kale tartea zabaldu: bertan pilotutako materiala jaso; hainbat gunetako baldosak eta hormigoizko balastradak berritu; morteroaren siloa lekuz aldatu; etxe blokeetara sarrerak itxi; argindar sistema berritu; eta seinaleztapen bertikala jarri.
- ▶ Zirkulaziorako seinaleztapena jarri.
- ▶ Ibaia eta Txarapea arteko berdeguneak txukundu.
- ▶ Ibai ertzetik doan behin-behineko goi tentsioko linea kendu.
- ▶ Espalioan behin-behinean jarritako hormigoizko xafla kendu.
- ▶ Lehenengo etxe blokeen artean dagoen partzela landarez egokitu.
- ▶ Deba ibai ertzeko pasealekua txukuntzen bukatu.

Murubideko lanak uztailean bukatuta

Murubide plazako lanak uztailean bukatzea da asmoa: "Obrak oso ondo doaz, eta ez da egon inolako ezustekorik", dio alkateak. Sasoi Eraikuntzak SL enpresak du lanon ardura eta 192.995 euroko aurrekontua izan dute.

Inguru guztia berritu dute eta jolaserako gune erabilgarri bihurtu: plaza eta etxe arteko irisgarritasuna hobetu; pilotalekuko lurzorua eta inguruko espaloiak berritu; eta ur hornikuntzarako hodi batzuk aldatu eta kantxa inguruan argindar instalazio berria jarri. Oraindik egiteko dagoena da pintura lan batzuk eta ekipamendu berria kokatzea (jolasak umeendako eta ping-pongerako bi mahai), baita 7,60x16,30 metroko kirol pista zehaztea ere; pista hori izango da futboleko, saskibaloiko, teniseko, hockeyko eta boleboleko jarduteko. Hori guztia bukatutakoan 43.000 euro inguru geratuko direla jakinarazi du alkateak, eta erabiliko dituzte atez ateko ontzien esekitokietara jaisteko arrapala jartzeko.



Murubide plaza itxura berria hartzen hasita. | M.A.

ESANAK

"Inguru guztiak irabaziko du kalea zabaldua, baita herriko erdiguneak ere"

ANA BOLINAGA | ALKATEA

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

Igerileku txikia itxita egon da egun batez, bertako zorua konpontzeko

Astelehen arratsaldean zenbait umek ebakiak egin zituztelako itxi zuten; igerilekua zabalik da berriro

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Astelehen arratsaldean Musakolako igerileku txikiena itxi egin behar izan zuten zenbait umek zauriak izan zituztelako. Bertan jarritako txirrista berriak eragin zituen zauri gehienak, Udaleko Kirol Zerbitzuaren arabera. Horrez gain, zoruko baldosa txikietako apurketek ere eragin zituzten ebakiak. Martitzen goizean igerilekua hustu eta zoruaren aurkitutako pitzadurak konpondu zituzten; beraz, berriro ere zabalik dago, baina txirrista barik. Tobogana jarri zuen enpresari erreklamazioa jarri dio Udalak; erantzunaren zain daude.



Igerileku txikia ume eta gurasoz beteta, iaz ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

Larriak ez, baina zauri asko

Erabiltzaile baten arabera, udako kanpaina hasi zenetik daude arazoak: "Igerilekuak ireki ziren egun berean, baldosa txiki horietako bat atera zidan haurrak. Ni egon ez nintzen egun baten ere itxi zutela entzun dut, 14 zauritu egon zirelako. Zauriak ez dira larriak, unean bertan garbitu eta Betadine apur batekin osatzen dira. Baina hainbat kasu izan dira; astelehenean, momentu baten, ilara zegoen erizaindegian. Sorosleak, hori ikusita, igerilekua ixtea erabaki zuen". Kexa bateratu bat jartzea pentsatu dute: "Ezin gara ibili umea igerilekuan sartzeko beldurrez, eta udako abonua ordainduta dugu. Guraso batzuk kexa bateratu bat jartzekotan geratu ginen, baina ikusiko dugu nola doan kontua. Nik oraindik ez dut jarri".

Bestalde, Udalak azaldu du zerk eragin duen arazo handiena: "Txirristako pitzadurek eragin zituzten zauri gehienak. Tobogana kentzea erabaki dugu eta erreklamazioa jarri diogu enpre-

ESANAK

"Ezin gara ibili umea igerilekuan sartzeko beldurrez"

ERABILTZAILE KALTETUA

"Txirristako pitzadurek eragin zituzten zauri gehienak"

UDALEKO KIROL ZERBITZUA

sari, ez da eta normala dagoeneko apurtuta egotea. Euren erantzunaren zain gaude", diote. Kiroldagiko mantenuaz arduratzen diren langileek martitzenean hustu zuten igerileku txikia berriro ere erabilgarri uzteko: "Lau hankatan ibili dira igerileku guztia berrikusten. Aurkitu dituzten

zoruko apurketa txiki guztiak konpondu dira, baina ezin dugu ziurtatu berriro gertatuko ez denik, zoritxarrez. Datozen egunotan soroslea bereziki egongo da gainean, ea ez den berriro gertatzen..."

Zoru berria jarri guran

Udalaren arabera, igerileku txiki eta ertaineko zorua urtero berrikusten da: "Buruhauste handia dira guretako". Hala, Udalak "aspalditik" du igerilekuen zorua aldatzeko asmoa. Zoru berria aurten jartzeko asmoa bazegoen ere, irailean hasi beharko dituzte lanak. Lanak esleitzeko prozesua atzeratu izana da obra lehenago ez egitearen arrazoi nagusia: "Izugarri kostatu zitzaigun gure gustukoa zen proposamena jasotzea, eta heldu zenerako maiatza zen. Hau da, beranduegi. Horregatik, lanak irailean hasi beharko dira; gutxienez, bi igerileku txikietako zorua aldatu gura ditugu datorren urterako". Zorua aldatzea edo, behintzat, estaltzea da Udalaren asmoa.

Animaziorako eskaintza, 'alfonbra magiko' eta guzti

Aurten lehen aldiz animaziorako ekintzak antolatuta dituzte, uretan zein lehorrean. *Alfonbra magikoa* izenekoak, esaterako, "harrera oso ona" izan zuen astelehenean. Hamar metroko alfonbran, umeek oreka eta abiadura landu zuten uretara ez erortzeko. Asmoa da astelehenetik egubakoitzera egunero zerbait eskaintzea; egun bat igerileku ertainean, beste bi lehorrean eta beste bat igerileku handian; azken egunean *alfonbra magikoa* aterako dute. Uretako saskibaloia, ping-ponga, dardoak, petanka, zirkuituak... Ez da aspertzeko astirik egongo.

Bestalde, Txatxilipurdiren Freskura ekimena ere martxan dago. Euskarazko liburu eta jolasak mailegatu ahalko dira igerileku barruan, hil osoan.



Alfonbra magikoa, aurtengo nobedadeetako bat. | UDALA



Laubide plazako konpost-gunea. | MIKEL DE LA FUENTE

Konposta nola egin arautzeko ordenantza

Azken osoko bilkuran onartu zen arautegi berria; Udal Gobernu eta PSE-EE, alde; EAJ, kontra

J.B. | ARRASATE

Arrasaten auzokonposta eta autokonposta erregulatzeko ordenantza berria onartu zen martitzeneko osoko bilkuran. Ordenantza berriaren helburu nagusia da egungo konpost-guneen eta etorkizunean eraikiko direnen erabilera arautzea. Era berean, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zehazten ditu arautegiak.

Desadostasuna hobarrietan

Hondakin organikoa konpostatzen duen herritarrek hobariak jasoko ditu, Bilduko bozeramaile Maider Morrasen arabera: "Organikoa bere kabuz birziklatzen duenak 30 euroko beharapena izango du zabor-tasan". Egun, 110 euro da zaborraren tasa. Udal Gobernuak eta PSE-EEk alde bozkatu zuten. EAJ,

berriro, kontra agertu zen; jeltzaleen bozeramaile Juan Karlos Garitanok uste du hobarien atala baztertzaila dela: "Makina bat konpostatzaile daude Arrasaten ez dituztela animalien zein sukaldatutako hondakinak konpostatzen, kalitatea murrizten duelako. Era berean, familia guztiek ez dute aukerarik konposta egiteko, eta, beraz, neurri baztertzaila da. Konposta sustatu eta babestu behar da, baina diskriminazio barik". Horren aurrean, Bilduk uste du ezinezkoa dela kontrola eramatea: "Ezinezkoa da bereiztea nork konpostatzen duen ondo eta nork txarto. Ez diogu guk bakarrik, PSE-EEk ere hala dio. Asko eztabaidatu da, eta EAJk planteatzen duena ezin da praktikara eraman". Ordenantza jendaurrean jarri dute.



TXATXILIPURDI

Primeran hasi dira udalekuak

Astelehenean hasi ziren Txatxilipurdiren udaleku irekiak, eta uztailearen 18ra arte iraungo dute. Aurten, 2 eta 12 urte arteko 226 haurrek eman dute izena; hamabi taldean banatu zituzte, 25 begiralaren ardurapean. Musakolan, San Andresen eta erdigunean ibiliko dira, bereziki, betiere euskaraz eta askotariko ekintzekin. Talde batek, adibidez, horma-irudia margotu zuen martitzenean –argazkian– Jokin Zaitegi plazan.



Martitzenean egin zuten jaialdiaren aurkezpena, gune nagusia izango den Biteri plazan bertan. | JAGOBA DOMINGO

Bizipozaren jaia Arrasaten egingo da irailaren 21ean

Gizartegintza Elkarteak, Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta dator; Biteri eta Seber Altube plazak hartuko ditu festak eta sarrerak salgai daude

JAGOBA DOMINGO / J.B. | ARRASATE
Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak, Udalak eta Arrasateko hainbat eragilek egindako elkarlanari esker, irailaren 21ean Bizipozaren jaia ospatuko da Arrasaten. Ekimenaren helburua martitzenean Biteri plazan egindako aurkezpenean azaldu zuten: "Ekimenak herri bat du helburu, bizipozez arituko den herri bat, auzolanean eta sarean lan egiten irekia eta pertsona ororentzat berdintasunezko harremanak sustatzen lagunduko duen sarea, bizipoza zabaldu nahi duena gizarteko esparru guztietan". Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak, azaldu zuten, behar bereziko haurren eta horien familien bizi-baldintzak hobetzeko lan egiten

duen kolektiboari proiektu eta egitura egonkor batekin erantzuteko "ahalegina" da.

Askotariko eskaintza jaialdian
Jaialdirako prestaketa lanetan dabilta oraindik baina aurreratu dute denetarik izango duela, 10:00etatik 18:00etara: magia, tailerrak, dantzariak, ipuin-kontalariak, serigrafia, apar festa, pailazoak... Jaiak bi gune izango ditu; nagusia Biteri plazan eta bestea Seber Altuben. Gune nagusirako sarrera bost euro ordaindu beharko dute neska-mutikoei, eta gurasoak doan sartuko dira. Sarrerok salgai daude dagoeneko Elkar dendetan eta Gazte bulegoan. Sarrera gisa "zapi pirata" bat erabiliko dute. Bes-

talde, Seber Altube plazako gunerako sarrera doakoa izango da eta bertan, besteak beste, puzgarriak jarriko dituzte.

Martitzenean aurkezpenean Arrasateko hainbat eragilek hartu zuten parte. Hitza hartu zuten Gizartegintza Elkarteak Ane Pirata-k, Txatxilipurdiko Ainara Kortabariak eta Kultura zinegotzi Kepa Urteagak. Kortabariak azpimarratu zuen herriko talde asko inplikatu direla eta aurrerantzean ere, beste edonork laguntzea nahi badu ongi etorria izango dela. Bizipozaren festan, "inklusibotasuna, elkarlana eta bizipoza bera" etorriko direla esan zuen Txatxilipurdiko kideak, besteak beste. Informazio gehiagorako: www.bizipoza.org.

20 eskuter eta giro ederra espero dira Mondrallyn

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Bihar ospatuko da Mondrally topaketaren laugarren edizioa. Hainbat txokotatik etorritako eskuter-zaleak beste urtebetez elkartuko dira Arrasaten egun eder bat igarotzeko asmoz. "Kasualitatez" sortu zen Mondrallyren kontua, antolakuntzako kide Jon Alkorta adierazi duenez: "Eskuterrean ibiltzen garen Arrasateko lagun batzuk elkartu ginen egun-pasa eder bat egiteko. Motorrean buelta bat eman, ondo bazkaldu eta ondo pasatzea zen helburua. Eta horren ondo pasa genuenez, zerbait serioagoa egitea erabaki genuen hurrengo urterako".

Ordutik urtero antolatuta dute, uztailean. Aurten ere egun osorako egitaraua prestatu dute: izen-ematea -egunean bertan 40 euro ordaindu beharko da eta erakusketa Herriko Plazan

(11:00), irteera eskuterrean (12:00), bazkaria Hamalau jate-txean (14:30) eta amaitzeko, hiru adituk musika jarriko dute DAT tabernan (20:30).

Brindisa Gorlan

Ibilbidea berria izango da aurten: Arrasatetik irtenda, Oñati zeharkatuko dute eta, Udanan gora egin ostean, Legazpira helduko dira. Legazpitik Urretxura, eta Urretxutik Azkoiti-ra; hara heldu aurretik Gorla igoko dute, bertan brindisa egiteko. Handik Arrasatera etorriko dira. 20 bat eskuter espero dituzte eta aurten ere, Euskal Herriatik etorritako lagunez gain, Zaragozatik eta Madrildik ere etorriko dira batzuk. Oraingo, jai "xumea" bada ere, urteak joan ahala ekintza berriak antolatuta eta festa handitzeko asmoa dute.



Eskuterren erakusketa Herriko Plazan, iazko edizioan. | IMANOL SORIANO

Kirol teknikari bat kontratatzeko deialdia ireki du Udalak presazko izaeraz; proba, uztailearen 8an

Udalak kirol teknikari bat behar du, eta, horretarako, presazko izaera duen deialdia ireki zuen ekainaren 27an, oposizio librea-ren sistema bidez, teknikari hori kontratatzeko. Proba praktikoa uztailearen 8an egingo da Kulturaten (10:30); Otorala kaletik sartu beharko da. Informazio gehiago, BAZen (943 25 20 00) edo Udalaren webgunean: www.arrasate-mondragon.org.

Alexander Molina | Gazte sozialisten Arrasateko idazkari orokor berria

"Gazteengana hurbildu eta aldarrikapen politikoa suspertu behar dugu"

Astelehena ezker kargu berria hartu du Molinak, eta "ilusioz eta lanerako gogo handiz" dagoela esan du

J.B. | ARRASATE
Nikaraguan jaio arren, Bergaran bizi da egun Alexander Molina (Managua, 1989) eta asteon hartu du konpromisoa gazte sozialisten Arrasateko idazkari orokor berria izateko. Astelehenean egin zuten herri mailako batzarrak eta hura izendatu zuten idazkari orokor. Azaldu duenez,

gazte arrasatearrei laguntzea izango da bere lehen helburua. **Pozik kargu berriarekin? Ilusioz?** Ilusio handiarekin hasi naiz, lan egiteko gogo handia daukat. Gazteendako aukera eta baliabideak oso eskasak dira gaur egun eta horri aurre egiteko aktiboki parte hartu gura dut, guztia aldatzea posible izan dadin.



Alexander Molina. | PSE-EE

Ze helburu markatu dituzu?

Gazteen artean aldarrikapen politikoa suspertu gura dugu. Ez bakarrik nire alderdi politikorekiko, baizik eta orokorrean. Gazteen politikarekiko mesfidantza eta abstentzioa oso nabarmenak dira, eta, neurri handi baten, gauzak gaizki egin ditugulako da hori. Hori guztia aldatu gura

dugu; euskal gazteek jakin behar dute euren baldintzak hobetzeko lan egingo dugula beti. Gazteengana hurbildu behar dugu eta euren kezkek benetan arduratzen gaituztela erakutsi.

Nola egiten da hori? Nola gerturatu zarete Arrasateko gazteengana?

Pentsatu dugu zenbait hitzaldi ematea. Hasteko, gure burua eza-gutzera emateko balioko dute hitzaldi horiek, eta, era berean, bertaratzen diren gazteen kezkek entzungo ditugu, lana nola egin behar dugun erabakitzeko.

Ezagutzen duzu Arrasateko gazteek bizi duten errealitatea?

Bergaran bizi naiz, eta, nahiko gertu dudanez, gainetik ezagutzen dut zein den Arrasateko errealitatea. Hala ere, informazioa jasotzen nabil oraindik; badakit jakin gazte arrasatearren egoera zaila dela. Gainera, orain are zailagoa

da, besteak beste, Fagor Etxetresnen krisiaren ondorioz. Bestalde, Arrasateko alderdikideak aurkeztu dizkirate; hala ere, oraindik harremana sendotu behar dugu. **Ez dira garai onenak alderdi sozialistarendako. Zer duzu esateko horren aurrean?**

Argi eta garbi. Alderdiak garai zailak bizi ditu, hori ukazina da. Haize freskoa behar dugu alderdi barruan, baina ez naiz Espainia mailako aldaketek ari. Arrasaten bertan, azken urteetan apenas egon da mugimendurik gazte sozialisten artean eta orain jendeak ikusi behar du hor gaudela. Ez garelako sekula herritarrez ahaztu, beti egon garelako hor. Arrasateko alderdi sozialista biziberritu behar dugu, kalean bertan lan egin. Lan egiteko egoera aldatu egin da, terrorismorekin mehatxua gaintzen ari gara-eta; lehen baino askoz errazagoa da parte hartzea.

Herriko kirolari ezagunei harrera egingo die Udalak gaur, egubakoitza

Atletiko Arrasate, Dragoi, Ointxeko talde nagusia eta Iban Velasco dira

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Herriko zenbait kirolariri harrera egingo die Udalak gaur, egubakoitza, arratsaldean. Horren bidez, kirolari horien lana, ibilbidea edo lorpenak kontuan hartuta, errekonozimendua egin gura diete. "Ekitaldi xumea eta bihotzekoa" izango dela esan du Udalak.

Hauek izango dira omendutako kirolariak: Atletiko Arrasateko atletismo taldea –Malen Ruiz de Azua, Maialen Axpe, Iñigo Uribarren eta Jonathan Perez entrenatzailea; aipamena Istar Dapenari eta kadete kategoriako mutilei–, Dragoi gimnasia erritmiko taldea –Mirentxu Amozarrain, Eider Altube, Maialen Gallardo, Maialen Diaz, Maitte Oliden, Maitane Ugarte, Leire Ugarte, Nerea Otxoa, Olatz Fernandez eta Elena Lanuza entrenatzailea–, Ointxe saskibalo klubeko Lehen Nazionalako taldea –Mikel Arexolaleiba, Paul Isasa, Martxel Balantzageti, Iker Barbero, Gorka Arexolaleiba, Julen Kortabarría, Imanol Zezia-



Ointxe saskibalo klubeko taldeak EBAr txartela lortu zueneko argazkia. | GOIENA

ga, Alex Lorenzo, Unai Barrena, Mikel Atxa, Gorka Kintana, Ander Atxa; Josu Larreategi eta Juan Carlos Davila entrenatzaileak; Joseba Arexolaleiba, Gorka

Herranz eta Miguel Angel Osinaga delegatuak; Alberto fisioterapeuta; eta aipamena alebin kategoriako neskei– eta Ivan Velasco txirrindularia.

Askotariko arrazoiak

Ekitaldia 17:30ean izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta Inazio Azkarragaurizar alkateak eta Udaleko Kirol zine-

gotzi Joxerra Askasibarrek egingo diete harrera. Bakoitzaren gaineko irudi eta bideo batzuk emango dituzte, eta 18:30ean, denek batera argazkia aterako dute udaletxeko eskaileretan.

Udalak argi utzi nahi izan du hainbat arrazoirengatik aukeratu dituztela kirolari horiek, ez derrigorrez aurtengo denboraldian garaipenak edo markak lortu izan dituztelako, baizik eta dena kontuan hartuta: lorpenak, ibilbidea...

EBAn jokatzeko laguntza

Ointxeri dagokionez, astelehenean erabaki zuen zuzendaritza batzordeak talde nagusiak EBA mailan jokatzeko izena ematea, eta igoeira lortu duten entrenatzaile eta jokalariei gehienek jarraitu egingo dutela esan du zuzendaritzak.

Honako puntu hauek balortu dituzte erabakia hartzeko: etxeko jokalariz osatutako taldeak lortutako garaipena izatea; infra-estruktura aldetik ezer berezirik behar ez izatea; eta partida ia guztiak Euskal Herrian jokatu edo egunean bertan joan-etorria egiteko modukoak izatea.

Ekonomiari dagokionez, EBA mailan jokatzeko orain baino 15.000 euro inguru gehiago kostatuko da, eta datorren urteko aurrekonturako dirua batzeko ekintza batzuk egingo ditu Ointxek. Tartean, gaur, egubakoitza, Udalen harrera aprobetxatuta, kanpaina abian jarriko da udaletxean bertan.

Denboraldiaren balorazio ona egin du Mondraren batzarrak

L.K. | ARRASATE

Talde bakoitzaren denboraldia errepasatu zuen labur Mondra futbol klubaren batzar orokorrak joan den eguaztenean. Oro har, balorazio ona egin zuen.

Nesak, bereziki ondo

Preferenteko taldeak "denboraldi irregularra" baina "positiboa" egin duela ondorioztatu zen batzarrean. Sailkapenean 7. geratu zen taldea. "Maila onean" jokatu duten zazpi gazte izan direla eta aurtengo helburua, taldea berritzea, lortu egin dela esan zen.

Bigarren mailako nesken taldeak "txapela kentzeko moduko denboraldia" egin zuela txalotu zuen batzarrak: "Arlo pertsonalean eta inplikazioan, klubarentzako ohorezko taldea

da". Izan ere, joan zen udan neska askok azken orduan taldea utzi zuten eta gazte asko igo ziren lehen taldera. "Esfortzu eta baloreen isla izan dira aurten" Mondrako neskek, batzar orokorraren esanetan.

Gazteei dagokionez, "denboraldi zaila" izan dutela baina azken partiduan mailari eustea lortu zutela nabarmendu zen.

Ohorezko kadeteek ere denboraldi zaila izan dute, baina "ikasteko balio izan" duen urtea izan dela komentatu zen.

Emakumezkoen kadeteak igoera faserako sailkatu direla azpimarratu zen; kadete txikietan, ohorezko infantiletan, infantil txikietan eta alebinetan, formazioan "aurrerapausoa" egin dela esan zuen batzar orokorrak.

Zabalik dago, uztailaren 9ra arte, Zaldibarko 24 orduko txapelketan izena emateko epea

Uztailaren 12an jokatu da Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa, eta uztailaren 9ra arte eman daiteke izena, 637 78 74 41 telefono zenbakira deituta edo Whatsapp mezua bidalita, edo zaldibarko24orduak@gmail.com helbidera mezua bidalita. Talde bakoitzak 60 euro sartu beharko ditu kontu honetan: 2095 5055 54 1074820514. Kontzeptu gisa taldearen izena ipini behar da.

Auto klasikoen eta gaur egungoen erakustaldia izango da domekan

Leinn-eko Login Lan gazte kooperatibak antolatuta, Markuleten izango da

L.K. | ARRASATE

Markuleteko industrialdeak Arrasaten ezohikoa den ekintza bat hartuko du etzi, domeka: I. Autoen Erakustaldia. MUko Leinn graduko Login Lan kooperatiba gazteak antolatu du. Login Lan-eko Raul Uriartek honela laburtzen du zergatik antolatu duten: "Morraren gaineko zaletasun handia dago, baina Arrasaten-eta, probak bai, baina sekula ez da auto-erakustaldirik egin, eta hori sustatu nahi dugu".

Euskal Herriko rallyetako "pilotu erreferenteak" etorriko direla esan du Raul Uriartek: gutxienez 30 batek konfirmatu dute Arrasaten izango direla; tartean Igor Urienek, Ruben Nogueirasek eta Joseba Iraolak.

Bakoitzak bere protagonismoa

Autoei dagokionez, 40 bat izango dira, "askotarikoak": 60ko hamarkadatik aurrerako automobil klasikoak eta gaur egungoak. Bakoitzak bere unea izango du.

Egitarau hau antolatu dute: 10:00etan, auto klasikoen erakustaldia; 11:30ean, txosnagunea irekiko dute eta umeendako txo-



Auto klasikoak, erakustaldi baten. | SANTUARIO TORRECIUDAD

koa ere bai, puzgarriekin; 14:00etan, errepidea itxi egingo da, eta 15:00etatik 17:00etara, autoen erakustaldia egingo dute; eta 17:00etan, bukatzeko, sagardodastatze ekitaldia izango da.

Tramite luzeak

Login Lanekoekin batera, Asier Zubillaga argazkilaria eta Iker Suinaga ilustratzailea ibili dira; Debagoieneko autoekiko zaletasuna sustatzeko moduko ekintzak asmatu nahi zituzten. Raulek dioenez, lasterketa bat antolatze-

ko lanekin ez dute zerikusirik honakoak: "Baimenak, patroinatzaileen baimenak, Udalarenak, pilotuekin harremanak... horrek denak denbora bat eskatzen du", esaten du; zehazki, baimenak lortzeko tramiteek "uste baino luzeago" jotzen dutela onartzen digu.

Raul Uriartek Arrasate Irratiari esan dion moduan, "morrarekiko gutxieneko interesa duen edozein" gonbidatzen dute antolatzaileek horren denaren emaitza ikustera.

Dantzaz, musikaz, literaturaz eta zirkuaz gozatzeko aukera izango da uztailean

Udazabalen baitan zazpi ikuskizun antolatu dituzte, 38.000 euroekin

ANE ELORDI | ARRASATE

Arrasate Musikaleko Big Bandek emango dio hasiera aurtengo Udazabal jaialdiari, Monterron parkean, 22:30ean. Seigarren edizioak askotariko diziplinak eskainiko ditu, eta uztaileko asteburuetan eskaintza kultural zabala izango da. Dantza, zirku, poesia eta musika emanaldiez gozatzeko aukera izango da herriko zenbait tokitan. Aurten, aldiz, ez da zinema eskaintzarik egongo.

Jon Zabal magoa bigarrenez izango da Arrasateko Seber Altube plazan, uztailearen 11n, eta ilusionismo ikuskizun interaktiboa eskainiko du; bertaratutakoak intrigazko giro misteriotsu baten murgilaraziko ditu hark.

Bi egun geroago, uztailearen 13an, zirkuak hartuko du Arrasate. The Funes Troup taldeak umorezko ikuskizuna egingo du Seber Altube plazan. Hiru pertsonaia karabana batean gerturatuko dira, euren kezka eta

nahiak ikus-entzuleekin partekatzeke. Herritarrek dibertsioa bermatuta izango dute protagonisten dantza, akrobazia eta trebetasun harrigarriarekin. Diziplina bereko beste ikuskizun bat izango da uztailearen 20an, Altube plazan, 22:00etan. Malas Compañías taldeak *Txatarra* ikuskizuna antzeztuko du, zirku eta antzerkia bateratuta.

Berrikuntza eta eskaintza bereziena Rafael Lechowski rap abeslariaren eskutik dator. Izan ere, askotariko estilo eta diziplinak bateratzen dituen artista da. Rap munduan sortzailea eta berri-tzailea izan da. Egun, aldiz, poesia musikatu lantzen dihardu. Monterron parkean egingo duen emanaldian, jazz laukote batek lagunduta, bere poesiak irakurriko ditu herritarrentzat.

Dantzaren aldeko apustua

Dantzaren presentzia bermatu nahi izan dute Udazabalen. Dan-



Rafael Lechowski musikaria jazz laukotearekin. | RAFAEL LECHOWSKI

tza ikuskizun bi izango dira: batetik, uztailearen 25ean, Warszawianka talde poloniarrek folklore ikuskizuna eskainiko du. Varsoviako Unibertsitateko taldeak herrialdeko dantza tradi-

zionalen ale bat erakutsiko du. Bestalde, Kukai dantza taldeak *Gelajauziak* ikuskizuna aurkeztuko du, Nestor Basterretxearen Akelarre eskulturaren inguruan eraikitakoa.

KARMELO ALBERDI
KULTURA TEKNIKARIA

"Proposamen potenteena, Lechowskirena"

Alberdik itxura onahartzen dio aurtengo programari; aurrekontua murriztu den arren, eskaintza zabala mantentzea lortu dute.



ANE ELORDI

Maila handiko artistak etorriko dira aurten.

Bai; proposamen potenteena Rafael Lechowskiren ikuskizuna da, poesia eta jazz bateratuta. Liburuak argitaratu ditu, baita sariak jaso ere. Berrikuntza honek askotariko publikoa erakar dezake.

Euskal taldeak bultzatzen saiatzen zarete, ezta?

Bai, hala da. Gehienak euskaldunak dira, eta maila handikoak; esaterako, Kukai dantza taldea. Euskal Herrian dantza tradizionala eta garai-kidea bateratzen dituen talderik indartsuena da; ikuskizun berria aurkeztuko du.

Big Band taldearen eskutik askotariko doinuak Udazabal jaialdiaren irekieran

Aurreko urteetako erreperitorioetan oinarrituako emanaldia egingo dute

ANE ELORDI | ARRASATE

Arrasate Musikaleko kideek Udazabal jaialdiari hasiera emateko ardura dute aurten. Ikasturtean zehar landutako abestiak eta beste erreperitorio batzuetako

kantak berreskuratuta osatu dute emanaldirako kanta bilduma Big Bandeko kideek.

Musika emanaldia gaur izango da, Arrasateko Monterron parkean, 22:30ean. 23 musikariz

osaturako taldeak askotariko doinuak eskainiko ditu; besteak beste, swing, latindar, bossa eta funk doinuak. Kontzertu animatua izango dela adierazi du Zigor Martinez zuzendariak; askotariko doinuak joko dituzte, eta baita abesti ezagunak ere: *Cantaloupe island*, *Camaleón* eta *Gonna fly now*, esaterako.

Ikasturteko azken saioak

Astelehenean, uztailearen 7an, Aramaion arituko dira Arrasate Musikaleko musikari aramaioarrak. Herriko jaiak direla eta, kultura etxean eskainiko dute kontzertua, 19:00etan. Ikasturteko azken kontzertua Lantziegon eskainiko dute (Araba), uztailearen 12an, 13:00etan.



Arrasate Musikaleko Big Band taldearen kontzertua. | ARRASATE MUSIKAL

Parrillada musikatuak uztailean gaztetxean, eguaztenetan

ANE ELORDI | ARRASATE

Arrasateko Gaztetxeak musika proposamen zabala antolatu du hilabeteko eguazten guztiarako; estilo askotariko taldeak arituko dira eguazten gauak animatzeko lanetan. Gainera, musika emanaldien aurretik afariak emango dituzte.

Uztailearen 9an hasita, lau eguaztenetan, afariak eta musika emanaldiak eskainiko dituzte, 21:00etatik aurrera. Iluntzen jarriko dituzte salgai afarietarako txartelak, zazpi eurotan, eta musika emanaldiak hasi bitartean gaztetxean afaltzeko aukera egongo da. Kontzertuak 22:00etan izango dira, eta, egitasmoari hasiera emateko, Pobresiak taldeak egingo du emanaldia. Oñatiko Aimar eta Eñaut Uribesalgo anaiek osatutako bikoteak *Burgesiaren*

gaurdiko eztula lanean bildutako poesia musikatuak kantatuko ditu datorren eguaztenean, uztailearen 9an.

Eskaintza zabala

Uztailearen 16an Mery May arrasatearraren txanda izango da. Bakarlarri bezala bi disko ditu Maria Faganek, eta indie estiloa lantzen du gazteak. Abeslari eta gitarra-joleak batera eta baxua izan ohi ditu lagun kontzertuetan.

Uztailearen 23an Estacio Palate taldeak eskainiko du kontzertua. Parrillada musikatuak bukaera emateko, nazioarteko doinuak izango dira: Khalil musikari pakistandarrak eskainiko duen saioak itxiko du zikloa, hilaren 30ean.

ETOR ZAITEZ
PROBATZERA

BERGARAN
FORD MUGARRI
ZABALIK



MUGARRI AUTOAK

Amillaga 5. BERGARA.
670 82 71 86

Ohiko ekitaldiekin ospatuko da bihar San Martzial erromeria

- ▶ Herribus zerbitzua egongo da 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era
- ▶ Bihar, zapatua, erromeria bezperan ohiko bihurtu den erraldoien kalejira egongo da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Astelehenean, ekainak 30, letania errezatuz egin zen San Martzialerako igoerari domekan egingo den erromeriak hartuko dio lekukoa.

Herritarrek dagoeneko hartu dute lekua zelaian; jarri dituzte mahaiak domekan egun-pasa polita egiteko.

10:00etan abiatuko da gurdia San Martzialerantz, eta, hortik aurrera, ohiko ekitaldiak izango dira, ondoko taulan ikusten denez. Ohiko aurrekuari dagokionez, Maren Belastegi eta Lauri Askargorta izango dira dantza egingo duten aurtengo udal ordezkariak. Aipatzekoa da, bestalde, udalbatzak eta Mizpirualdeko nagusiek elizpean egiten duten bazkarian, *catering*-a eskatu beharrean bertako baserrietako produktuekin prestatutako menua izango dutela, Udalak herriko ekoizleen lana bultzatzeko daraman jardunaren baitan.

San Martzialerako Herribus zerbitzua egongo da. 09:30etik



Kuadrilla bat iazko erromeria egunean. | GOIENA

14:00etara eta 16:00etatik 20:30era egongo da eta geltokiak Oxirondo plazan eta San Martzialgo ziburuen ondoan izango dira.

Bestalde, ohi bezala, egun horretan ezin izango da zelaira autorik sartu, bertara jeneroa eramateko izan ezik, eta eramandakoa laga ondoren, ibilgailua kendu egin beharko da bertatik. Horren harira, Udaletik oharta-

razi dute errepidea itxita egongo dela ibilgailuendako 10:00etatik 11:00etara eta 21:00etatik 22:00etara.

Ingurunea zaindu

Berdegunearen erabileraren inguruan errespetuz jokatzeko eskatu dute udal arduradunek eta gogora ekarri dute erabileraren gaineko ordenantza bat dagoela.

Horren arabera, ezin da lurra leundu, kendu edo eraldatu; dau den mahaiak ezin dira eraldatu; zuhaitzetan ezin da iltzerik edo bestelako elementurik sartu; eta ezin da lurrean surik egin.

Horrekin guztiarekin batera, berdegunean jarriko diren hondakinendako gaikako edukiontzia erabiltzeko eskaria ere egin dute.

EGITARAUA

UZTAILAK 5, ZAPATUA

18:30 Buruhandi eta erraldoien kalejira, Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. |

19:00 Bergarako Orfeoia eta Oñati abesbatza, San Pedro parrokian.

UZTAILAK 6, DOMEKA

09:30 Alborada, Lizarrako dultzaineroekin, Zumarragako trikitilariekin, Bergarako Udal Txistulari Bandarekin eta Incansables txarangarekin.

10:00 San Martzialera igoera gurdia.

11:00 Meza nagusia.

12:00 Dantza emanaldia; Amuriza eta Agin Laburu bertsolarien saioa; ohiko aureskua; eta abesti herrikoiak kantina ondoan.

15:30 Umeendako jolasak eta herri kirolak.

17:00 Herri kirolak: sokatira eta txingak (16:00etan izen-ematea).

18:00 Fun And Go taldearekin erromeria.

19:30 Larrain-dantza.

21:00 Jaitsierako txupinazoa.

Mirari

BEHERAPENAK

%30

%50

%40

Ibargarai hiribidea 14 • Bergara • Tel.: 943 76 23 93



Osintxuko liburutegian eguaztenean egindako aurkezpenen bildutakoak. | JULEN IRIONDO

Elkarbizitzarako taldea sortu eta ekintzak prest dituzte Osintxun

Auzotarren %20 dira etorkinak, eta elkar ezagutzea dute lehenengo helburu

JULEN IRIONDO | BERGARA

Bergarako Udalak, Osintxuko Herri Batzarrak eta Emunek koordinatuta, jatorriz osintxuar direnen eta kanpotik etorritako lagunen arteko elkarbizitza lantzeko bilerak hasi ziren egiten maiatzean, auzotarren kezka eta nahi batetik abiatuta: azken urteetako gorakadarekin, Osintxun bizi direnen %20 dira etorkinak, eta elkarbizitzan nola aurrera egin landu nahi zuten.

Prozesu parte-hartzailea da maiatzetik egiten dihardutena, eta bileretatik sortu da lantalde bat, aniztasuna ezaugarri duena, auzoan zenbait ekintza egiteko aurrerantzean, taldea osatzen duten bateko eta besteko auzotarren euren erabakiz.

"Bileretatik ateratako ondorio orokorra izan da ez dugula elkar ezagutzen", dio Bergarako Udaleko Ongizate Saileko teknikari Idurre Amozarrainek. Elkar ezagutze horretarako oztopo, "hainbat beldur eta aurreiritzi" daudela detektatu zuten. Ondorioz, erabaki zuten "elkarguneak sortzea eta ekintza bateratuak egitea". Horretarako sortu zuten taldetxoak, eta ekintza-plana egin.

la 100 etorkin

500 bizilagunera iristen ez den auzoan, 100 inguru dira etorkinak. Horien artean, auzoan bikain txertatu direnak, Saliu Coma ganbiarra, adibidez, bere esperientziarekin laguntzeko prest dagoena: "Iritsi eta bi hilabetera hasi nintzen euskara ikasten euskaltegian; bi urte egin nituen. Oso garrantzitsua eta oso aberasgarria izan da niretzat; jendeak ikusteko integratu nahi nuela. Afrikarrok badakigu nonbaiten integratzeko goazen tokiko gauzak gure bizimoduan txertatu behar ditugula, jendea nola bizi den ulertzeko, eta haiekin komunikatzeko".

Hala ere, oraindik ba omen dira, bai bertako, bai kanpotik etorritako, besteengana gerturaztea kosta egiten zaienak, eta bide hori leundu nahi dute oraingo ekimen honekin, Erik Cuevas auzotarrak azaltzen duenez: "Ekimen ona iruditzen zait, oraindik animatu ez direnak anima daitezten. Euren lekuan ere jarri egin behar da: datoz beste herrialde batera, beste jende bat dagoen lekura, eta nahiz eta gertuko jendea eduki, horrekin bakarrik

ezin zara bizi, bizpahiru lagunekin. Bertako jendearekin ere lagun egitea eta herriko egitea garrantzitsua da; eta badago jendea pausotxo hori ematea falta zaiena, eta hori erraztea da kontua, erosoago bihurtzea, kalera jais-teko eta edozeinekin geratzeko, kafe bat hartzeko, berba egiteko edo edozertarako.

Aurreneko ekintza, eginda

Horrela, elkar-ezagutza eta elkarbizitza lantzeko sortutako lantaldeak ekintza-plana prestatu zuen, dagoeneko gauzatzen hasia dena: San Juan bezperan Senegalgo doinu eta dantzak izan zituzten plazan suarekin batera; hainbat herrialdeetako jaki dastaketa egingo dute jaietan; eta Berbalagun bezalako ekimen bat ere badute martxan jartzeko asmoa.

Bertako zein kanpoko dantza ikastaroak eta kirol olinpiada antolatze asmoa ere agertu dute. Elkarbizitza lantzearekin batera, aniztasunak dakarren aberastasuna aprobetxatzea ere nahi dute horrela. Ekimenari jarraipena egiteko, hiru hilean behin bilera egitekoak dira Udalarekin.

Vivaldiren eta Bachen obrak bihar Bergarako Orfeoiekin

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bachen eta Vivaldiren pieza barrokoak eskainiko dituzte bihar, zapatua, San Pedro parrokiari, Bergarako Orfeoiekin eta Oñatiko Abesbatzari. Elkarrekin prestatu dute kontzertua. Sei hilabeteko lanaren emaitza izango da eta emanaldia egiteko "irrikan" daudela aurreratu du Bergarako Orfeoiko kide Karlos Etxanizek.

Beteta

Joan den asteburuan Oñatiko San Migel parrokiari egin zuten kontzertu bera izango da bihar Bergarako San Pedro parrokiari eskainiko dutena. Oñatiko eliza bete egin zen estreinako

kontzertu hartan eta emanaldi "serio eta borobila" egin zutela esan zuen orduan Etxanizek. Vivaldiren *Gloria* eta *Credo* eta Bachen *Cantata 131* interpretatu zituzten, adibidez. Amaitzeko, Gounod-en *Ave Maria* abestu zuten. Biharko kontzertua ere haren berdina izatea gura dute. Kontzertuan, 110 pertsonak osatutako korua arituko da kantuan, orkestrak 26 musikari izango ditu eta 45 bakarlarik abestuko dute.

Emanaldia 19:00etan hasiko da San Pedro parrokiari bihar, eta sarrerak salgai daude. Kultura etxean, Lazkano zapata-dendan eta Pikuperen bulegoan eros daitezke zortzi eurotan.



Joan den domekan Oñatin egindako emanaldia. | JOSETXO ARANTZABAL



BERGARAKO UDALA

Auzolandegietan hamabost gazte

Valentziatik, Sevillatik, Zaragozatik, Madrildik eta Euskal Herriko zenbait herritatik etorri dira hamabost gazte auzolandegietan parte hartzeko. Mizpirualde egoitzan jardungo dute aurten ere. Lanean hasi aurretik, baina, Bergara ezagutzeko bisita gidatua egin zuten. Uztailaren bigarren erdian beste hamabost gazte etorriko dira.

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Herria garbiago mantentzeko ideiak

Zikinkeria ohiko arazoa eta kexa iturri da herritarren artean eta horri buelta emateko 'Garbiena... zikintzen ez duena' kanpaina abiaraziko du Udalak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Herria zaindu eta garbi mantentzearen inguruko gogoeta bultzatu nahi du Udalak herritarren artean, eta, horretarako, *Garbiena... zikintzen ez duena* izeneko kanpaina abiaraziko dute.

Nagore Narbaizak, Parte-hartze teknikariak, eguaztenean kanpainaren gaineko xehetasunak emateko agerraldian azaldu zuenez, kaleetako zikinkeria ohiko arazoa eta kexa iturri izaten da herritarren artean: "Animalien gorotzak direla, lurrera botatako objektu eta hondakinak direla... herritarren elkarbizitzan eragiten duen alorra da", esan zuen Narbaizak.

Hori horrela, herria "ahalik eta txukunen" mantendu nahi dutela azpimarratu zuen Jaione Isazelaia alkateak agerraldian, herritarrengan duen eraginagatik eta baita turismoari begira ere: "Herri ederra dela pentsatzen dugu, egunero etortzen dira turista pila bat eta nahiko genuke

garbitasunaren eta txukuntasunaren arloan eredu izatea eta bisitariak eroatea Bergaratik orotzapen on bat".

Guztion ardura da

Herritaren zaintza eta garbi mantentzearen ardura guztiona dela uste dute udal arduradunek, eta banakoan jarreretan eraginda lor daitekeela: "Ez da lortzen egun batetik bestera, kontzientziarioa eskatzen du jendearen aldetik, eta hori da egin nahi duguna", gehitu zuen Isazelaia. Horretarako abiaraziko dute, hain zuzen, *Garbiena... zikintzen ez duena* kanpaina, "herria txukunago mantentzeko ideiak batzeko eta horiek oinarri hartuta ekintzak diseinatzeko helburuarekin".

Ideiak, herritarrengandik

Herritarrengandik jaso nahi dituzte ideiak. "Ez ditugu arazoaren irtenbideak guk bilatu nahi gure kabuz. Herritarrengandik jaso nahi ditu-

gu arazoaren irtenbideak". Dagoeneko egin dute lehen urratsa eta herriko zenbait eragilerekin batzarrek egiten ari dira, "arazoak dauden guneak eta ekiditeko alorrak identifikatu ahal izateko".

Orain arte egindako gogoetetan, ekin beharreko honako eremuak detektatu dituzte: lurrera botatzen diren bildukin eta objektuak; animalien -bereziki txakurren- gorotzak; natura inguruneetan lagatzen diren hondakinak; zintzilikarioen ondoan, lurrean, uzten diren poltsak; eta kartel eta bestelakoak.

Baina eragileekin egiten ari diren batzarrez gain, herritarrei ere luzatu nahi diete deia ekarpenak egiteko eta Udalarekin harremanetan jartzeko ohiko bideak erabil daitezke: argazkiak zein proposamenak bidal daitezke herritarren postontzia@bergara.net helbidera; Twitter kontura, [@BergarakoUdala](https://twitter.com/BergarakoUdala); Facebook kontura, [@BergarakoUdala](https://www.facebook.com/BergarakoUdala); udalaxterera deituta; eta leihatilan.



Pepi Lasa eta Josefina Gonzalez, balkoien argazkiekin. | MONIKA BELASTEGI

Balkoi politenaren saria jaso du Pepi Lasak

Balkoiak eta leihoak lorez apaintzeko lehiaketak hamahiru partaide bildu ditu lehen aldian

ANE ELORDI | BERGARA

Pepi Lasak irabazi du Bergarako balkoi eta leihoen lore-apaintza lehiaketa. Lehenengo aldiz egin dute. Hamahiru lagunek eman zuten izena, eta irabazleak herriko dendetan gastatzeko 400 euroko bonua eskuratu du. Josefina Gonzalez izan da bigarren, eta herriko dendetan erabiltzeko 200 euroko bonua jaso du.

Sari Banaketa ekitaldia eguaztenean egin zen Bergarako azokan. Herritarrek gerturatu ziren, eta irabazleek pozik

jaso zuten saria. Lasaren eta Gonzalezen hitzetan, ez zuten irabaztea espero, eta urduri ere egon ziren. Hala ere, atsegin handiz hartu zuten saria, baita lehiaketa antolatu izana ere.

Epaimahaia hiru pertsonak osatu zuten: Ninika loradendako Ana Revueltak, Gorotzi loradendako Irene Zenitagoiak eta Jarduneko ordezkari eta zuhaitz eta zuhaixketan aditu Maitane Arizabaletak. Haien ustez, balkoi polit asko daude herrian, eta, bide batez, jendea animatzeko dei egon dute.



Nagore Narbaiza, teknikaria; Idoia Igartua, bridadako langilea; eta Jaione Isazelaia, alkatea. | MIREN ARREGI



Hiriako Amsterdamen izan dira

Helduen Heziketa Iraunkorreko ingeles ikasleak joan dira Herbehereetako hiriburura. Hamazazpi ikasle eta haien irakasleak egin dute irteera. Ekainaren 10etik 14ra egon dira Amsterdamen eta primeran pasa dutela esan dute. Hiria ezagutu dute, hainbat museo ikusi eta baita beste herritxo batzuk bisitatu ere. Nola ez, gastronomiaz ere gozatu dute.

Pol-Pol Mendi Taldearen urteko batzarra hilaren 16an

19:00etan izango da lehen deialdia eta 19:30ean bigarrena, elkarteak Udala Pilotalekuan duen egoitzan. Aurten go eta iazko gorabeherak aztertzeaz gain, bazkideek zuzendaritza batzorderako bi kide berri izendatuko dituzte. Horrekin batera, egoitza berri baten proiektua ere aurkeztuko dute batzarrean.

San Martin jaietako txosnak hartzeko izen-emate epea zabalik

Sanmartinetan Munibe eta San Martin plazetan Udala ipintzen dituen txosnez arduratzeko zozketan parte hartzeko baldintzak kaleratu dituzte. Munibekoa talo-txosna izango da eta plazakoa, odoloste-txosna. Baldintzak Udala kontsulta daitezke eta zozketa uztailearen 22an egingo da. Eskararak aurkezteko epea egun horretan 12:00etan amaituko da.

Aitziber Plazaolarekin elkartasun batzarra deitu du Librek

Irailean hastekoa den Aitziber Plazaola *Xibo*-ren eta beste 27 gazteren kontrako epaiketaren harira zenbait elkartasun ekintza antolatu ditu Bergarako Librek. Hala, martitzenerako, hilaren 8rako, batzar irekia antolatu dute. 19:30ean izango da, Irizar pasealekuan, Gaspar pareaan.



IXAUN
Jatetxea

Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

- Gosariak
- Bazkariak
- Afariak
- Sagardotegiko menua
- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta
- Ogitartekoak
- Pintxoak
- Enkarguak

Oinatur arduratuko da turismo eskaintzaz

Turismo Bulegoa, Arrikruz eta errota kudeatuko ditu

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko turismoaren zerbitzu integrala eskaini gura du Udalak; hau da, enpresa bakar batek kudeatzea herriko turismo eskaintza. Helburu horrekin, deialdi publikoa egin zuen, eta Oinatur elkarte kooperatiba izan da aukeratua. "Bisitarietara begira, baina, honek ez die aldaketarik ekarriko. Orain arte bezala, telefonoz deitu eta erreserbak egin ditzaizkete, bai Turismo Bulegora deituta herria ikusteko, bai Arrikruzera deituta kobak bisitatu gura izanez gero", azaldu du Garapen eta Turismo Agentziako teknikari Ikerne Altubek. Udazkenetik aurrera, baina, proposamen eta eskaintza berriak egongo dira.



Turistak San Migel parrokia bisitatzen. | GOIENA

Sei langile

Bi enpresa aurkeztu ziren Udalak egindako deialdi publikora: Tantai eta Oinatur. Azken horri esleitu dio zerbitzua. "Bakoitzak aurkeztu duen zerbitzuaren kudeaketa, lan programa, hobekuntzak eta eskaintza ekonomikoa izan dira puntuatuak izan diren arloak", argitu du Altubek.

Aurrerantzean, beraz, Oinatur kooperatibak kudeatuko ditu herriko bi baliabide turistiko nagusiak eta San Migel errota. Enpresa berria izan arren, ber-

tako langileek ondo ezagutzen dute lana, lehen ere hor ibilitakoak dira eta gehienak. Horixe zen, gainera, bete beharreko baldintzetako bat. Hau da, Q kalitate turistikoa duen turismo bulego bat edota kobazulo turistikoa kudeatzen esperientzia izatea azken hiru urteetako bitan, gutxienez. Hala, lan horretan aritu diren gidariak daude Oinatur kooperatibaren sorreran.

Garapen eta Turismo Agentziako teknikari Ikerne Altubek

adierazi duen moduan, uztailaren 16an hasiko da Oinatur kooperatiba lanean. Bi urterako kontratua egingo zaio, beste bi luzatzeko aukerarekin.

Udako bisitak

Uztailaren astebururo egingo dituzte unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko bisita gidatuak, eta abuztuan, egunero. Arrikruz ere zabalik egongo da kobak barrutik ikusteko. Telefonoz ere egin daitezke erreserbak.

Bilduk "iruzur" egin nahi duela salatu du EAJk

Atez atekoak urtebetean emandako datuekin Bilduk egindako balorazioari erantzun dio EAJk

O.E. | OÑATI

Atez ateko hondakin biltze sistemaren urtebeteko balorazioa egiteko Bilduk "informazioa manipulatu" egin duela esan du, prentsa ohar bidez, Alderdi Jeltzaleak.

Jeltzaleek hau adierazi dute: "Bilduk balantzea egitean hondakinak biltzeko bi sistema desberdinen arteko datuak alderatu ditu, alderagarriak ez direnean". Horrekin batera, EAJko udal taldeak esan du "Bilduren inposaketaren ondorioz oñatiarrek esfortzu eta sakrifizio handia" egin behar izan dutela "gaikako biltzearen morroi bilakatu direlako".

Bosgarren edukiontzia

Jeltzaleek esan dute hondakin sistema desberdinak ezarrita zeuden epeetako datuak alde-

ratu dituela Bilduk, eta hori "informazio gardentasun eta zorroztasunaren aurkakoa da". Horregatik adierazi dute Bilduk oñatiarrei iruzur egin nahi diela. "Ezin baitute esan aurretik gaika %24 biltzen zela eta orain %83, aurreko sistemak organiko eta errefusa bananduta sailkatzea ahalbidetzen ez zuelako", Idoiak esan duenez. Bilduk balorazioan "hondakin turismoa" ez duela aipatu esan du EAJk.

Lourdes Idoiaga bozeramaile jeltzaleak gaineratu du "txalotzekoa" dela "oñatiarrek izandako jarrera eta prestutasuna inposatutako sistemaren aurrean, baina inbidiaz begiratu dituzte inguruko herriak". Horregatik, EAJk bosgarren edukiontzia alde jarraituko duela adierazi du.

Herri Eguneko artisau azokan egon gura duten herriko artisauek zabalik dute izen-ematea

Urriaren 4an izango da aurtengo Herri Eguna eta orduan egingo den artisau azokan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Kontuan hartuko diren irizpideen artean, oñatiarra izatea da bat. Zortzi toki egongo dira herritarren artean banatzeko, eta, horiek beteko ez balira, gainerako parte-hartzaileen artean banatuko lirarteke postuak. Artisau ziurtagiria izatea, egindako lanak kalitatezkoak izatea eta produktuak originalak izatea ere izango dira artisauen aukeraketa egiteko Udalak kontuan hartuko dituen beste irizpide batzuk. Proposamenak kultura etxean jasoko dira, posta elektronikoz, posta arrunt bidez edo eskura. Eskerak egiteko azken eguna, baina, uztailaren 20a da.

Errefusaren beherakada txalotu du Errazkinek

MIREN ARREGI | OÑATI

Udalak eta Oñatiko Zero Zabor taldeak elkarrekin antolatutako Zero Zabor astearren barruan, hondakinei buruz hitz egin zuten Iñaki Errazkin Ingurumen diputatuak eta Juan Karlos Alduntzin kultura etxean. Gipuzkoak hon-

dakin kudeaketara bideratuta izango dituen azpiegituren gainean aritu zen Errazkin, bereziki. Hori bakarrik ez, debagoiendarrak zoriontzeko ere baliatu zuen agerraldia. Izan ere, "errefusak nabarmen behera" egin du. Haren esanetan, 2013tik 2014ra Gipuzkoan

%11,3 jaitsi da: Debagoiengan aurtengo lehen lauhilekoan %27,2 egin du behera. Nabarmen behera egin duten eskualdeen artean dago Debagoiena. Beste biak dira Sasieta eta Tolosaldea. Hondakin kudeaketaren alorrean alderdi politikoen artean ika-mika nabarmenak egon dira eta daude gaur ere, eta gai horri heldu zion Alduntzinek. Haren ustez, klabe politikoak daude oinarrian: besteak beste, "presaz" hartutako erabakiak.



Iñaki Errazkin eta Juan Karlos Alduntzin kultura etxean. | MIREN ARREGI

Txandaren sari potoloak badu jabea

Amaia Palacios Guaman izan da herriko pertsonaien jolaseko sari potoloa irabazi duena: 100 euroko erosketa bonua. Argazkian, Txanda elkarteko Elisa Morenorekin eta Juan Carlos Aranbururekin ageri da, saria jasotzen. Parte-hartzaile guztiek jaso dute sari bana.



TXANDA

San Martinen alde egin dute aisialdirako ortua gura dutenek

Aisialdirako ortu publikoen eskaintzak 150 eskaera izan ditu. San Martin edo Torrealde ziren Udalak proposatutako tokiak. Gehienek San Martin aukeratu dute. Orain, izena eman duten herritarrekin harremanetan jarriko da Udala. Ortuak toki bakarrean edo bietan egongo diren ere erabakitzeke dago.

ZUZENKETA

Joan den asteko Oñatiko orrialde honetan bertan argitaratu genuen atez atekoaren errefusa %40 gutxiti dela. Eta %60 murriztu da, Udalak datuetan eman zuen moduan. Datuak ehunekotan jartzean egin genuen akatsa. Barkamena eskatu gura dugu sortu ahal izan diren gaizki-ulertuengatik.

Tatarraz taldea, patinetan ibili gura dutenendako

Irteerak, erakustaldia eta dantza egingo dituzte bihar, I. Patin Egunean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Patinzaleen taldea da Tatarraz, eta horixe du helburu, asteen behin elkartzea patin gainean ibiltzeko. "Badakigu Oñatin patinzale asko dagoela, eta biharko antolatu dugun festa horiek guztiak ezagutzeko ere aprobetxatu gura dugu, gura duena taldera batu dadin", dio Tatarraz taldeko kide Egoitz Atxagak.

Patinatzaile asko

Joan den udako kirol kanpainatik hona sortu da Tatarraz taldea. "Ikastaro hartan parte hartu genuenok harremanetan egon gara urte osoan, eta hockeyan jokatzeko edo bidegorrian patinetan ibiltzeko elkartu izan gara tarteka. Baina ikusita zale asko daudela, taldea egitea pentsatu genuen, asteen behin elkartu eta patinetan ibiltzeko", azaldu du Atxagak. Izan ere, aurtengo udako kirol kanpainan nagusi asko apuntatu dira patin ikastaroan: "Hobekuntza taldean, esaterako, 25 lagun ari dira eta hastapen taldean, beste hamar. Bidegorrian ere jende asko ikusten da patinetan. *Boom* handia dago, eta aprobetxatu egin behar da hori", dio aurtengo kirol kanpainako begirale ere baden Egoitz Atxaga oñatiarrak.

Beldurra uxatu

Zaletasun handia dagoen arren, patinetan ibiltzeari beldurra diotenak ere badira, pertsona nagusiak, batez ere. Horiei, beldurra alde batera uzteko gomendioa egiten die Atxagak: "Beldurra eduki egin behar da, bai, baina ez zaio utzi behar gain hartzen. Patinetan ibiltzen ikasi gura duena edo jakin eta ibili gura duena etor dadila guregana, guztiendako dago zabalik taldea".



Tatarraz taldeko kideak Zubikoa aurrean. | O.E.

bi ibilbide egingo dituzte, norberak aukeratzeko. "Hasiberriendako, adibidez, Madalenara joan-etorria izango da. Besteak Eloregeraino joango dira. Bakoitzak aukeratuko du noraino joan", azaldu du Atxagak. Bueltan, pintxoak eta musika izango dituzte Foruen plazan.

Bi ibilbide bihar

Hala, eta herriko patinzaleak elkartu eta patinetan ibiltzeko helburuarekin, I. Patin Eguna antolatu du Tatarraz taldeak biharko, zapatua. Egitarau osatua prestatu dute, gainera; irteera, dantza eta erakustaldia dituena, besteak beste.

Goizean bidegorrian ibiliko dira. 11:00etan elkartuko dira eta

Ondoko frontoian patin erakustaldia egingo dute, 13:00etan. "Oñatiko patinatzaile batzuek ariketa bat baino gehiago egingo dituzte; eslaloma eta abiadurazkoa, adibidez. Gero, dantza egingo dugu, eta helburua da ahalik eta jende gehien batzea dantzan. Patin gainean, noski", dio Atxagak. Bukatzeko, gura duten guztiek elkarrekin bazkalduko dute garagardo azokako karpan.

Limoiarekin eta alkohol gabe ere bai garagardoak

Domekara bitartean iraungo du dagoeneko hasi den Aloña Mendiren VIII. garagardo festak

O.E. | OÑATI

Bi nobedade nagusi ditu Aloña Mendiren aurtengo garagardo festak: alkohol gabeko garagardo eta limoia nahastuta duena ere zerbitzatzen ditu. "Guztira, hamar garagardo mota egongo dira aukeran", zehaztu du Anton Intzak, Aloña Mendi kirol elkarreko presidentea.

Txerria eta moxala

Garagardoarekin batera, baina, jatekoa ere badago Foruen plaza ondoko frontoian jarri duten karpan. "Urteroko karpa da, bai. 35 metro ditu luzeran eta 15 metro zabaleran. Mahaiak daude barruan eta hasierako urteetan eskaini genituen txerri-ukondoa eta saltxitxak jan ahal izango dira, adibidez, hantxe. Horrez gain, oilaskoak eta moxal-okela ere egongo da aukeratzeko. Estimazio handia izan

du okela horrek eta aurtun 200 kilo prestatuko ditugu", dio Antton Intzak.

Bestalde, pantaila erraldoia ere jarriko dutela baieztatu du Intzak: "Mundialeko partiduren bat edo beste jarriko dugu, akaso, baina elkarteko sekzioen argazki zaharrak eta egungoak eta bideoak botako ditugu".

Hamabi sail

Aloña Mendi kirol elkartean barruan dauden hamabi sailen artean antolatu dute festa, eta tabernako eta sukaldeko txandak ere antolatuta dituzte. Igeriketa saila ibili zen lehen zerbitzatzela lanak egiten eta futbolarik, saskibaloiarik, eskubaloiarik, txirrindularitzak, pilotak eta gehiagok jarraituko diote. Sail askotariko kideek eta gurasoek enkargatuta dituzte dagoeneko bazkariak.



Eguaztenerako muntatuta zuten karpa. | O.E.



La Banda del Abuelo taldeak hilaren 19an joko du gaztetxean. | GOIENA

Antzerkia, musika, irteera eta gehiago uztailean gaztetxean

M.B. | OÑATI

Ekintzaz lepo dator uztaileko egitaraua Antixena gaztetxean; asteburu honetan, esaterako, hitzordu bi daude: gaur, egubakoitza, Txiflano antzerki tailerrak *SOS Temible* antzez-lana taularatuko du, 20:30ean. Egungo errealitatearen parodia komikoa egingo dute aktoreek, gizakiok ditugun barne kontrastesak muturreraino erama-

manda. Bestalde, domekan, Etxepare Rap eta Eroa Naizen taldeek joko dute. (Ikusi 32. orria)

Zinema emanaldiak kanpoan

Horrez gain, martitzenetan zinema egongo da. Photoshop ikastaroa, mendi irteera Arabara, etorkinekin afari-tertulia, *jam* saioa eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Ganbara abesbatzak umeendako talde berria izango du datorren ikasturtean

M.B. | OÑATI

Ganbara abesbatzak *Zure ahotsaren bila* izeneko kanpaina aurkeztu du egunotan. Datorren ikasturteari begira taldeen banaketa berritu egin du; hala, aurrerantzean, txikitxoek bi taldetan egongo dira banatuta: 3 eta 4 urteko umetxoak Ganbara Hasiberriak taldean ibiliko dira eta eskolak

martitzenetan izango dira; Ganbara tailerra, berriz, 5 urtekoendako izango da eta saioak egunetan egingo dituzte.

Aldaketak

Gainerako taldeetan ere aldaketak daude adinekin dagokienez: Ganbara Txikitxoak taldean Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. mailakoak

ibiliko dira; Ganbara Txikin, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 3. mailara artekoak; eta Ganbara abesbatzan, azkenik, Batxilergo II-tik aurrerakoak. Astean birritan izango dituzte entseguak hiru talde horietako partaideek. Bestalde, *Ikastetxeak kantari* proiektuarekin aurrera jarraituko dute, ikastetxetan abesbatzen mundua bultzatzeko.

Irailaren 2an eta 3an da matrikulazioa, 17:30etik 19:00etara, Ganbara abesbatzaren lekuan.

Ingelesa ikasi eta jolas egin, dena batera

Hemeretzigarren urtez antolatu du Txantxiku ikastolak *Enjoy English* programa. Haur eta Lehen Hezkuntzako 25 ikaslek dihardute, zazpi taldetan banatuta, ingelesa ikasten, jolasean. Hilaren 18an egingo dute ikasitakoaren erakustaldia, Santa Anan.



TXANTXIKU IKASTOLA

Hondakin bilketa sistemaren gaineko kontsulta egiteko eskatuko dio plataformak Udalari

M.A. | ARETXABALETAKO

Bosgarren edukiontzia alderdiaren aldeko plataformako kideek uste dute aretxabaletarrak "ardurata eta kezkatuta" daudela atez ateko hondakin bilketa sistema dela-eta: "Sistema berriaren ezarpena kudeatzeko Udalak erabili duen bidearengatik edo sistema desberdinek herritarren ongizatean duten eta izango duten eraginagatik", diote.

Hori horrela, hondakin bilketa sistemaren gaineko herri kontsulta bultzatu gura dute, eta horren aldeko sinadurak jaso ostean, datorren astean aurkeztuko dituzte udaletxean horiek kontsulta egiteko eskaerarekin batera.

Mozioa iraileko osoko bilkuran Ekainean hasi ziren kontsultaren aldeko sinadurak jasotzen eta dagoeneko 1.800 dituzte. 810 behar zituzten eskaera egiteko (botoa emateko eskubidea dutenen %15), eta oso pozik daude "aise" gainditu dutelako hori: "Eskerrak eman nahi dizkiegu Aretxabaletako Udalari galdeketa egin dezan eskatzeko beharrezkoak diren sinadurak jasotzea posible egin duten herritar guztiei".

Plataformako kideek dagoeneko egin dute berba oposizio alderdiekin, eta EAJko eta PSE-EEko zinegotzien babesa jaso dute. Hala, mozio bitartez aurkeztuko dute kontsulta egiteko eskaera. Hauxe izango da eskaera hori: "Egun indarrean dagoen eta Aretxabaletako Udalak ezarri nahi duen etxe hondakin bilketa sistemen artean herritarren iritzia ezagutzeko herri-kontsulta antolatze eskatzen dugu hau sinatzen dugunok". Iraileko osoko bilkuran aurkeztuko dute hori. Eta argitu dute: "Herritarrei hitza ematea, eta, herri gisa erabakitzen duguna errespetatzea eskatzen dugu".

Badakite atez atekoa berehala datorrela, baina aurrera jarraituko dute: "Herritarren iritzia lehenestea eskatzen diegu udalbatzarreko alderdiei".

Alkatea haserre

Plataformako ordezkariak Arkupen bilera eginda eman die galdeketa egiteko asmoaren berri komunikabideei. Alkatea haserre agertu da horregatik, Arkupeko gelak erabiltzeko baimen eskaerarik ez duelako egin, eta "joko zikinean" dabilako "beste behin".

Kuadrillen arteko zarpiko futbol txapelketa jokatu dute 19an

M.A. | ARETXABALETAKO

Uztailaren 19an, zapatua, jokatu dute Ibarra futbol zelaian Aretxabaletako kirol elkarteak antolatutako Debagoieneko kuadrillen arteko zarpiko futbol txapelketa. Izen-emate epea dagoeneko zabalik dago. Hona bideak: Udaretxabaletako Twitter, Tuenti edo Facebook bidez; udaretxabaletake@gmail.com helbidean; edo Whatsapp bidez, 635 20 64 33 zenbakian. Izena ematearekin batera 100 euro sartu behar dira La Caixako kontu honetan: 2100 6838 42 0200011554. Azken eguna uztailaren 16a da, eguaztena.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra dago: 16 urte izatea (1998an jaiotakoak barne). Eta sariak dira: lehenengorendako, 600 euro; bigarrenarendako, 300 euro; eta hirugarrenarendako, 100 euro.

Jatekoa eta edatekoa

Dagoeneko hirugarren aldiz antolatu du UDak txapelketa, eta, aurrekoetan legez, jatekoa, edatekoa eta musika izango dira Ibarra partiduek iraun bitartean, baita sari bereziak ere. "Partidu politikak eta giro ona ez dira faltako beste behin", diote antolatzaileek.

Arrasate-Arlutz bigarren geratu da Eibarko xake bizkorreko txapelketan

M.A. | ARETXABALETAKO

Eibar Hiriko 30. xake bizkor txapelketa –Jose Mari Kruzeta memoriale– jokatu zuten joan den zapatuan eta Arrasate-Arlutz taldea bigarren geratu zen Grosen atzetik. 22 taldek jardun zuten norgehiagokan, sekula baino gehiagok, eta Leintz ibarreko xake jokalariek erakustaldi polita eskaini zuten.

Andoni Miguel eta Aitor Alcaide aretxabaletarrek eta Asier Etxagibel eta Txema Hernando arrasatearrek jardun zuten norgehiagokan Arrasate-Arlutz taldean, eta 63,5 puntu eskuratu, Grosekoek baino 2,5 gutxiago. "Gustura jardun genuen eta pozik itzuli gara, nahiz eta txapelketa luze joan", zioen Aitor Alcaidek.

Uztailaren 14an hasiko dira hondakinak atez ate jasotzen

Jakinarazi dute herritarren %90ek jaso dituztela Udalak banatutako ontziak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Dagoeneko jarri dute data atez ateko hondakin bilketa sistema abian jartzeko: uztailaren 14a, astelehena, hain zuzen. Hala iragarri du Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak. Sistema berria herri guztian jarriko da abian; hau da, bizilagunen artean, komertzioetan, industrian eta landa-gunean. Egun horretan, gainera, edukiontzi guztiak jasoko dituzte.

Ontzi gehienak jasota

"Atez ateko sistemaren inguruan, esan, Aretxabaletako herritarrek pozik egoteko moduan gaudela, aretxabaletarren %90ek jaso dituztelako banatu diren ontzi guztiak; Debagoienean, herritarrek jaso duten portzentaje handiena, hain zuzen ere", jakinarazi du Martinez Axpek. Hori horrela, Udal Gobernuak kideek eskerrak eman gura dizkiete herritarrei: "Eskerrak erakutsitako konpromisoagatik. Eta ziur gaude hondakinak ondo sailkatu eta Aretxabaletako birziklapeneraren herri eredu bilakatuko dugula guztion artean".

Batzarra etorkinekin

Atez atekoa abian jarri aurretik, uztailaren 9an etorkinekin batzarra egingo dute Arkupen, 18:00etan, aurretik gainerako herritarrekin egindako moduan. Helburua da Aretxabaletan bizi diren etorkinei atez ateko hondakin bilketa sistemaren gaineko argibideak ematea. "Eta ondo egin



Esekitokiak gertu ontziak hartzeko. | M.A.

nahi badugu eurak ere zati garrantzitsua direla jakinaraztea da gure asmoa", argitu du Ingurumen zinegotziak. Informatzaile batek emango dizkie azalpenak

gazteleraz, eta ulertzeko arazoak dituztenendako eta galderak erantzuten laguntzeko bi etorkin egongo direla itzultzaile lanak egiten iragarri du.

Hobariak konposta egiten dutenei

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zuten (Udal Gobernuaren baiezkoarekin) hobariak ematea konposta egiten duten herritarrei. Lau talde egin dituzte: %25eko hobaria izango dute zaborraren gaineko zergan auzokonposta eta autokonposta egiten duten herritar guztiak; %25eko hobaria, hondakinak ekarpen-gunera eramaten dituzten baserritarrek; %50eko hobaria, ekarpen-gunera eraman barik konposta etxean egiten duten baserritarrek; eta %60ko hobaria izango dute landa-guneko bizilagunek, auzoko bizilagun guztiak egiten badute konposta.

Laguntzak jasotzeko konposta egiten dela bermatu beharko da eta horretarako ikuskatzaile bat izango dela iragarri dute.

Udalekueetan 301 ume elkartu dira

Martitzenean hasi zituzten udaleku irekiak herriko 301 umek eta 31 begiralek, eta, egunotan eguraldia lagun ez izan arren, gustura dabilta jolasean eta irteerak eginda. Astelehenean, zuri jantzi eta San Fermin eguna ospatuko dute.



M.A.

Portasolgo jaiei laguntzeko diru eskaera egin dute

Uztailaren 18tik 20ra bitartean ospatuko dituzte Portasolgo jaiek. Eta, urtero legez, laguntza eskatu diete auzokideei. Laguntza hori gutun-azal batean sartu eta komertzio hauetan utz daiteke: Aretxabaletako okindegia (Juani); Imanol harategia; eta Brasileña kafetegia. Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete guztiei.



Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Iturgintza
Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak
Gas instalazioak
Energia berriztagarriak
Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak
Irisgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 06 49
www.amaiaberri.com
amaiaberri@amaiaberri.com

Datorren urtera arte agurtu dituzte sanpedroak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Amaitu dira aurtengo festak. Aste bukaera gogorraren ondoren, astelehenari umoretsu egin zioten aurre eskoriatzarrek. Goizean, umeak jolasean ibili ziren eta nagusienek Nafarroako jotak entzun zituzten; bazkaldurik ostean, batzuek musean jardun zuten eta beste batzuek

askotariko probak gaintitu behar izan zituzten Eskoriatzako laugarren bandera lortzeko. Katarsis taldearendako izan zen. Etxeko txikienek ere lana izan zuten, danborrak astindu behar izan zituztelako.

Martitzenean, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, eguerdian taloak eta sagardoa das-

tatzeko aukera izan zen, eta jarraian, bazkaria egin zen pilotalekuan. Bazkaldurik osteko I. Irrintzi Lehiaketan Iratxe Arrese izan zen onena.

Beñat Herce alkateak azaldu du "oso ondo" joan direla jaiak; zenbait ekintzaren partaidetza nabarmendu du, hala nola *Herrixa elkartzuz*, magoa, danborra-

da eta kuadrillen arteko jokoak. Bestalde, barkamena eskatu du martitzen gaueko kontzertua ez zelako plazan egin.

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



Umeak asteleheneko jokoetan.



Nafarroako doinuak ez dira falta izan, Alma Navarraren eskutik.



Eder to ibili ziren txikitxoak parkean.



Jendez lepo bete zen domekan Gorosarri plaza, *Herrixa elkartzuz* ikusteko.



Zazpi kuadrilla gogotik saiatu ziren jokoetan; Katarsis-ek irabazi zuen.



Barrakak, urteroko hitzordua.



Musika Eskolako dantzariak emanaldia egin zuten martitzenean.



Apurketak ere izan dira festetan.



Haurren danborradan, Eskoriatza Kirol Elkarteari eskainitako karroza.



Herriarrak taloak probatzeko getu.



Eta baita txurroak ere.



Bapo bazkaldurik zuten eskoriatzarrek martitzenean.



Buruhandien lasterketan Lander Villar izan zen azkarrena. | IMANOL GALLEGU

Amparo Sanchez eta J&P Brass Band, Errekan Gora jaialdian

Errekan Gora jaialdia hasiko da gaur. Amparanoia talde mitikoko Amparo Sanchezek *Alma de Cantaora* lana aukertuko du, 22:30ean, Huhezin. Bihar, zapatua, berriz, J&P Brass Band izango da; arratsaldean herriko kaleetan ibiliko da Iruñeko haize-taldea, kamioi baten gainera igota; eta 22:30ean kontzertua eskainiko du plazan.

Arantza Iregik alkate moduan jardungo du uztailaren 20ra arte

Eskoriatzako alkate Beñat Herce bere eginbeharrak lehenengo alkateorde Arantza Iregiren esku utziko ditu bihartik uztailaren 20ra bitartean, biak barne. Eskoriatzarrek jakinarene gainean egon daitezen, ordezkatzeko horren erabakiaren berri eman da egunotan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta baita herriko iragarki-taulan ere.

Tren geltokian izango dira bihar goizean igoerako autoak

Arlabango mendatean egingo dute bihar auto igoera. Lasterketa 15:00etan hasiko bada ere, bi ordu lehenago itxiko dute errepidea. Sari banaketa, berriz, plazan izango da, 20:00 aldera. Antolatzaileek jakinarazi dute proban parte hartuko duten autoak ikusgai egongo direla goizean, herriko tren geltoki zaharrean; eta ilunkean, plazan bertan.

Udako zapatu arratsaldeetan ez dago mezarik egoitzan

Uztailaren, abuztuaren eta irailaren aldaketak egongo dira herriko mezen ordutegian; esaterako, aurrerantzean, zapatu arratsaldeetan meza bakarra izango da herrian: hain justu, 19:00etan, parrokiaren. Ordubetik lehenago zaharren egoitzan egiten zena ez da egingo uda partean. Domeketan, betiko moduan, 12:30ean izango da meza, parrokiaren.

Gaur amaitzen da txalaparta ikastaroan izena emateko epea

Uztailaren 9tik 11ra bitartean, 18:30etik 20:30era, Ibarraundi museoan egingo den txalaparta ikastaroan izena eman daiteke gaur arte, herriko kultura etxean, euskara@eskoriatza.net postan edo 943 71 46 88 telefono zenbakian. Joseba Beristainek eta Josu Andonegik eskainiko dituzten eskolak jasotzeagatik bost euro ordaindu behar dira.

Euskal kutxen etorkizunari buruzko eztabaida bilkuran

Eguzki eta Beheko auzoetako hitzarmen proposamena onartuta geratu da

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzen arratsaldean egin zuen udalbatzak osoko bilkura. EHBil-duk aurkeztutako Euskal kutxen etorkizunari buruzko mozioak eragin zuen eztabaida nagusia. EAJ alderdiko bi zinegotziek aurkako botoa eman zuten. Izan ere, Maria Eugenia Arrizabalagak mozioak proposatutako hainbat neurri legearen aurkakoak direla azaldu zuen. Eta legea bete beharraren ondorioz, Kutxa fundazio bilakatzearen beharra azpimarratu zuen. "Kutxa ez bada fundazio bilakatzen, legeak esaten duena da desegin egin dezaketela. Gure finantza erakunde garrantzitsuenaren erabateko kontrola galduko genuke, gainera, gipuzkoarrok", azaldu du.

Ima Beristain alkateak, aldiz, ez dela herriaren interesa bultzatzeko erabakia adierazi zuen. "Erabakita dute kudeaketa lanak egiteko hamabost lagunek osatutako patronatua zein izango den. Aldundia eta Udalak ordezkaturako dituztenak, aldiz, hiru lagun dira. Hala patronatuaren erabaki adostuen aurrean lan egitea zaila izango da. Ez dut uste herriaren interesa bultzatzeko hartutako erabakia izan



Martitzen arratsaldean egin zuten osoko bilkura Antzuolan. | MAIDER ARREGI

denik", nabarmendu zuen alkateak.

Euskal presoen sakabanaketa politikari buruzko mozioa ere ez zen aho batez onartu. Jeltzaleak abstenitu egin ziren. "Ezohiko espetxeetako neurrien kontra gaude, baina mozioan jendea elkarretaratze eta manifestazioetara deitzen da", argudiatu zuen Arrizabalagak. "Udalak herritarrek mobilizazioetara deitzea garrantzitsua dela uste dugu", esan zuen Beristainek.

Aho batez onartuak

Bestetik, adostasun osoz onartu zen Esait-ek euskal selekzioa ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehia dadin aldarrikatzen duen mozioa.

Zortzi aldeko boto jaso zituen Eguzki auzoko eta Beheko auzoko garajeen mantenurako hitzarmen proposamenak. Izan ere, auzo horietako garajeen erabilera arauak eguneratu beharra zeudela esan zuen alkateak.

San Martzial jaiei jarraipena emango zaie asteburuan Lizarraga auzoan

M.A. | ANTZUOLA

Astelehenean abiatu zituzten San Martzial jaiak. Bihar, umeendako eguna izango da eta puzgarria eta ohe elastikoa jarriko dituzte. 16:30ean, plater tiroketa egingo da. 18:00etan, txokolate-jana eta Oihulariren antzezlan berria ikusteko aukera izango da: *Al trote-Trostan*. 21:00etan, herri afaria egingo dute; ondoren,

suzko erruberak eta izozkia. Eikasia trikiti taldeak gau giroa alaituko du. Domekan, txirrindulari igoera egingo dute. Eguerdian, meza San Martin ermitan eta ostean, salda eta luntxa izango da. Jarraian, Oinarinekoek dantza saioa egingo dute. 16:00etan, Gau alai taldearekin erromeria eta 18:00etan, herri kirolak.

Larrain-dantza egiteko entseguetan izena eman dezakete herritarrek

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako jaietako domekan, uztailearen 20an, larrain-dantza egingo da, Oinarin dantza taldeak antolatuta. Bertan parte hartu nahi dutenek bi entsegu egiteko aukera dute datorren astean. Entseguak martitzentan egingo dira: uztailearen 8an

eta 15ean. Biak arratsaldeko zortzietan, eskolan.

Patata tortilla lehiaketa

Antzuolan jaio edo bizi direnek har dezakete parte. Eta izena eman nahi duenak uztailearen 11ra arte du, udaletxera deituta: 943 76 62 46.

Giza katearen balorazioa egin dute

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako Gure Esku Dagok bilera irekia egin du, ekainaren 8an Antzuolan egindako giza

katearen kilometroaren gaineko balorazioa egiteko. Solasaldi emankorra izan zela azpimarratu dute antolatzaileek. "Ilusioa,

indar sentazioa, balorazio positiboa, aniztasuna, emozioa... halako hitzak aipatu dira bileran", kontatu du Jon Ugarteburu kideak. Arrasateko bilera nazionalean plazaratu zen orri zuriaren nondik norakoez ere hitz egin genuen. Etorkizuneari zer? Eta etorkizuneari nola? Galdera horiek egin genizkien bilerara etorritakoei. Izan ere, irailaren 7an egingo den batzar nazionalean bi galdera horiek garatu behar dira. Erabakia herriarena dela deritzoguz, bi galdera hauen garapenaren lehen pausoa burutzea planteatu genuen bilera irekian".

Hurrengo bilera hilaren 10ean egingo deitu dute. Orlaranen izango da, 21:00etan hasita.



Herritarrek giza katearen gaineko bilera irekian. | JON UGARTEBURU



JABI ETXANIZ

Elkartasuna Kongori eta Senegali

Kalebarrengo jaietan 300 elkartasun-pintxo banatu zituen Anelkarrek. Kongoko eta Senegalgo proiektuak bultzatzeko bideratuko dute jasotako laguntza -450 euro-. Argazki zaharren erakusketak ere harrera ona izan zuen. 100 argazki jarri zituzten.

'Antzuola ereinaz' udal buletinaren hirugarren zenbakia kalean da

Elkarbizitza eta herritarren parte-hartzea azpimarratu dira kaleratu berri den hirugarren zenbakian. "Udalak eskertzen du herritarren auzolana; bidea hori dela ikusten dugu gure herria aurrera ateratzeko. Horregatik, aldizkari hau egiten lagundu digutenei eskerrik asko", azaldu du Udalak.

Kirol Elkarteak urteko batzar nagusia deitu du uztailearen 11rako

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzar nagusia deitu du uztailearen 11rako. Bi deialdi egingo dituzte: 18:30ean eta 19:00etan, Orlaranen. Aurten denboraldiko diru sarrera-irteeren aurkezpena egingo dute. Datorren denboraldiko aurrekontuak eta kuoten igorraz ere jardungo dute batzarraren.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Triki Kalejira taldekoak kalejiran iazko San Martin jaien hasieran, Nardeaga kalean barrena. | TRIKI KALEJIRA TALDEA

Ospakizuna eta jaia non, Triki Kalejira taldea han

San Martin jaiak hasteko, pregoia irakurriko dute gaur udaletxetik (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Gaur bertan hasiko diren San Martin jaiak aitzakia ezin hobea dira Triki Kalejira taldea nabarmentzeko. Ez bakarrik aurtengo

jai nagusiei hasiera emango dietelako, baizik eta urteko edozein ospakizunetan parte hartzeko prest egoten direlako. Hori bai, gaurkoa egun berezia izango denik

ezin da ukatu: "Berezia eta polita izango da gaurkoa. Izan ere, udaletxeko balkoira igoko dira taldea sortu zuten hiru guraso sortzaileak eta lehengo zein orain-

go irakasleak. Ni ere bertan egongo naiz, zuzendaritzan nagoelako", adierazi du azken urteetan diruzaina izan den Yoli Sillerok -datoarren urtean beste batengan utziko du kargua-. Gaur balkoian egongo diren artean daude Rosi Kortabarria, Angel Mari Lopez de Bergara eta Juan Luis Nafarrate; Gurutze Uribarren irakasle ohia ere bertan egongo da.

Beti laguntzeko gertu

Triki Kalejira taldean, ikasleei dagokienez, hamazortzi trikitilari eta hamabi pandero-jotzaile daude: "Hainbat kide gara taldean, osasuntsu gaude. Ikasleek inizatiba handia dute eta proposatzen dutena kontuan hartzen da. Taldea ondo doa, gero eta hobeto. Giro eder honekin jarrai dezagula!"

Trikiti taldeak parte hartzen duen ekintzen zerrenda luzea da. Sagardo denboraldian, zapatu eta domeketan bazkalosteak alaitzen dira Iturrieta sagardotegian. Herriko jai nagusietan -aurten protagonismo bereziarekin, gainera- jotzeaz aparte, Ararustean kalejira egiten dute eta trikitilarien topaketa guztietara joateko ohitura dute: "Oso aktiboak gara. Beste kultura talderen batek

ESANAK

"Ikasleek inizatiba dute; giro eder honek jarrai dezala!"

YOLI SILLERO | DIRUZAINA

edozer gauza proposatzen duela, normalean prest agertzen gara laguntzeko". Prestutasun horren emaitza da, besteak beste, azken bi urteetan egin dute Santa Agedako ospakizun berezia; trikitilariak, bertsolariek eta Bizente Goikoetxea abesbatzakoek bultzada nabarmena eman diote Santa Ageda batzeari, talde guztiak eskutik helduta: "Oso ondo egon zen", gogoratzen du Sillerok.

Pregoa nork irakurriko du?

Pregoa nork irakurriko duen ez dute oraindik erabaki: "Ez dugu erabaki nork hartuko duen hitza. Oso motza izango da, hori bai. Ni ez naiz ausartzen... Gainera, azkena naiz hori egiteko. Sortzaileen batek irakurri beharko du...", adierazi du, lotsati, Sillerok.

Sexu Askapenaren Aldeko Nazioarteko Egunarekin bat egin du Udalak, eta bandera udaletxean jarri

Ekainaren 28an Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna ospatu zela-eta, Aramaio Udalak bat egin du aldarrikapen egun horrekin. Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideen alde egiten dutela erakusteko, Udaleko ordezkariak egun horren ikurretako bat den bandera jarri zuten udaletxeko balkoian. Hala, hetero-arauaren eta sistema patriarkalak ezarritako aginduen aurrean norberaren gorputza eta sexu praktikak modu askean egiteko eskubidea aldarrikatu dute.



Sexu askapenaren aldeko bandera udaletxeko balkoian, asteon. | UDALA

Festak direla-eta kultura etxeko aparkalekua ezin izango da erabili, barrakak jarri behar dituztelako

San Martin jaiak direla-eta kultura etxe atzeko aparkalekua ezin izango da erabili. Izan ere, urtero moduan, bertan jarri behar dituzte barrakak. Txosnagunea eta bertako agertokia direla-eta parkearen inguruko aparkalekuak ezin izango dira erabili eta zenbait kale ere itxiko dituzte. Hau da, autoek ezin izango dute bertatik ibili. Udalak barkamena eskatu du, alde aurretik, sor daitezkeen eragozpenengatik.

Sastiñako kontzertuen balorazio positiboa egin du Udalak; musika emanaldiak irailean bueltatuko dira

Ekaineko egubakoitz guztietan kultura eskaintza protagonista izan da aurtengo ere, eta Udalak kontzertuen balorazio positiboa egin du: "Kontzertu guztietan jende askotxo elkartu da eta giro ona sortu du. Pozik gaude taldeen mailarekin eta saioek izan duten harrerarekin". Irailean bueltatuko dira Sastiñako egubakoitzak; besteak beste, The Romanticos taldeak joko du.



Aragoira bisita, biomasa dela-eta

Ramon Ajuria alkatea, EAJko Iñaki Nafarrate, Udaleko beste zenbait langile eta Arabako Diputazioko Mendi Saileko hiru ordezkari Ansoko (Aragoi) biomasa instalazio baten egon dira asteon. Alkatearen arabera, bisita "garrantzitsua eta aberasgarria" izan zen. Irailean hasiko dute sentsibilizazio kanpaina.



'Fracking'-aren aurka sinadura bilketa ibiltaria egin dute

Fracking-aren aurkako Herri Ekimen Legegilearen barruan, sinadurak batzen ari dira *Fracking Ez!* plataformako kideak. Modu ibiltarian dabilta, bizikletaz. Gasteizen hasi zen martxa, astelehenean, eta Gasteizen bertan amaituko da, uztailearen 6an. 30.000 sinadura batu behar dituzte, gutxienez, Legebiltzarrean tramitatu ahal izateko: "Kopuru horretara iritsiko gara; zenbat eta sinadura gehiago, orduan eta indar handiagoa erakutsiko dugu Parlamentuan", dio plataformako kide Luis Casadok.

AGURRA

RAMON AJURIA
Aramaioko alkatea



Gure izaeraz harro gaude!

Zein azkar pasatu den denbora, ezta? Badirudi atzo izan zirela, baina dagoeneko 365 egun igaro dira eta hementxe ditugu aurtengo sanmartinak. Egun alaiak dira; irribarretsu, ondo pasatzeko egunak!

Festa hauek elkarrenganako eskubideak errespetatzeko gozatzea espero dut, denok batera, berdintasunean oinarrituta.

Bestalde, gogoan izango ditugu egun hauetan, arrazoi ezberdinak direla medio, herrian egongo ez diren familiarteko eta lagun kuttunak. Gogoan izango ditugu!

Era berean, pozgarria da azken urte honetan libre geratu direla askatasunik gabe zeuden bi herritarrak, nahiz eta badakigun oraindik euskaldun asko bizitza normala errekuperatzeko zain daudela.

Une hauetan gure herri sentimendua aldarrikatu nahi dut. Zentzu honetan, nire izenean eta korporazioaren izenean adierazi nahi dizuet harro gaudela aramaioarrak garelako, Euskal Herrikoak, *Basque Country*-ko partaideak.

Bukatzeko, ezinbestekoa da Jai Batzordeak egin duen lana eskertzea, herriko taldeek osatuta egitarau aberatsa eta ederra osatu dute-eta. Seguru denon gustukoa izango dela!

Gora sanmartinak!

Jaietako egitaraua

EGUBAKOITZA

4

19:00 TXUPINAZOA eta PREGOIA Triki Kalejira taldeko kideen eskutik.

19:05 Trikitixa taldearen KALEJIRA. Eskolako kideek alaituko dituzte jaien lehen minutuak.

19:05 POTELO ANIMATUA Gazte Asanbladaren eskutik.

19:05 Herriko txistulariekin KALEJIRA.

20:00 Papargorri eskolaniaren KONTZERTUA kultura etxean.

20:00 TXOSNEN IREKIERA.

23:00 ERROMERIA Bizente Goikoetxea plazan: JOSELU ANAIK.

23:30 KONTZERTUAK txosnetan: AMD, Dolce Tangana eta Glaukoma.

ZAPATUA

5

12:00 Umeendako APAR FESTA Bizente Goikoetxea plazan.

12:30 PATATA-TORTILLA TXAPELKETA Bizente Goikoetxea plazan. Patatak, gazta, olio eta arrautzak antolakuntzak jarriko ditu.

12:30 Bihotzarrak TXARANGA herrian zehar, Vital Kutzak eskainita.

17:00 PLATER TIROKETA TXAPELKETA, Kurtzetagain elkarteak antolatuta.

17:00 BRISKA eta MUS TXAPELKETA Alaiak erretiratuak elkartearen lokalean. Irabazleek Udaleko ordezkarien aurka jokatuko dute. Hiru bikote onenendako sariak:

gazta eta sagardo botilak.

18:00 ERROMERIA Bizente Goikoetxea plazan, Gau Alai taldearekin.

23:00 ERROMERIA Bizente Goikoetxea plazan, Gau Alai taldearekin.

23:30 ROCK KONTZERTUAK Bizente Goikoetxea plazan: Bad Sound System eta Gose.

Gauean zehar Alkohol testing-a.

DOMEKA

6

11:00 DIANA herriko txistulariekin.

12:00 MEZA NAGUSIA San Martin elizan, Bizente Goikoetxea ABESBATZAK lagunduta.

13:00 Lagunartea dantza taldearen DANTZA EMANALDIA.

17:00 JOLASPARKEA parkean.

18:00 HERRI KIROLAK Bizente

Goikoetxea plazan. GIZA PROBAK.

20:00 Saltoka dantza taldearen DANTZA EMANALDIA Bizente Goikoetxea plazan.

22:30 Aramaioko ekonomia sustatzeko proiektuaren AURKEZPENA San Martin elizako eskaileretan. Ondoren, BERBAPASIE txosnetan.

ASTELEHENA

7

11:00 Gazte Asanbladak antolatuta, UMEENDAKO JOLASAK.

13:00 Kondaira baten truke EMANALDIA Bizente Goikoetxea plazan, Patata Tropikalaren eskutik.

16:00 KUADRILLEN ARTEKO PIKEA parkean, Gazte Asanbladak antolatuta.

19:00 Arrasate Musikalen KONTZERTUA kultura etxean.

21:30 HERRI AFARIA Bizente Goikoetxea plazan. Ondoren, ANIMAZIOA Tamsa Afrikako Samba taldearen eskutik.

01:00 DJ Mikelen eskutik, SUSTRAI DOINUAK. Ondoren, URREZKO GIBELAREN sari banaketa, parranda-zale onenari.



Jaiak agurtzeko herri afarian hainbat herritar mozerrotzen dira urtero. | GOIENA

Iazko zapia berrerabiltzeko dei egin du jai batzordeak

J.B. | ARAMAIO

Aurten ere parte-hartze prozesu baten ostean antolatu dira sanmartinak. Jai batzordeak barik oso zaila izango litzateke haur, gazte zein helduendako jai egitarau bat prestatzea, eta, horregatik, aurten ere Udalak eskerrak eman gura dizkie festak antolatzeko lanean ibili diren norbanako eta taldeei. Jai batzordearen arabera, hainbat izan dira ekarpena egin duten elkarteak: "Urtean zehar egin duten lanaz aparte, euren ekarpena egin diete jai, festoi kolore gehiago emanez eta herrikoia goaz bihurtuz".

Jai batzordeak dei egin du iazko zapia armairutik atera eta aurten ere janzteko: "Aurten ere jaiak sanferminen bueltan tokatzen direnez eta gauzak berrerabiltzea eta aprobetxatzea sana denez, iazko zapiak ateratzea proposatzen dizuegu". Iaz saldu ez ziren batzuk aurten ere jarriko dituzte salgai.

Triki Kalejira taldeari keinua

Aurten, Triki Kalejira taldea omendu gura izan dute: "Urteko beste egunetan ere kolorea eta doinua jarri duen, jartzen duen eta jarriko duen taldea omendu gura izan dugu. Urteotan jende asko pasa da Triki Kalejira taldetik eta oraindik osasuntsu eta indartsu jarraitzen dute. Eskerrik asko eta zorionak guztiei!"

SAN MARTIN JAIK 2014 ARAMAIO

Uztailaren 4, 5, 6 eta 7

"Aramaioko Udaltzatzen Jai zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudetenoi!"



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 16 • udala@aramaio.org
www.aramaio.org

ERASO SEXISTARIK EZ!
TRATU ONA, DENENTZAT ONA

FRACKING EZ

AHT gelditu!

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA





Gose taldeko Ines Osinaga, atzean Osoron duela. | IMANOL SORIANO

Ska, reggae, rock eta trikiti doinuak izango dira jaietan

Gose talde arrasatearra izango da bihar plazan, 23:30ean, Bad Sound System taldeak lagun eginda

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Zer dira gero jaiak musika-rik gabe! Eta aurtengo San Martin jaietan ere tarte zabala izango du. Gaur, jaiak zabaltzeko, kontzertu bikoitza izango da gustu guztiak asetzeko. Joselu anaiek erromeria giroa sortuko dute plazan, 23:00etan, eta gura beste dantza egiteko aukera izango dute herritarrek.

Txosnetan, 23:30ean, osterara, doinu biziagoak izango dira hiru talderen eskutik: Arrasateko AMD; Tolosa, Ibarra eta Villabonako gazteek osatutako Dolce Tangana; eta Tolosako Glaukoma. Ska, reggae eta rap doinuak izango dira nagusi, rockarekin batera. Eta txosnak ere dantzan egiteko gune bilakatuko dira.

Ines Osinagaren trikitia

Bihar, osterara, Bihotzatarrak txar-rangak alaituko ditu herriko bazterrak eguerdi partean, 12:30ean; eta arratsaldean erromeria izango da plazan, Gau Alai taldearekin. Aurten, lehenengoz, bi zatitan egingo dute erromeria: 18:00etan eta 23:00etan.

Kontzertu nagusia, baina, Gosek eskainiko du. Herbehereetako Tilburg hirian egon berri da, Festival Mundial jaialdian, eta bihar Bizente Goikoetxea plazan izango da, 23:30ean. Ines Osinagaren trikiti doinuak oinarri dituzten kantu biziak ekarriko dituzte, betiko moduan, ironiaz betetako letrekin osatuta. Apirilean Gose & The Family izenarekin kaleratutako *Bonberenea sessions* DVDan jasotako kantuak eskainiko dituzte –horien artean, *Hil da Europa*–, eta tartekatuko dituzte dagoeneko oso ezagunak diren beste askorekin: *Hey boy!* eta *Lokartu arte*, besteak beste.

Horien aurretik Irungo Mosku auzoan jaiotako Bad Sound System kolektiboaren ekitaldia izango da. Dagoeneko hamar urte pasatu dira *Buiaka* lehen diskoa kaleratu zutenetik, baina betiko doinuekin etorriko dira: reggaea, hip-hop, ska elektronikoa...

Afrikako doinuak eta DJa

Domekan dantza-plaza eskainiko du Saltoka taldeak, 20:00etan, plazan; hau da, gidatutako euskal dantzen saioa. Eta astelehenean, hilak 7, hiru ekitaldi guztiz ezberdinak izango dira: batetik, Arrasate Musikaleko musikarien emanaldia kultura etxean, 19:00etan; bestetik, Tamsa Afrikan Samba perkusio taldearen saioa, 21:30ean, herri afaria Afrikako doinuekin girotzeko; eta jaiak agurtzeko, Mikel (Sustrai doinuak) DJaren emanaldia, 01:00etan, txosnetan.

Astelehena girotzeko, kuadrillen arteko pikea

Goiz parterako umeendako jolasak antolatuko dituzte Gazte Asanbladako kideek, beste behin

M.A. | ARAMAIO

Gazte Asanbladako kideak ere bete-betean sartuko dira jaiotan, eta gaur, txupina bota orduko, zabalduko dituzte txosnak. Ondoren, poteoan joango dira trikitalariak lagun hartuta.

Domekan, osterara, *Berbapasio* lehiaketa egingo dute. Telebistan oinarri duen lehiaketa txosnetako izar bihurtu da azken urteotan: "Barre egin eta ondo pasatzeko momentua izaten da", jakinarazi du Aitor Zabalak, Gazte Asanbladako kideak.

Berrikuntzak jokoetan

Kuadrillen Eguna zehaztu barik egon arren jaien egitarauan, astelehena da, zalantza barik, kuadrillek elkartu eta ondo pasatzeko eguna.

Goizean, 11:00etan, umeen jolasak gidatuko dituzte Asanbladako kideek. Eguraldi ona

bada parkean elkartuko dira eta betiko jolasekin gozatzeko aukera izango dute.

Eta arratsaldean, 16:00etan, kuadrillen arteko pikea izango da. Ez dago aurrez izena eman beharrik; hortaz, kuadrillak parkean agertzea nahikoa da jokoetan jarduteko. Aurreko urteetan lau edo bost elkartu izan dira, eta aurten ere horiek, behintzat, izango direlakoan daude antolatzaileak. Jokoei dagokienez, berrikuntzak daukela iragarri dute, baina ez dute aurreratu gura izan. Irabazleek, ohi legez, txapela eskuratuko dute. "Eguraldiak zeresan handia du, eta, ona eginez gero, aparteko giroa sortzen da", argitu du Zabalak. Edozelan ere, kuadrillak ez dira kikilduko, eta jokoak aitzakia hartuta jaiak ondo baino hobeto ospatzeko gozoz izango dira.



Gazteak hankekin oholak eraman guran. | MIREN ARREGI



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, koop. e.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 POSTA KUTXA
20500 ARRASATE



Tel.: 945 45 01 00
Faxa: 945 45 03 15

EKI TABERNA

Razioak, ogitartekoak, hanburgesak eta entsaladak ostiral eta larunbat gauetan.

Aurretik enkargatuz gero bazkari eta afariak.

ondo pasatu jaikek!

Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 59 88

dukiena
J A T E T X E A

ONDO PASATU JAIXETAN!

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO



ELGETA



Herritar taldea izako herri bazkarian topa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Bihar, zapatua, egingo du udalbatzak soka-dantza

Domekan, berriz, urteroko feria izango da Elgetan; herriko dozena bat lagunek ipiniko dute postua

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bixamon Eguna da gaur Elgetan. Atzo hasi ziren jaiak, eta mozo-rotuta egin zuten festa herritarrek. Gaur, barikua, umeak eta erretiratuak dira protagonista. Iluntzean, Oihan Vegak eta Hesian taldeak girotuko dute plaza.

Bihar, zapatua, baserritar jantziko dira elgetarrak. Asto lasterketa, jaioberriei ongiatorria, udalbatzaren soka-dantza —berrikuntza—, umeen dantza saioa eta herri bazkaria daude egitarauan. Iluntzeko erromeria, berriz, Egan taldeak egingo du.

Ferixa, domekan

Plazan 40 bat saltzailek ipiniko dute postua, eta artisauek 23 izango dira; tardean, Elgetako Lorena Ibeas, Sonia Miranda, Jose Felix Larrañaga, Lorea Arantzeta eta Pili Arin. Makineria eta kinkila postuak ez dira falta izango, eta Berraondokoan 19 idi pare, ehun bat behi, 22 zaldi eta 19 ardi egongo dira ikusgai. Elgetatik Enrike Astola, Agustin Beretxinaga, Roberto Basauri, Garbiñe Ormaetxea, David Barquero, Mikel Arkarazo eta Josune Sarasketa izango dira.

Erdigunea oinezkoendako

Urtero moduan, Elgetako Ferixa Nagusian moztu egingo dute zirkulazioa Bergara eta Elorrio lotzen dituen GI-2632 errepidean. Hala, oinezkoen erabilereko izango da erdigunea. Atzo, eguna, moztu zuten zirkulazioa eta horrela jarraituko du domekako 20:00ak arte. Torrealdeko sargunetik eta Salvador kaleko atzeko aldetik egingo da desbideraketa. Jaietan, taxibus eta autobus geltokia Berraondokora lekualdatu dute.

Lanak egingo dituzte Ozkarbi elkarteak

Astelehenetik abuztu hasierara elkarteak itxita egongo da; epe horretan egingo dituzte lanak

L.Z. | ELGETA

Hobekuntza lan garrantzitsuak egingo dituzte Ozkarbi elkarteak astelehenetik aurrera. Zuzendaritza batzordeak aditzera eman duenez, mantentze-lanak izango dira, gehienbat. "Leihoak aldatuko ditugu, lehenengo solairuko komunak berritu egingo ditugu, eta sukaldean ere egingo ditugu hobekuntza lanak", adierazi du batzordeko presidente Etor Zubiaurrek. Esan dutenez, beheko solairuan ere egingo dituzte zenbait aldaketa, batez ere sarreran dagoen barrari dagokionez.

Ozkarbiko zuzendaritza batzordea eguazten iluntzeetan elkartzen da, eta, azkenaldian, lanok noiz eta nola egin erabakitzen eman dituzte hainbat bilera. Eraikinaren jabetza baserritarren kooperatibarena da, eta alde biek akordioa egin

dute lanekin aurrera egiteko. Bada, Zubiaurrek adierazi duenez, elkarteak "txukundu" egingo dute.

Lau astez itxita

Ozkarbik 200 bat bazkide ditu gaur egun, eta elkarteak herriko erretiratuak goiztu ere bada. Hala, erabiltzaileen kopurua handia da. Datozen lau asteetan, baina, elkarteak itxita egongo da, eta erabiltzaileak ezin izango dira bertara sartu lanak amaitu bitartean. Zuzendaritza taldeak pentsatu dute hobe dela lanak hasi eta amaitzea, zatika egitea baino. Hortaz, herriko jaiak pasa arte itxarotzea erabaki zuten. Gauzak ondo bidean, lanak amaituta beharko lukete abuztuko lehen aste bukaerarako. Hori da, behintzat, zuzendaritza taldeak hasiera batean mahai gainean daukan epea.



Ozkarbi elkarteko sukaldean merienda prestatzen. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Hasi dira udaleku "kooperatiboak", 16 neska-mutikok osatutako taldearekin

3 eta 10 urte bitarteko umeak elkarrekin ibiliko dira datozen hiru asteotan Leintz Gatzagako bazterretan, goizez eta arratsaldez

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Beñat Agirreurreta eta Garazi Orobengoa begiraleen zaintzapean eta gidaritzapean, egunean lau orduz (11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara) eskulanak, txangoak, San Fermin eguneko entzierroa, *Zikinblay* eguna, ogia eta beste makinatxo bat ekimen egingo dituzte oraingo astean hasi eta uztailearen 18an bukatuko diren udalekuetan izena eman duten neska-mutikoek.

Ekitaldiotako asko berriak dira, Agirreurretak esandako moduan, iazkoak ez errepikatze aldera aldatutakoak. Eta horien artean, azken eguneko irteera da, akaso, aipagarriena: Dorletara barik (iaz kanpinean joan ziren bertara) Gaztainuzketako txaboletara joango dira gaua pasatzera: "Nik dudak esperientzia da mutikoa nintzenezan ber-



Udalekuetako taldea, begiraleekin, 12 Tutuko Iturriaren aurrean. | AGIRREURRETA

tara joaten ginela lotara eta oso ondo pasatzen genuela, eta nik uste dut oraingoak eurak ere ondo ibiliko direla Gaztainuzketan", dio begirale gazteak.

Hortik aparte, Gatzagako udalekuek duten berezitasun nabarmena da neska-mutiko guztiak batera ibiltzen direla, talde bakarrean, eta ez adinka banatuta,

gainontzeko herri ia guztietan egiten duten modura.

Denondako mesede

Hori onuragarria dela uste du Agirreurretak: "Nagusienek txikienei laguntzen diete, eta, hala, txikiendako eredu dira nagusiak, eta eurak nagusi egitean uste dut ondo etorriko zaiela eredu bat izatea. Nagusiek, berriz, ikasten dute erantzukizunez jarduten. Denon artean kooperatibismoa lantzen da. Denok bat izatea ona da, ez dezaten pentsatu, adibidez: 'Nik 9 urte ditudalako 3 urtekoa baino gehiago naiz'. Zaharragoa bai, baina gehiago ez... Ikusten da txikienek ekin-tza batzuk ez dituztela nagusiek bezain ondo egiten. Baina elkarrekin egotea denondako da aberasgarria. Neska-mutikoen artean ez dago giro txarrik, elkarren artean ondo konpontzen dira... Ni, adibidez, 1994an jaiotako bakarra naiz Gatzagan. Horrez aparte, konfiantza handiagoa ere hartzen da. Hemen, adibidez, normala da 3 urteko ume bat bakarrik ikustea kalean. Hori beste herri batzuetan ez da horrela. Ni horrela bizi izan naiz, gehiago gustatzen zait hori".

LEINTZ GATZAGA

San Martin auzoko jaiak ospatuko dute etzi, domeka

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Uztailako lehen domekak San Martin auzoko ospakizuna dakar Gatzagan, eta aurten ere gertu dituzte egun horretarako ekitaldiak; eguerdian hasiko dira.

Doke txapelketa

Lehenik eta behin, 12:30ean meza esango du San Martin ermitan Martin Mendizabal apaizak. Horren ostean, berriz, luntx dotorea banatuko dute bertaratutakoan artean: txorizoa, patata tortilla eta frijituak. Eta bukatzeko, doke txapelketa jokatu dute gura duten herritarrek. Gainera, dokean jokatzeko ez da alde aurretik izena eman beharrik izango. Hori guztia musikak girotuta egingo dute.

Hamalau baserrik osatzen dute San Martin auzoa.

Markel Irizar | Trek Factory Racing taldeko ziklista

"Aurten ez dago favorito nagusirik, eta hori ona da ziklismoarendako"

- ▶ Markel Irizarrek hirugarren Tourra hasiko du bihar, Ingalaterran, Leeds hirian
- ▶ Fabian Cancellarekin harbidetako etapa irabaztea dute helburu nagusietako bat

XABIER URZELAI | ARRASATE

Hastear den Frantziako Tourren aitzakian Markel Irizarri tartetxo bat eskaintzeko eskatu genion duela hamabost egun [Pirinioetara azken entrenamenduak egitera joan aurretik]. Oraingoan, baina, bestetan baino denbora luzeagoa behar genuela, argazkiak aparte mimatzeko asmoa zegoelako. Aldizkari espezializatuek patxada handiagotz lan egin ahal izaten dute; egunero medioek, ordea, ez. Baina Aritz Gordo argazkilari arrasatearrak merezi zuen, gutxienez, gure denboratik apur bat, bere argazki saio horietako baten testigu izan gura genuelako. Nor berean, horren trebeak diren bi lagunak batu ditu Goienak.

Halako argazki saioetara ohituta egongo zara honezkeror.

Ez pentsa horrenbeste egiten ditugunik. Normalean, egunkarietara egiten ditugun elkarrizketetan argazkiak berehalakoan egiten ditugu, argazkilariak presaka ibiltzen direlako batera eta bestera. Baina duela ez asko Antxon Epelde argazkilariak hura ere Arrasatekoa egon nintzen aldizkari baterako argazki batzuk egiten, eta gustura ibili ginen, ondo landutako zerbait izan zen, eta emaitza polita izan zen.

Gordorenak ere ikusgarri geratu dira [Publikatu aurretik argazki gutxi batzuk ikusteko aukera izan du].

Benetan direla ederrak, taldean ere erakutsi ditut eta jendea harriruta geratu da, ea nork egin dituen galdezka ibili dira. Gauzei denbora eskainiz gero, eta dedikazioa, emaitza ona izaten da. Halaxe lan egiten duen jendearekin kolaboratzen pozik ibiltzen naiz. Ondo gordeko ditut.

Tourra begira jarriko gara; dagoneko zure hirugarren edizioa izango da... hasierako ilusio hori galdu egiten da?

Ez, ilusioa ez da galtzen, baina bai hasierako egunetako urdurtasuna. Askok zita zaidan lehenengoz Tourra joatea, profesional moduan egiten nuen zortzigarren urtean izan zen eta munduko lasterketa garrantzitsuenera joateko irrikan nengoen. Horrenbeste urtez itxaroten egotea luze egin zitzaidan, baina iritsi zen aukera. Orain ere ilusio galantarekin noa, baina dagoneko ezagutzen dut lasterketa, eta horrek beste segurtasun bat ematen du.



Markel Irizar, Aaramiotik Azkoagara bidean, azken kurba itxian. | ARITZ GORDO

Aurten ez dut ikusten taldean sailkapen orokorrera begira borrokan ibil daitekeenik. Podiumean egoteko ez, behintzat.

Ez, gauzak diren moduan, sailkapen orokorrera begira Haimar

[Zubeldia] da indartsuen ikusten dudana taldekidea, eta ez diot Haimar laguna dudalako, sasoi onean dagoelako baizik. Akaso, azken urteotan gaizki ohitu gara; iaz, esaterako, Espainiako Itzulia

irabazi genuen Hornerrekin, baina oraingoan beste helburu batzuekin goaz.

Gogoan dut lau lider zenituzteneko Tourra, Radioshacken.

Bai, baina orain beste proiektu

batean murgilduta gaude. Gure helburu nagusiak apirilean izaten diren harbidetako klasikoak dira, eta taldeko izarra Fabian Cancellara da. Babesle bakarra du taldeak, eta beste taldeekin alderatuta aurrekontua asko murriztu dugu. Hala, baditugu beste indargune batzuk, baina ez dugu, esaterako, Valverde edo Nibali moduko ziklistarik sailkapen orokorrean aurre-aurrean ibiltzeko.

Tourrean, bosgarren etapa zuen neurria egina dago, Ypres eta Arenberg artekoa.

Iparreko klasikoaren antza duen etapa bat da, Paris-Roubaix moduko bat, eta hori da taldeak duen helburuetako bat, Fabianekin [Cancellara] etapa hori irabaztea. Horregatik gaude harbidetako klasikoetan ibili garen taldetik hiru ordezkari Tourrean [Danny Van Poppel, Gregory Rast eta Markel Irizar]. Etapa horretan garrantzitsua izango da erorikoetatik eta halakoetatik ihes egitea, seguru denetik egongo delako. Eta eroriko batek, esaterako, goitik behera baldintzatuko dituelako hurrengo bi asteak. Eta gero, aurreko urteekin alderatuta taldeak egungo egoerara egokitzen jakin beharko du, eta, esaterako,

"Tourra joateko ilusio berbera dut, baina lasaitasuna irabazten da"

"Sailkapen orokorrari begira Haimar ikusten dut taldean indartsuen"

"Askatasun gehiago izanda ihesaldietan sartzen ahaleginduko gara"



ARAMAION EGINDAKO ARGAZKI SAIOA

Gesalibar eta Aramaio arteko errepidean ateratako erretratuak dira batzuk –mugimendukoak– eta besteak Barajuen eta Azkoaga auzoetan egindakoak. Arratsaldeko azken orduan, ekain erdian. Argazkian, Aritz Gordo lanean.

ihesaldiak bilatzen ahalegindu beharko dugu. Hau da, beste modu batean bilatu behar dugu protagonismoa, baina lider bakarrendako lan egin beharko ez dugunez, urrunetik jotako ihesaldiengatik borrokatu ahal izango dugu askatasun handiagoz.

Zein da bederatziko horretan izango duzun rola?

Belgikako etapa horretan garbi dago, Cancellararendako egin beharko dut lan. Klasikoetako taldekook urteak daramatzagu elkarrekin lanean, ondo konponzen gara eta ondo ezagutzen dugu elkar. Horrek asko errazten du lana. Gregory Rast eta biok lan iluna egiteko egongo gara, taldekideei laguntzeko, eta posible denean ihesaldietan sartzeko borrokatuko gara. Danny Van Poppel esprint onak egiteko gauza da, nahiz eta badakigun Tourrean munduko esprinter onenak batzen direla. Eta schlecktarrak eta Haimar mendiko etapetara begira ibiliko dira gehiago. Gero, ikusi egin behar lasterketak ze norabide hartzen duen. Hori bai, nahiz eta sailkapen orokorrerako hautagai garbirik ez izan, ohorea da talde honekin Tourra moduko lasterketa batean egotea.

Sailkapen orokorrerako borroka horretan, zer-nolako lasterketa aurreikusten duzu? Contadorren eta Froomearen arteko borroka baino ez da izango?

Uste dut aspaldian ez moduan jendeak zalantza handiak dituela aurtengo lasterketari begira, eta hori ona da txirrindularitzarendako. Garaipenerako hautagai nagusiak dira bi horiek, duda barik, baina badago aurrean ibil daitekeen jende gehiago ere. Esango nuke orain momentuan Valverde Nibali baino indartsuago dagoela, eta murtziarra denok uste duguna baino indartsuago dagoela. Ez dut uste Contador edo Froome horren urrun dituenik. Eta lider horien taldeek egiten dutenaren arabera mugituko da lasterketa. Sailkapenean lehenengo hamarren artean ordezkari bat sartzeko ere izango dugu helburu, eta Haimar ikusten dut hor egoteko gaitasunaz. Baina bai, pena da podiumagatik borrokatzeko ziklistarik ez izatea.

Frantziako lasterketa alde batera utzita, entrenatu eta lasterketak

lehiatzeaz batera beste zeregin batean ere ibili zara azken urtean. Trektxeko azken bizikleta garatzen. [Argazki saiora bizikleta berriaz etorri zen Irizar, modelo berriak Emonda du izena, baina bizikletan izena estalita du, aurkezpena arte isilpean mantendu nahi izan dutelako dena. Aste barruan aurkeztu dute]

Bai, urte eta erdiko lana izan da, lan polita. Trek etxeak bizikleta talde profesionalaz aurrera egiteko asmoa erakutsi zuenean bi helbururekin izan zen: publizitatea lortzeko eta bizikletak garatzeko, materialak etengabe hobetzen joateko. *Best in class* esaldiak laburbiltzen du taldearen filosofia; hau da, onenak izatea. Horretarako diru kopuru handia inbertitzen dute bizikletak garatzen, eta munduan etxe gutxi daude halako baliabideekin lan egiteko gaitasuna dutenak.

Bizikleta garatzen urte eta erdi esan duzu.

Bai, 2013an hasi genituen bizikleta honen lehenengo testak, Kalifornian. Prototipoa sentsoarekin bete, eta zikliston ardura zen testak egiten joatea, bizikleta estutzea, beste modu batean esatearren. Ondoren, ingeniariak ikusten zuten koadroak non sufritzen zuen gehien, eta lau hilabete geroago test gehiago egin genituen, eta aurrerago gehiago... Horregatik diot marka gutxi dau dela horrela lan egiteko gaitasuna dutenak.

Eta zelakoa da, bada, bizikleta berri hori?

Hasteko, merkatuko bizikletarik arinena egitea lortu dute, 4,6 kilo baino ez ditu! Eta aldi berean, kontraesankorra badirudi ere, oso bizikleta egonkorra da, segurtasuna transmititzen duena.

Artikulu honetan dituzuen argazkien gaineko saioaren nondik norakoa bidez grabatu genuen, eta hura ikusteko duzue ondoko QR kodea. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu Aritz Gordori elkarrizketa honetan bere lanarekin kolaboratu nahi izateagatik.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Argazki saioak emandakoaren sei adibide. | ARITZ GORDO

Arlabango 18. Igoerak 40 pilotutik gora batuko ditu bihar

Denboraldiko Mendiko Sari-ko bosgarren lasterketa izango da biharkoa (lasterketa hasiera, 15:00etan). Hala, formatu luzeko lasterketa izango da, 6 kilometro pasa izango ditu. Arlabango mendateko asfaltoan, gainera, azkenaldian hainbat konpon-tze lan egin dituzte, eta ikusteko dago horrek ze eragin duen proban.

Dorletako Amako 36. saria egingo dute domekan Gatzagan

Euskaldun torneorako baliagarria den lasterketa egingo dute domekan Leintz Gatzagan. Lasterketa hau irailean egin izan dute, herriko jaietan, baina sasoi honetan txirrindulari gehiago animatzen da. Hala, amateur mailako ziklistak 10:00etan abiatuko dira Gatzagatik, eta hirutan igoko dituzte Gatzagako maldak. Helmuga, 13:00 aldera.

Auto klasikoan erakustaldia eta 'show'-a Arrasaten

Auto-zale gazte kuadrilla batek antolatuta, Arrasateko I. auto erakustaldia egingo dute domekan Markuleteko industrialdean. Goizean auto klasikoan erakustaldia izango da (10:00), eta txosna ere orduan zabalduko dute –haurrendako jolasekin-. Arrasaldean (15:00), ostera, hainbat pilotu trebe ahaleginduko dira autoekin *show*-a egiten.

Sobrarbeko ultra trail lasterketan azkarrena izan zen Jokin Garai

Hiru Handiak proban zer egiteko den erakutsi ostean –podiumera igo zen-, Jokin Garai oñatiarrak sasoi onean jarraitzen duela erakutsi zuen joan den zapatuan Ainsan (Huesca). Guztira, 500 korrikalari izan ziren distantzia askotariko probetan parte hartzen, baina nagusian, 66 kilometroko ultra trailean, Oñatikoa gailendu zen.

Eibar futbol taldea Agorrosinen entrenatuko da

Ez da gauza berria, amaitu berri den denboraldian Eibarrek ere sarritan erabili duela Agorrosingo berdegunea, baina Lehenengo Mailan egingo duen lehenengo urtean, talde armagina sarritan ikusiko dugu Bergaran. Eibartarrek Arrasateko lehenengo futbol zelaia ere izan zuten begiz jota, Atxabalpe, baina egoera txarrean dago.

"Harbideko taldetik hiru lagun gaude, Cancellarari laguntzeko"

"Valverde askok uste dutena baino indartsuago ikusten dut"

"Egia da taldean ez dugula podiumean egoteko hautagairik"

"Emonda da Trek etxeko bizikleta berria, merkatuko arinena"

"Tour honetan beste helburu batzuetara egokitu beharko dugu"

"Bizikleta hori garatzeko ziklistok zuzenean hartu dugu esku"

Arrasate Udazabal'014



Musika



Magia



Zirkoa



Musika



Zirkoa



Dantza



Dantza

Uztailak 4

“Arrasate Musikal Big Band” (Euskal Herria)

22:30 Monterron parkean

Uztailak 11

Jon Zabal (Euskal Herria)

20:00 Seber Altube plazan

Uztailak 13

The Funes Troup (Euskal Herria)

20:00 Seber Altube plazan

Uztailak 19

**Rafael Lechowski Jazz
laukotearekin + Pobresiak
(Poesia musikatua)**

22:30 Monterron parkean

Uztailak 20

Malas compañías (Euskal Herria)

20:00 Seber Altube plazan

Uztailak 25

Warszawianka (Polonia)

22:30 Monterron parkean Folklore jaialdia

Uztailak 27

Kukai dantza taldea (Euskal Herria)

20:00 Herriko plazan

**Auzoetako jaiak
uztailean zehar**

18-20 **Santa Marina**
22 **Maalako Arrabala**
26 **Ferrerias**
31 **Kanpanzar**



ARRASATEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURAKETA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

KULTURA

Bergaran ere, kultura kalera

- ▶ Uztailean eta abuztuan herriko hainbat txoko kultura-gune bilakatuko dituzte
- ▶ Arloka banatuta: martitzenetan zinema; eguaztenetan antzerkia; egubakoitzetan musika

A.. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Abian da Bergarako Udalaren udako kultura egitaraua. Martitzenean aurkeztuta, eguaztenean ekin zioten Panta Rhei taldearen *Astokiloak* kale antzerkiarekin. Gaur, egubakoitza, musika beltzean oinarritutako Berumuga jaialdiak hartuko du lekukoa; Jimmy Barnatan & The Coconers taldearen R&B eta rock-and-rolla, bada, Espolioan, 22:00ean.

Martitzenetan, zinema

Orain arte abuztuan jarri izan dute pantaila handia, eta aurten, uztailean ere aire zabalean bi film ikusteko aukera izango da. Askotariko adinetako publikoa eta generoak batzeko ahalegina egin dute, euskarazko zein gaztelarazko filmak aukeratuta.

Gazteentzako dira, bereziki, uztailekoak: *Aukera gazteak* (komedia, uztailearen 8an) eta *Ahora me ves...* (thriller-a, uztailearen 22an). San Martin plazan erakutsiko dituzte (22:00); eguraldi txarra bada, arkupeetan.

Eguaztenetan, kale antzerkia

San Martin eta Munibe plazetan izango dira; eguaztenetan eta baita eguen batzuetan ere.

Tira Y Afloja taldearen akrobaziak, herriko Mikel Laskurainen *Konga*, Potxin eta Patxin pailazoak, Costa Ricako dantzariak; horiek, hurrenez hurren, uztaileko antolatutakoak.

Egubakoitzetan, musika

Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin elkarlanean osatu dute



Ubane Uzin (Gaztelupeko Hotsak) eta Udaleko Kultura ordezkari Edurne Korta eta Leire Iruin aurkezpenean. | M.T.

aurten ere Berumugako eskaintza. Programa zabala eta sendoa egin dute askotariko jatorri eta estilotoako musikariak batuta.

Bergarako musika beltzeko jaialdien artean Euskal Herrian erreferente bilakatu dela diote bul-tzatzaileek; horren erakusle da

Hondarribiko Blues jaialdira eta Donostiako Jazzaldira datozen artista batzuek geldialdia egingo dutela Bergaran.

Abuztuan ere, zinea, antzerkia eta kontzertuak

Abuztuko eguaztenetan kulturagune bilakatuko dituzte herriko parkeak. Hauek dira musika aukerak: Morau eta Beñardo, Usondo parkean; eta Madrilgo Los Gatos Bizcos taldea, berriz, Irizar parkean. Horiez gainera, Peñafloida kondearen musika izango da Errekalde jauregian Donostiako Musika Hamabostaldirekin bat eginda.

Bestelakoak ere izango dira Errekalde eta Errotalde parkeetan: Sun magoak haurrentzako saioa egingo du lehenengoan; eta Soka taldearen aireko akrobazia eta musika batzen dituen *Desdentro* ikuskizunak borobilduko du eskaintza.



Desdentro ikuskizuna. | SOKA

LEIRE IRUIN
KULTURA ZINEGOTZIA

"Borobildu egin dugula uste dut aurten; kalitate eta kantitate aldetik diot"

Aterpe barruko eskaintzari lekukoa hartuta, indartuta dator udako egitaraua.

Gustura aurtengo uztaz? Bai. Iaz hasi ginen kultura kalera ateratzeko programarekin eta iruditzen zait aurten borobildu egin dugula; kalitate eta kantitate aldetik diot.

Herriko eragileekin landu duzue zirriborroa.

Hilero batzartzen gara hainbat kultura elkarterekin. Orain gutxi, baina, forma berri bat eman diegu batzar horiei. Hau da, gaikako batzarrak egin ditugu, arloan arloko eragileekin.

Arlo edo diziplina bakoitzari, asteke egun bat.

Sarritan gertatzen da denbora laburrean ekintza asko programatzen direnean, nahastu edota ahaztu egiten direla. Horregatik pentsatu genuen multzoka antolatuz gero oihartzun handiagoa hartzen dutela eta hitzorduak gogoratzeko orduan multzoka samurrago hartzen ditugula gogoan.

Zeintzuk dira helburuak eta, zure ustez, berritasun aipagarrienak?

Antolatze modua, alde bate-tik, eta egitarauan multzoka biltzeko modua nabarmenduko nituzke nobedadeen artean. Era berean, programatutako ekitaldien kantitatea ere aipatuko nuke, eta baita hain ikusiak ez diren lanak ekartzea lortu dugula ere bai. Donostiako Musika Hamabostaldia herrira ekartzea ere garrantzitsua da, nire ustez.

28.000 euroko aurrekontua; nola banatuta?

Zinema emanaldietarako 5.000 euro; kale antzerki-erako, 12.000 euro (Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dugu); eta Berumugarako, 10.500 euro; Foru Aldundia- ren laguntza izan dugu.

Uztaileko Berumuga musika jaialdiko protagonistak

JIMMY BARNATAN & THE COCONERS

▶ Uztailek 4, 22:00.

Santanderren jaioa eta AEBetan hazia da musikari moduan baino aktore gisa ezagunagoa den artista. Sekulako *showman*-a da; agertokian eraldatzen den horietakoa. Ez du ikusle geldoa gustuko; horregatik, bada, berehala ditu bere tresnak martxan: ahots ikaragarria eta hitz-jario aberatsa. *Room 13* hirugarren lanarekin dator.

VESPA GROOVE

▶ Uztailek 11, 22:00.

Jazzean eskarmentua duten zortzi musikarik osatutako Kantabriako taldeak funk eta soul doinuak ekarriko ditu. Energia betetako ikuskizun bihurtzen dute emanaldi bakoitza. Taularen gainean ederto pasatzen dute, eta hori transmititzen diete ikusleei; nekez izan daitezke, bada, oinak geldirik. Kantu propioak eta bertsoak jotzen dituzte, bereziki, metalezko tresnak lagun dituztela.

TRAVELLIN' BROTHERS

▶ Uztailek 18, 22:00.

Euskal Herrian musika beltza jorratzen duen talde ezagunenetakoa da. Izenak adierazten duen moduan, familia berekoak dira kideak. Europako herrialde askotako jaialdi eta aretoetan izan dira, eta baita AEBetan ere; kideek batez beste 35 urte besterik ez duten arren, 600 emanalditik gora egindakoak dira dagoeneko. Otsailean kaleratu zuten seigarren lana.

LLUIS COLOMA TRIO & PAUL SAN MARTIN

▶ Uztailek 25, 22:00.

Donostiako Jazzaldian izango dela aprobeztatuaz egin zioten Bergarako eskaintza blues eta boogie estiloan onenetakoa den Kataluniako pianistari. Segituan eman zuen baiezkua, eta emanaldi ezohikoa egingo zuela esan. Paul San Martín euskaldunarekin etorriko da; bakoitza hammond baten aurrean dagoela western filmak irudikatuz, duela egitera.

Gorka Zubizarreta, Beñat Osinaga eta Iñaki Telleria | Ttakun taldeko txalapartariak

"Helburua da instrumentua soziabilizatu eta irakastea"

Txalaparta festa antolatu dute bigarrenez Arrasateko Ttakun taldeko kideek

ANE ELORDI | ARRASATE


Arrasateko txalapartariak bigarren txalaparta festa antolatu dute biharko, uztailak 5. Iazko arrakasta eta emaitza onaren ostean, aurten ere jaialdia egitea erabaki dute. Egun osoko egitarau zabala izango da, eta berrikuntza handiena Sestaoko txalapartarien parte hartzea izango da. Hamabi kidek osatzen dute taldea, eta azken ikastaroetatik eratorritako txalapartari berriak era taldera batu dira. Hiru partaiderekin elkartu da GOIENA, jaialdiaren eta taldearen inguruan jarduteko.

Aurten bigarren edizioa egingo da, iazko emaitza onaren seinale.

Iaz oso ondo baloratu zen ekintza izan zen. Ez da jaialdi erraldoia, baina guretzat oso baliagarria izan zen. Izan ere, Debagoieneko txalapartariak bildu eta saretzeko aukera polita ematen du festak, baita txalapartaz eta emanaldiez gozatzeko ere. Gure helburua ez zen txalapartaren inguruko jaialdi erraldoi bat egitea, baizik eta txalapartarien artean harremanak egitea, orain arte bailara mailan gabiltzanek ez baikenuen elkar ezagutzen.

Aurtengo txalaparta festak ze berrikuntza izango ditu?

Aurten diana bi tokitatik egingo da, Goikobaluko gaztelu zaharretik eta Altamirako igogailutik. Iaz bezala, txalaparta aztertu eta jotzeko aukera egongo da, Herriko Plazan. Hala ere, gure ustez, arratsaldeko egitaraua da eguneko ekintzarik indartsuena, jende gehien mugituko duena: txalaparta saioak herriko hainbat tabernatan. Eta aurten nobedade handiena Sestaoko txalapartariak



Beñat Osinaga, Iñaki Telleria eta Gorka Zubizarreta. | GARAZI AYESTA

"Txalapartariak bildu eta saretzeko aukera polita ematen du festak"

izango dira; Bizkaian dagoen talderik indartsuena da eta emanaldi polita izatea aurreikusten da. **Beñat Osinaga, zu zara taldera batu den azken partaidea. Zer dela eta?** Musikan ibilia naiz, eta beti izan dut txalaparta jotzeko nahia, betidanik erakarri izan nauen instrumentua da. Ikastarora joatea erabaki nuen, ondoren taldera batzeko eskaintza egin eta onartu egin nuen. Egunez egun txalaparta jotzen noan heinean, gero eta gogo handiagoarekin dihardut. Oso motibagarria da.

Txalaparta festa zein helbururekin sortu zen?

Gure helburua txalapartaren alde lan egitea da, instrumentua soziabilizatu eta jendeari jotzen irakastea. Egun, musika arloa globalizatuta dago eta txalaparta bezalako instrumentu txikiak desagertzen hasi dira. Guk euskal kulturaren bere-berea duen musika instrumentu horren alde egin nahi dugu, sustatu eta belaunaldi berriei irakatsi.

Arrasateko txalaparta festara gerturatzen denak zer jasoko du?

Giro polita sortuko da. Batetik, txalapartari onak bilduko dira eta emanaldi ikusgarriak egingo dituzte. Bestetik, edozeinek izango du esperimentatzeko aukera. Gainera, irrintzilari, albokari eta bertsolariekin batera ere saioak egingo ditugu. Guretzat plazera da beste txalapartari batzuekin bikoteak aldatu ahal izatea.

'Etxepare rap' ikuskizuna eta Eroa Naizen taldearen kontzertua Antixenan

Domeka iluntzea animatze aldera bi ikuskizun antolatu dituzte, musika hizpide hartuta

ANE ELORDI | OÑATI

Imanol Epelde euskara irakasle zarautzarrak *Etxepare rap* ikuskizuna eskainiko du Oñatiko Antixena gaztetxean domekan, uztailaren 6an, 19:00etan. Egun berean Eibarko talde batek ere emango du kontzertua. Eroa Naizen izeneko talde esperimental berriak bere lana aurkeztuko du.

Ohikoak ez diren erregistro, estilo eta diziplinak bilduko dituzte domekan Antixenan. Izan ere, Imanol Epeldek 27 zapata ezizenarekin literatura eta rapa bateratzen dituen ikuskizuna eskainiko du, *Etxepare rap*. Zarautzarrak euskal literaturako zenbait obra rap kantuetara moldatu ditu; adibidez,

Axularren, Bilintxen eta Bernat Etxeparearen obra klasikoak landu ditu. Musika, literatura eta ikus-entzunezko edukiak batzen ditu ikuskizunean.

Literaturaren berrikuntza

Hezkuntza arloan, literatura irakasteko berrikuntza bezala ekin zion proiektuari Epeldek. Haren iritziz, ikasleek testu hutsa ez den edozer eskertu egiten dute eta harrera hobeaz izaten da.

Abenduan ikasgelatik oholtzara egin zuen salto. Hamar bat emanaldi egin ditu eta emaitzarekin pozik agertu da. Ekain erdialdean Bergarako kartzela zaharrean izan zen, Zibergara taldearen eskutik.

Kultura industria bultzatzeko bi milioi euro bideratu ditu Aldundiak

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi milioi euroko diru laguntzak bideratu ditu kultura industria bultzatzeko 2014. urtean. Martin Garitano diputatu nagusiaren esanetan, kultura "herri baten garapenean funtsezkoa" da, eta, zehazki, Gipuzkoari aberastasuna eta enplegua ekartzen dizkio.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko kultura industriaren aldeko apustua egin du. Helburua da euskal kultura eta euskara euskarri guztietan zabaltzea, paperean, ikus-entzunezkoetan eta Interneten;

Gipuzkoako kultura ekoizpena eta zabalkundea bultzatu nahi dituzte. Horren adibide da Gipuzkoako egunkariak plataforma digitaletan oinarritutako negozioaren eredu batera bideratu nahi izatea.

Ondarea eta sustapena

Hainbat izan dira urte hasieratik eskuragai zeuden laguntzak. Egun, kulturari dagokionez, bi eska daitezke: arkeologia jarduerak burutzeko azaroaren 17ra arte eska daiteke eta arte eszenikoa eta musika emanaldiak antolatzeke, berriz, irailaren 22ra arte.

Unamuno eta Narvaez arrasatearrak irabazle, Filipinetako bidaiaria dela eta

Ostegun Bidaiariak egitasmoan lau bidaiaria ezagutzeko aukera izan da

ANE ELORDI | ARRASATE


Aretxabaletako Udalak antolatutako egitasmoak bidaiaria esperientziak ezagutu eta ezagutaraztea du helburu. Aurten, lau diaporama aurkeztu dituzte: Filipinak, Sri Lanka, Uganda-Ruanda eta Indiako hegoaldea. Tabernetan egin den ekimenak herritarren artean harrera ona izan du eta haien erabakiz Asier Unamuno eta Igor Narvaez gazte arrasatearrak izan dira irabazle, Filipinetara egindako bi bidaiaren kon-

takizunagatik. Bigarren saria Josu Velasco aretxabaletarrentzat izan da, Uganda-Ruanda bizikletaz egindako bidaiagatik.

Esperientziadun bidaiariak

Aritz Unamuno eta Igor Narvaez irabazleek bidaiatzea gustuko dute, bi aldiz egon dira Filipinetan, abenduan eta apirilean. Bertan turismoa egiteaz gain, urpekaritza ere praktikatu zuten eta bertako jendea eta kultura ezagutu zituzten.

Unamuno Thailandian eta Vietnamen egona da, adibidez. Bidaiari sena dauka, eta etorkizun hurbilari begira ere baditu proiektu berriak gogoan. Filipinak garatu bidean dagoen herrialdea da, eta zona asko herritarrentzat iristeko zailak dira; ondorioz, turista kopurua ez da oso handia. Bertako herritarren harrera ona azpimarratu dute irabazleek, eta Aretxabaletan egindako aurkezpenarekin eta jendearen erantzunarekin ere pozik agertu dira.



Aritz Unamuno eta Igor Narvaez aurtengo irabazleak. | ARITZ UNAMUNO

Balorazio positiboa

Maidar Etxaniz Aretxabaletako Gazteria teknikariak adierazi duenez, ekimenaren emaitza oso ona izan da. Aurten lau diaporama ezagutzeko aukera egon da, iaz baino bi gutxiago. Guztira, zazpi proiektu aurkeztu ziren.

Herritarren harrera ona izan da eta tabernariak ere gustura dauka emaitzaren. Saioretan izandako eskaintza aberatsa azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek, eta helburua bete dela adierazi dute; hau da, herritarrei bidaiatzeko aukeren berri ematea.



Amparo Sanchez abeslaria, Amparanoia taldeko gidaria. | EFEEME.COM

Amparo Sanchezen kontzertuarekin hasiko da aurtengo Errekan Gora gaur

Boskote akustikoko formatuan arituko da Amparanoia taldeko gidaria

ANE ELORDI | ESKORIATZA

Gaurtik aurrera Errekan Gora jaialdia abian da. Amparanoia taldeko Amparo Sanchezek irekiko du aurtengo edizioa, Huheziko klaustroan eskainiko duen kontzertuarekin, 22:30ean. Aldarrikapen eta jai giroko kanta eta

doinuak alboratuta, formatu akustikoan arituko da, Ricard Perera bateria jolea, Jordi Mestres kontrabaxu jotzailea, Allan Perez perkusionista eta Willy Fuego gitarra jolea izango ditu lagun taula gainean. *Alma de Cantaora* da argitaratutako azken lana eta

hori aurkeztuko du Eskoriatzan. Hala ere, badu beste lan bat esku artean: *Espiritu del sol*. Arizonan grabatu du diskoa, eta herrialde askotariko lagun eta abeslarien kolaborazioak ere jaso ditu. Edizio lanak Euskal Herrian egin ditu. Udazkenean kaleratuko du

lan hori, eta nazioarte mailan arituko da aurkezten.

Lan horietan bildutako kantak eta musikari bezala egindako ibilbidean zehar sortutako abestiak kantatuko ditu, Amparanoia-aren sasoikoak eta Amparo Sanchez bakarlari bezala egindakoak ere.

Askotariko doinuak eskainiko ditu, dantzagarriak batzuk, entzutekoak beste batzuk eta parte hartzaileak ere bai.

Bizipenetatik abiatuta

Abeslariaren esanetan, egun, oholztan inoiz baino askeago eta erosoago sentitzen da. Bakarka, bikotean edo hirukotean aritzeko ez du arazorik. Amparo Sanchezen azken lana pertsonalagoa da, barnekoagoa. Kantek bizipen pertsonalak kontatzen dituzte, gaztaroko kontuak, emakume bezala egindako eboluzio eta bizitzako gertakizunak, adibidez.

Estilo aldaketa ere egin du abeslariak, doinu lasaiagoen aldeko apustua egin du bere ibilbidearen azken urteetan. Bihurrikeria eta doinu latindarrak mantendu egiten dira Amparanoia-aren sasoitik, baina, egun, garrantzi handiago ematen die abeslariak hitzei eta kantuen bitarteko mezuei. Haren helburua entzuleengana heltzea da.

Iruindarrak bihar

Errekan Gora jaialdiko beste hiru kontzertuetako protagonistak euskaldunak izango dira. Bihar, J&P Brass Band taldea arituko da Herriko Plazan, 22:30ean. Hain zehazki askotariko musika tresna jotzaileek osatzen dute taldea. Euren kantuez zein askotariko bertsioez osatutako emanaldia egingo dute; lehendabizi, kamio-nera baten joango dira herriko kaleetan zehar, eta ondoren, plazan arituko dira.

Udako aisialdian irakurzaletasuna eta liburutegiaren erabilera bultzatzeko asmoz, martxan da Biblioporrak

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Biblioporrak programa martxan da aurtengo ere, eta udako aisialdirako eskaintza zabala eskaini du. Aurtengoa egitasmoaren hogeita batgarren edizioa da, eta bailarako zenbait herritan egingo da; besteak beste, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko liburutegietan aurrera eramango da jarduerak.

Arrasateko Udal Liburutegian, Asun Agiriano kudeatzailearen esanetan, bi mila gida inguru banatu dira, liburutegian zein ikastetxeetan. Proiektua ezaguna dela dio Agirianok, eta jendartean harre-
ra ona daukala. Izan ere, guraso asko hurbiltzen dira liburutegira, gida eskuan, gomendio edo liburu eske. Haurren artean ere ezaguna da.

Egitasmo horren bitartez, liburutegiek udarako aisialdiko eredu zabala bermatu nahi dute. Gainera, formazioa ere eskaintzen da gidarekin; izan ere, liburu berrien aurkezpena egiten da, eta aukeraketa lana errazteko orientaziorako tresna ere bada. Liburuei bultzada eman eta irakurzaletasuna sustatzeko asmoz sortutako proiektua da. Bestalde, diseinua ere zaintzen dutela dio kudeatzaileak, gida erakargarria egiteko asmoz. Bailarako zenbait liburutegik elkarlanean sortuta-



Biblioporrak 2014 gidako azala. | IRAIDE OLAIZOLA

ko gida da, eta, ohitura den moduan, Iraide Olaizolaren diseinua dauka.

Ikus-entzunezkoak gora

Biblioporrak gidaren baitan liburuak dute pisu handien, baina bestelako

materialak ere eskura daitezke. Asun Agirianoaren esanetan, gero eta ikus-entzunezko gehiago daude liburutegietan, eta haur eta gazteen artean horiek dute arrakasta handien; sei disko eta bost pelikula eskaintzen dira gidan.

Antzerkia parte hartzaileagoa eta gertukoa, transmediarekin

ANE ELORDI | OÑATI

Amaia Kerexetak Aditukom enpresa-komunikazioaren inguruko aditu titularen baitan egindako amaierako proiektuak antzerkia eta transmedia aztertu eta bateratzeko proposamena egin du. Besteak beste, txikiaren aisialdiko ohitura kulturalen baitan koka dadin antzerkia.

Haur eta gazteei zuzendutako antzerkiari transmedia ukitua gehitu nahi izan dio, egilearen esanetan antzerkia ulertzeko eta publiko objektiboari helarazteko. Aldaketa proposatzen du: antzerkia soilik ikusi egin beharrean, parte hartzaileagoa egitea, aurretik lantzeko aukera eman eta gertukoago bilakatzea.

Horretarako, diseinu bat egin du, zeinetan antzerkian transmedia ezaugarriak gehituz gero, egin beharreko aldaketak zeintzuk diren adierazten duen. Bi jarduerak motak bateratzen dituen lan askorik ez dagoela esan du egileak, eta erronka pertsonala ere izan dela, herriko arazo bati irtenbidea eman nahian.

Liburu azokak izandako emaitzarekin gustura daude

ANE ELORDI | OÑATI

Balorazio positiboa egin dute liburu azokak eman duenaren gainean. Ekaineko astebururuetan egin da eta gerturatutako bisitari kopuruarekin pozik agertu dira. Arantzazuko antolatzaileek adierazita-koaren arabera, liburu-azokak eta *Liburuak, arimaren ispilu* egitasmoak berak arrakasta izan dute; hainbat bisitari gerturatu dira, eta jendearen adetik oso harrera ona jaso dutela diote.

Arantzazu Gaur, Arantzazuko Adiskideak eta Arantzazuko Santutegiak taldeek elkarlanean sortutako ekimenak Arantzazuko altxorrek ezagutarazteko baliagarria izan dela adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, Arantzazuko liburutegiak 107 inku-nable ditu; Gipuzkoan, guztira, 169 daude.

Xabier Egaña eskultorea-
ren lanak eta bisita gidatuek harrera oso ona izan dutela nabarmendu dute. Alegia, gerturatutako bisitarien esker-tu egin dute erakusketaren gaineko azalpenak jasotzea.

Iraitz Salegi | Arrakala proiektuko partaidea

"Norberarengandik hasi behar da heteroaraua apurtzen"

MAIALEN TORRES | BERGARA

Esan eta egiten ez diren plan asko eta asko bezala jaio zen Arrakala proiektuaren ideia: parranda batean. Pixkanaka, ordea, gorputza hartuz joan zen, eta, urtebete pasa baino lehen, abian da. Heteroarauaz hausnartzeko eta eztabaidak pizteko ikus-entzunezko bat ere kaleratu dute proiektuaren baitan, eta denbora laburrean arrakasta itzela izan du. Arrakala talde-lanaren fruitu bada ere, Iraitz Salegi burubelari aritu da lanean proiektua martxan jartzeko eta hura izan zuten sortzaileetako bat.

Proiektua elkarlanean abiarazi zenuten Topatu.info-k eta Bilgune Feministak. Nolatan?

Hasteko, ikusten genuen Topatuk, gazte mugimendu iraultzailearen tresna izanda, gai asko lantzen zituela, baina heteroarauaren gaia bigarren maila batean geratzen zela. Proiektu honen bidez, lehen lerrora ekarri nahi izan dugu gai hau. Bestetik, Bilgune Feministak baditu gaia lantzen duten liburuak eta lan teorikoak, baina iruditzen zitzaigun ez zegoe-la tresna eroririk heteroarauaren inguruko lanketa bat egiteko. Indarrak batu eta proiektua eragile bakoitzaren plangintzetara ekartzea erabaki genuen.

Ze helburu ditu?

Proiektuaren helburu nagusia da jendeari ikusaraztea heteroarauak zer-nolako eragina daukan gure bizitzetan. Ez bakarrik sexualitateari dagokionez, baizik eta oro har: etxean, elkarbizitzan, lagunekin... Eragile sozialetan erabiltzeko tresna bat sortu nahi genuen. Eztabaida sortzea zen helburua, eta ez goi mailako ikus-entzunezko bat egitea. Hori dela eta, edukian jarri dugu arreta.

Nori zuzenduta dago?

Eragile sozialei begira egindako proiektua da, heteroarauari buruzko eztabaidak eta hausnarketak beren alorrean bultzatzeko tresna bat eskaini baitiegu. Hala ere, badakigu maila pertsonalean ere jende askori eragingo diola.

Ikus-entzunezkoan testigantza zehatzetara jo duzue, azalpen teorikoetara beharrean. Zergatik?

Heteroarauak nola eragiten digun erakusteko, jendea identifikatuta sentitzea nahi genuen, eta horretarako jo dugu testigantzetara. Edonork bizi ditzakeen egoerak, zailtasunak eta korapiloak aurkezten dira ikus-entzu-

nezkoan. Ikusarazi nahi izan dugu posible dela heteroarautik kanpo bizitzea, edo horretan saiatzea, behintzat. Dena den, aurkezten ditugun kasuak ez ditugu jarraitu beharreko eredutzat proposatzen, adibide gisa baizik.

Zein izan da zure lana ikus-entzunezkoan eta proiektuan?

Esan beharra dago guztia talde-lanean egin dugula. Grabazioetan, ideien hautaketan, edizioan eta bestelako lanetan guztiok hartu dugu parte eta uste dut horixe izan dela proiektua hain aberasgarri egin duena. Izan ere, prozesu osoan asko ikasi dugu eta pertsonalki ere asko eragin digu. Nire kasuan, argi daukat hasi ginenetik hona arrakala ugari sortu direla nire baitan.

Bailantaldean, baita dokumentalean ere, gehienak emakumeak zarete. Zer dela eta?

Erabaki oso kontziente bat izan da. Heteroarauak guztiok estutzen gaitu, baina patriarkatua existitzen den momentutik, emakumeok are gehiago. Horregatik eta gaia pixka bat mugatzeagatik jarri dugu arreta emakumeengan. Hala ere, argi utzi nahi dugu heteroaraua haustea ez dela emakumeon lana bakarrik, gizarte osoaren eskutik etorri behar den aldaketa bat dela uste dugu.

Ikus-entzunezkoan Arrakala Proiektuaren lehen pausoa baino ez da. Ze jarraipen izango du?

Bidea hasi besterik ez da egin eta guri interesatzen zaiguna hemendik aurrerakoa da. Tresna bat jarri dugu edonoren eskura eta orain edonork har eta antola dezake proiektio bat, eztabaida bat edota erakusketa bat heteroarauari buruz. Honela, pixkanaka Arrakalak sortuko dira han eta hemen. Gainera, ikus-entzunezkoak bakarrik ez, sortzaileen lanak, galdetegiak, unitate didaktiko bat eta informazio gehiago ere jarri dugu www.arakala.net webgunean.

Nola hauts daiteke heteroaraua?

Norberarengandik hasi behar da heteroaraua apurtzen. Hala ere, hausturak ez dauka zertan sexualitatearekin loturarik izan. Este-reotipoak apurtzea ere heteroaraua haustea da; adibidez, ez depilatzea. Heteroarauak gorputz osoa zeharkatzen digu eguneko segundo guztietan, eta zalantzan jarri behar ditugu egunerokotasuneko gauza txiki guztiak hura hausteko.



Iraitz Salegi, hausnarketa eta eztabaidarako sortu duten dokumentalarekin.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdigunetik gertu, bi logelako etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan. Bikote batendako proposa. Hilean 500 euro. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 650 40 19 95

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza ematen da errentan. Pisu argitsua, guztiz jantzia, kanpoaldera ematen duena, hiru logela, bainugela, sukalde independentea, egongela eta balkoi zabala. Hirugarren solairua. Ilogailunik gabe. 634 70 98 01 edo 943 04 49 74

Donibane Garazi. Apartamentua errentan ematen da uztailan, abuztuan eta irailean. Bi logela, sukaldia, egongela eta komuna. Etxe inguruan baratza eta barbakoa. Asteko 330 eurotik 390 eurora artean. 0033 559 37 16 66 edo mendizangoan@yahoo.fr

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. 637 18 07 23

Bergara. Etxebizitza txikia edo estudioa hartuko nuke errentan. 616 39 49 91

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldia eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratu egiteko aukerarekin. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

